Atal honetan, indarrean dauden CEN arauen zehaztapenak jarraituko dira. Bereziki, honako arau hauek:

- UNE-EN ISO 8689-1:2001: *Uraren kalitatea. Ibaien sailkapen biologikoa. 1. Zatia*. Makroornogabe bentonikoen azterketak oinarri hartuta kalitate biologikoari buruzko datuak aurkezteko gida.

- UNE-EN ISO 8689-2:2001 *Uraren kalitatea. Ibaien sailkapen biologikoa. 2. Zatia.* Makroornogabe bentikoen azterketak oinarri hartuta kalitate biologikoari buruzko datuak aurkezteko gida.
- UNE-EN ISO 14996:2007: *Uraren kalitatea.* Ingurumen urtarrean ebaluazio biologiko eta ekologikoen kalitatea ziurtatzeko gida.
- UNE-EN ISO 10870:2012: *Uraren kalitatea. Ur gezetako makroornogabe bentikoen laginketarako metodoak eta gailuak hautatzeko gidalerroak.*
- UNE-EN-ISO 16150:2012: *Uraren kalitatea.* Ibitik igaro litekeen ibaietan makroornogabe bentonikoen laginketak egiteko orientabideak, dauden habitatak estaltzen dituzten azalera hainbanatuta.

4.2.1. MAKROORNOGABEEN LAGINKETA

Laginketa-estazioek, beste ezaugarri batzuen artean, irisgarritasun eta adierazgarritasun ona izan behar dute. Makroornogabeen laginketa 20-40 metroko tartean egingo da, mikrohabitat bakoitzak duen adierazgarritasunaren arabera, habitat anitzeko laginketa baita.

Lagina Surber sareaz jasoko da (0,1 m²-ko oin-azalera du). Hori jasotzeko, oin-azalera dagoen substratua ur-lasterraren kontra garbituko da. Eragiketa hori 4-5 bider errepikatzen da, estazioaren ezaugarrien arabera; hortaz, 0,4-0,5 m²-ko azalera lagina jasotzen da estazio bakoitzean. Sarean bildutako lagina polietilenoazko ontzi batean jasotzen da, eta lagin hori finkatzeko % 4ko kontzentrazioan den formaldehidoa erabiltzen da.



3. irudia. Laginketen bilketa

Laginketa-estazio bakoitzean fitxa bat betetzen da, ezaugarri hauen inguruko datuak zehaztuta: data, kokapena, eguraldiaren baldintzak, baldintza hidrológicoak, oharrak, etab.

4.2.2. MAKROORNOGABEEN LAGINEN PROZESATUA

Laginak laborategian prozesatzen dira. Horretarako, lagin bakoitza 5 mm, 1 mm eta 0,5 mm-ko zuloak dituen zutabe batetik pasatzen da. Material iragazitik, organismoak bereizten dira; dentsitateak oso handiak badira, zati alikuotak bereizten dira, eta guztizkoarekiko dentsitateak zehazten dira. Edonola ere, lagin osoko edukia berrikusten da, informazioa gal ez dadin.

Horrela, fidagarritasun handia lortzen da. Ondoren, begi biko lupa baten laguntzaz eta gako espezializatu batzuen laguntzaz, organismoak sailkatu eta zenbatzen dira. Indize biotiko bakoitzak duen eskakizunaren arabera, familia edo generoa ere sailkatzen da. Aztertutako taxon bakoitzaren zenbakizko proportzioa eta dentsitatea (1 m^2) kalkulatu dira. Horrez gain, lagin bakoitzaren guztizko dentsitatea ere kalkulatu da (m^2).



4. irudia. Makroornogabeen laginen prozesatua

4.2.3. INDIZE BIOTIKOAK

Uraren Esparru Zuzentarauak ezartzen du arroetako plan hidrológicoek ingurumen-helburuak zehaztu behar dituztela, Zuzentarau horren xedeak betetzeko, hau da, azaleko ur-masek egoera ona izatea 2015a baino lehen. Ingurumen-helburu horiek direla eta, egoeraren adierazleak ezin dira asko bereizi baldintza naturalatik edo erreferentziako baldintzetatik. Helburu horiek lortzeko, helburu espezifikoak planteatzen dira ur-masen egoeraren adierazgarri diren adierazleetarako, kasu honetan makroornogabe bentonikoetarako.

Bestalde, UEZk ezartzen du ibaiei tipologiak esleitu behar zaizkiela, hau da, antzeko ezaugarriak dituzten ur-masak. Modu horretara, mota bakoitzeko, aldaketarik gabeko baldintzetan edo adierazle bakoitzeko erreferentzia-baldintzetan ezar litezke balioak. Ur-masa baten egoera ekologikoa kalkulatzeko, erreferentzia-baldintzak zenbateraino desbideratu diren zehaztu behar da.

Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Plan Hidrológicoan, tipologiak zehaztuta datoz; hain zuzen, Kantauriko ibaietarako honako hauek dira:

- 23- Euskal Pirinioetako ibaiak
- 29- Ibai-ardatz nagusi kantabriar-atlantiko karetsuak
- 32- Ibai-ardatz txiki kantabriar-atlantiko karetsuak
- 22- Ibai kantabriar-atlantiko karetsuak
- 30- Kostaldeko ibai kantabriar-atlantikoak
- 26- Mendietako ibai heze karetsuak

Hori oinarritzat hartuta kalkulatu da aztertutako balioen eta tipologia bakoitzari dagokion adierazlearen erreferentziako balioen arteko diferentzia. EQR (Ecological Quality Ratio) deritzen horri, eta 0 eta 1 bitartean ibili ohi da; ratio horri ester, bost egoera mota ezartzen dira (oso ona, ona, Moderatua, eskasa eta txarra).

Azterketa honetan, IBMWP indizea kalkulatu da. Indize horren erabilera oso orokortua dago. Kalkulatzeko, makroornogabeen familia bakoitzak puntuazio bat dauka, kutsadurarekiko edo egoera aldatuekiko tolerantziaren arabera. Hala, puntuaziorik baxuenak baldintza zorrotzik eskatzen ez duten familiei dagozkie, eta altuenak, berriz, sentikorrenei. Indize biotikoaren balioa dauden familia guztien puntuazioen batura da. Indize horrek portaera ona, sentikortasun-maila handia eta hedadura nabarmena erakusten ditu; izan ere, abiapuntu gisa adierazlearen balio maximoak hartzen ditu, eta balio horiek modu konstantean eusten diote, presio handiagorik sortzen ez bada; ondoren, pixkanaka gutxitzen dira, presio-maila areagotu ahala.

Berriki 817/2015 Errege Dekretua onartu da, irailaren 11koa, zeinetan azaleko uren egoeraren jarraipena eta eboluzioaren eta ingurumen kalitatearen arauen irizpideak ezartzen diren. Errege Dekretu hau lege-esparru egoki bat osatzeko asmoarekin sortu da, egoeraren ebaluazioaren prozedurari segurtasun juridikoa emateko, eta administrazio guztiek modu objetiboan, egiazkoan eta homogeenan aplikatu dezaten; honela, uraren egoeraren ebaluazioa eta jarraipena egiteko metodoen kalitatea eta alderakuntza bermatzen da. Errege Dekretu honek lehenago tresna ezberdinek erregulatzen zituzten azaleko uren egoeraren ebaluaziorako beharrezko irizpide biologiko eta kimikoak arau bakar batean biltzen ditu.

Ondoren, aipatutako irailaren 11ko 817/2015 ED-an bildutako IBMWPrako eta tipologia bakoitzeko zehaztutako erreferentziako baldintzak azaltzen dira:

TIPOLOGIA					
23	29	32	22	30	26
195	180	194	202	225	204

9. taula. Erreferentziako balioa IBMWP indizerako. 817/2015 ED

Ondoko taulan, egoera oso ona, ona, Moderatua, eskasa eta txarra adierazten duten IBMWP indizeko EQR (Ecological Quality Ratio) balioak azaltzen dira:

EQR IBMWP	TIPOLOGIA					
	23	29	32	22	30	26
Oso ona	0,76 - 1	0,89 - 1	0,93 - 1	0,85 - 1	0,80 - 1	0,88 - 1
Ona	0,47 - 0,76	0,54 - 0,89	0,57 - 0,93	0,51 - 0,85	0,49 - 0,80	0,53 - 0,88
Moderatua	0,28 - 0,47	0,32 - 0,54	0,34 - 0,57	0,31 - 0,51	0,29 - 0,49	0,31 - 0,53
Eskasa	0,11 - 0,28	0,13 - 0,32	0,14 - 0,34	0,13 - 0,31	0,12 - 0,29	0,13 - 0,31
Txarra	0 - 0,11	0 - 0,13	0 - 0,14	0 - 0,13	0 - 0,12	0 - 0,13

10. taula. EQR (Ecological Quality Ratio) BALIOAK IBMWP indizerako. 817/2015 ED

EQR balioekin eta ibai-tipologia bakoitzerako ezarritako erreferentzia-baldintzekin, uraren kalitate bakoitzerako IBMWP indizearen balioak ateratzen dira:


IBMWP	TIPOLOGIA					
	23	29	32	22	30	26
Oso ona	>148	>160	>180	>171	>179	>179
Ona	92 - 148	97 - 160	111 - 180	103 - 171	111 - 179	108 - 179
Moderatua	55 - 92	58 - 97	66 - 111	63 - 103	66 - 111	63 - 108
Eskasa	21 - 55	23 - 58	27 - 66	27 - 63	27 - 66	26 - 63
Txarra	<21	<23	<27	<27	<27	<26

11. taula. IBMWP indizeko baloreak. RD 817/2015.

4.3. EKOIZLE PRIMARIOAK

Ibaiaren egoera trofikoa ekoizle primarioen bidez ezagut daiteke. Hasiera batean Kantauri aldeko ibaiek alga- eta makrofito-dentsitate baxuak dituzte. Hala ere, giza jarduerak mantengaiak gehitu ditzakete ur-sisteman, eta horrekin ekoizle primarioen hazkundera eragin. Mantengaiaren artean fosforoa nabarmentzen da (ortofosfatoak batik bat, landareek zuzenean asimila baititzakete), landaretza urtarraren garapenerako mugatzailea delako eta normalean ekosistema urtarretan presentzia eskasa duelako. Halaber, eguzki-erradiazioaren intentsitatea aipatu behar da, bi arrazoi direla eta: eguzki-erradiazioagatik beragatik (fotosintesian parte hartzen du), eta uraren tenperatura igotzen laguntzen duelako eta horrek erreakzio kimikoak katalizatzen dituelako.

Algen fotosintesiak eta arnasketa-prozesuak egunaren eta gauaren artean aldakuntza bat sortzen dute uretan disolbatua dagoen oxigeno-kontzentrazioari dagokionez. Fotosintesi-prozesuak oxigenoa ematen du, eta arnastean, ostera, kontsumitu egiten da. Bi prozesu horien formulak honako hauek dira:



Baldintza naturaletan, gauaren eta egunaren artean dagoen oxigeno disolbatuaren aldakuntza oso txikia da. Halere, ekoizle primarioen presentzia handia baldin bada, oszilazioak oso handiak izan daitezke. Egunean zehar superasetasun-egoera batera irits daiteke, eta gauean, berriz, anoxia-egoera batera.

Lan honetan, klorofila bentonikoaren eta planktonikoaren kontzentrazioa neurtzen da; horrek, alga-biomasaren adierazlea izateaz gain, algen aktibitate-mailari eta ibaiak duen egoera trofikoari buruzko informazioa ematen du.

Halaber, alga planktonikoen komunitateen osaerak zerikusia du ibaiaren egoerarekin. Hala, ondo kontserbatutako lekuetan, organismo jakin batzuk dira nagusi, eta alde degradatuetan, berriz, alga-komunitatearen osaera aldatzen da eta baldintza berrietara egokitutako organismoak agertzen dira.

4.3.1. KLOROFILAREN ETA ALGEN LAGINAK HARTZEA. ARGITASUNAREN NEURKETA

Klorofila bentonikoaren azterketa 75 laginketa-estazioetan egiten da, eta klorofila planktonikoa, berriz, 20 gunetan neurtzen da. Algen laginak udan hartzen dira, agorraldi handieneko garaian, uztailaren bukaeran edo abuztuaren hasieran ziurrenik, tenperatura, intsolazioa eta algen hazkuntza maximoetan direnean.

Laginketa CEN TC 230 (Guidance for routine sampling of benthic algae in shallow swift running waters) arauaren arabera egiten da :

- UNE-EN ISO 16698:2016: *Uraren kalitatea. Barneko uretan fitoplaktonaren laginketa kuantitatibo eta kualitatiboa egiteko jarraibideak.*
- UNE-EN ISO 15204:2007: *Uraren kalitatea. Fitoplaktonaren mikroskopia bidezko zenbaketa burutzeko gida (Utermöhl teknika).*


- UNE-EN ISO 10260:1992: *Water quality. Measurement of biochemical parameters- Spectrometric determination of the chlorophyll-a concentration.* (Uraren kalitatea. Parametro biokimikoen neurketa. A-klorofilaren kontzentrazioaren espektrometria bidezko zehaztapena.)

Alga bentonikoen lagina hartzeko, 125 cm²-ko substratu-azalera bat karrakatzen da, 25 cm²-ko bost azaleratan banatuta. Alga planktonikoen kasuan, 2 litroko lagina hartzen da ur-lasterraren ardatz nagusian, 10 cm-ko sakoneran. Laginak hotzean eta ilunpetan gordetzen dira. Analisia EHUko Kimika Fakultatean egiten da, Donostian.

Halaber, luxometroaren laguntzaz, argitasun-baldintzen neurriak hartzen dira. Estazio bakoitzean, eguzki betean ibilgutik kanpo zenbateko intentsitatea dagoen neurtzen da; gainera, hainbat neurri hartzen dira ibilgu barneko leku heterogeneoetan. Datu horiekin, argi-xurgatzearen koefizientea kalkulatu da:

$$Xurgatze-koefizientea = 1 - I_e/I_i$$

I_e ibilguaren kanpoaldean dagoen argiaren intentsitatea da; I_i berriz, ibilgu barneko intentsitatea. Koefiziente horrek 0 eta 1 zenbakien arteko balioak hartzen ditu. Orik hurbil dauden balioek adierazten dute intentsitatea antzekoa dela barruan eta kanpoan; horrek esan nahi du ez dagoela ibaiertzeko landaretzarik edo ez duela itzal askorik ematen. Bestalde, 1etik hurbil dauden balioek adierazten dute itzal ona dagoela, ibaiko landaretzari esker.



5. irudia. Argi-intentsitatea

Bestalde, plankton-komunitateen analisia 10 gunetan egiten da.

ZK.	ESTAZIOA	EST. KOD.	IBAIA	ARROA
1	Endarlatsa	BID00000	Bidasoa	Bidasoa
6	Fanderia	OIA11000	Oiartzun	Oiartzun
13	Ergobia	URU40200	Urumea	Urumea
29	Araxes ib. gora	ORI34700	Oria	Oria
30	Irura	ORI40300	Oria	Oria
48	Leitzaran Andoain	LEI41600	Leitzaran	Oria
56	Azpeitia	URO35000	Urola	Urola
57	Araztegia ib. beh.	URO37500	Urola	Urola
64	Landeta	IED13700	Urola	Urola
75	Mendaro	DEB48100	Deba	Deba

12. taula. Plankton-komunitateen laginak hartzeko estazioak – 2016. urtea

Horretarako, laginketa-gune bakoitzean litro bat ur hartzen da lagin gisa. Lagina ur-lasterraren ardatz nagusian hartzen da, 10 cm-ko sakoneran, beti ur-emia mantso doan edo are pilatuta dagoen leku batean. Lagina hartu bezain pronto, algak lugol azetikoarekin finkatzen dira.

4.3.2. EKOIZPEN PRIMARIOAREN ANALISIA

A klorofila erauzi eta aztertzeko, Lorenzenek (1967) proposatu eta Varelak (1981) aldatutako metodologia erabiliko da.

Alga planktonikoen kasuan, pigmentuak zelula-paretaren disoluziotik lortzen dira, azetonaren laguntzaz. Prozesu horretarako, lagin-bolumen jakin bat iragazten da (normalean litro bat ur). Ondoren, %90eko aberastasunean dagoen azetonaz klorofila erauzi eta hozkailuan uzten da 24 orduz, ilunpean. Klorofilaren irakurketarako, espektrofotometroa erabiltzen da, 430-665 eta 750 nm-etan. Kontzentrazioa g l⁻¹ unitateetan adierazten da.

Emitzen analisirako ELGAren (1982), Lee-Jones eta Rast-en (1978) eta Canfield-en (1983) ereduak erabiltzen dira. Eredu horien arabera, hauexek dira eutrofiaren sailkapenak (urtegietan):

Sailkapena:	ELGA (1982)	Lee-Jones eta Rast (1978)	Canfield (1983)
Oligotrofia	1.7-4.6	2	<3
Oligomesotrofia		2.1-2.9	
Mesotrofia	4.7-14.2	3-6.9	3-7
Mesoeutrofia		7-9.9	
Eutrofia	>14.2	>10	>7

13. taula. Urtegietako eutrofia-maila ezagutzeko erreferentziako balioak zenbait egileren arabera. Klorofila planktonikoaren kontzentrazioaren datuak µg l⁻¹-ko.

Eredu horiek ur-masa sakon eta egonkorragoetarako diseinatuak daude, non dinamika bertikalak horizontalak baino garrantzi handiagoa duen. Ibaietan kontrako egoera aurkitzen dugu; horregatik, emaitzak kontu handiz interpretatu behar dira.

Alga bentikoen kasuan, ur interstiziala kentzen da, iragazkian lehortuta, eta laginaren pisu hezea eta lehorra kalkulatu da (labean 105 °C-tan, lau orduz). Lagin hezetik pisu jakineko alikuota hartzen da, eduki pigmentarioa neurtzeko. Pigmentua erauzteko, %90eko aberastasunean dagoen azetona erabiltzen da, eta klorofila planktonikoaren kasuan azaldu den prozesu bera jarraitzen da, baita uhin-luzera berberak erabili ere. Klorofilaren irakurketarako espektrofotometroa erabiltzen da, eta mg m⁻² unitateetan adierazten da.

A klorofilaren kontzentrazioa oinarritzat hartuta, ibaiaren egoera trofikoa neurtzen da. Horretarako, Dodds et al. (1998) sailkapena erabiltzen da, Ipar Amerika eta Zeelanda Berriko 200 ibai epelen datuetatik ezarritako sailkapena, alegia. Komunitate zientifikoak egokitzat jotzen du sailkapen hori. Egoera trofikoaren sailkapenerako balio-tarteak hauek dira:

Klorofila bentonikoa (mg m ⁻²)	Egoera trofikoa
< 20 mg m ⁻²	Oligotrofia
20 – 70 mg m ⁻²	Mesotrofia
> 70 mg m ⁻²	Eutrofia

14. taula. Ibaien egoera trofikoa klorofila bentonikoaren kontzentrazioaren arabera (mg m⁻²). (Dodds et al. 1998)

Halaber, D₄₃₀/D₆₆₅ pigmentuen indizea kalkulatu da (Margalef, 1954). Horren bidez, zer erlazio dagoen neurtzen da pigmentu guztien (karotenoak, xantofilak eta a, b, c, d klorofilak) kontzentrazioaren eta soilik klorofilen kontzentrazioaren artean. 3tik gorako balioek populazio helduak daudela adierazten dute, eta 2aren inguruko balioek edo baxuagoak hazteko fasean dauden populazio gazteak daudela.

4.3.3. PLANKTON-KOMUNITATEEN EZAUGARRIAK

Fito eta zooplankton aleak identifikatzeko eta zenbartzeko hurrengo prozesuak burutzen dira. Jalkitzea 24 orduz egiten da, ganbera berezietan, Utermöl-en (1931, 1958) ereduaren arabera. Jarraian, mikroskopia alderantzikatu baten laguntzaz, jalkitako lagina ikusten da, eta espezieak ezagutu eta organismoak zenbatzen dira.

Planktonaren osagaiak mikroskopia optiko alderantzikatuan behatuta identifikatzen dira, gako espezializatuak erabiliz.

Organismo adierazleen presentzia erabiltzen da; hain zuzen, organismo horien presentziak esan nahi du uren kalitateak betetzen dituela bizitzeko baldintzak (Streble eta Krauter, 1987). Ahalmen bioadierazle horren arabera, ur-masak lau taldetan sailkatu dira:

- **Polisaprobikoak** edo oxigeno-kontzentrazio baxua onartzen duten organismoak ur hipereutrofitoekin erlazioa daitezke.
- **α-mesosaprobikoak** edo ur araztu samarretan bizi diren organismoak ur eutrofitoekin lotzen dira.
- **β-mesosaprobikoak** materia organiko gutxiago duten eta bakterio-kontzentrazio txikiagoa duten uretan bizi dira, eta ur mesotrofitoekin lotzen dira.
- **Oligosaprobikoak** oxigenoan aberatsak diren uretan edo ur oligotrofitoetan bizi dira.

Eskatutako sailkapen-mailari dagokionez, normalean generoa bereizten da. Ahal den kasuetan, espeziea ere sailkatzen da.

4.4. DIATOMEOEN ANALISIA

2004. urtean hasi zen diatomeoen analisia Uraren Esparru Zuzentaruak ezarritako irizpideen arabera egiten. Zuzentaru horren arabera, adierazle biologikoen artean landaretza urtarraren osaera eta ugaritasuna erabili behar dira. Diatomeo bentonikoak aztertzen dira, kalitatea neurtzeko hainbat indize baitituzte garatuak.

Diatomeak bentonikoak analizatzen dira, garatutako kalitatearen indize ugari eskaintzen baitituzte.

Diatomeoak siliziozko kanpo-eskeletoa duten organismo zelulabakarrak dira. Dituzten egiturei esker, zehaztasun handiz bereiz daitezke espezieak. Organismo horiek oso sentikorak dira uraren eutrofizazioak, kutsadurak, gazitasunak eta azidifikazioak eragindako aldaketa fisiko-kimikoekiko eta uraren kalitatean aldaketak eragiten dituzte epe ertainean (2 hilabete gutxi gorabehera). Aldiz, sentibiltate baxua erakusten dute orokorrean presio hidromorfologikoei, besteak beste erregimen hidrologikoak, ibilguaren jarraitasunak eta hondoko baldintza hidromorfologikoei eragindakoak. Askotan, ibai-sisteman dauden alga guztien artean talde ugariena osatzen dute, eta horrek izugarritzko adierazgarritasuna ematen die uraren kalitatearen adierazle gisa. Espezie bakoitza baldintza fisiko-kimiko jakin batzuetan agertzen denez, ingurumen-baldintza nagusiak zein diren asma liteke diatomeoen komunitatea aztertuta.

Laginketa- eta analisi-prozesu osoan zehar CEN arauak jarraituko dira, zehazki hurrengoak :

- UNE-EN ISO 15708:2010: *Uraren kalitatea. Sakontasun gutxiko ur korranteetan fitobentosaren ikerketa, laginketa eta laborategiko analisia burutzeko argibideak.*
- UNE-EN ISO 13946:2014: *Uraren kalitatea. Ibai eta aintziretan diatomeo bentonikoen laginketa errutina eta aurretratamendua egiteko gida.*
- UNE-EN ISO 14407:2015 *Uraren kalitatea. Ibai eta lakuetan diatomeo bentonikoen identifikazioa eta laginen zenbaketa egiteko gida.*

4.4.1. LAGINKETA

Diatomeoen laginketak Urola ibaiaren arroko hiru puntutan egin dira; bi ardatz nagusian eta hirugarrena Ibaiederren:

ZK.	ESTAZIOA	EST. KOD.	IBAIA	ARROA
56	Azpeitia	URO35000	Urola	Urola
57	Badiolegi Araztegia ib. beh.	URO37500	Urola	Urola
64	Landeta	IED13700	Ibaieder	Urola

15. taula. Diatomeo bentonikoen laginketa-guneak – 2016. urtea

Diatomeoak analizatzeko laginak substratuaren gainaldeko algak bilduz hartzen dira. Horretarako, ahal izanez gero, ur-lasterretan dauden harrien azalera karrakatzen da. 5 harri aukeratu eta kuter bat erabiliz definitutako area bateko algak biltzen dira. Algen lagina ontzi batean jasotzen da eta % 4 formol duen disoluzio batean finkatzen da. Ondoren, laborategira eramaten dira, prozesatu eta aztertzeko.

4.4.2. LAGINEN PROZESATUA

Lagin horiei tratamendu kimiko bat egiten zaie, gai organikoak ezabatzeko eta diatomeoen frustulu garbiak lortzeko. Trataturako laginak NapH-arxen (1,74 errefrakzio-indizea duen erretxina sintetikoa) muntatzen dira prestakin iraunkorra lortzeko, eta mikroskopia optikoan (Olympus BHT) behatzen dira, horiek aztertu eta kontatzeko. Lagin bakoitzeko, gutxienez 300 frustulu-ale eta gehienez 400 zenbatzen dira.

4.4.3. EMAITZEN INTERPRETAZIOA

IPS indizea, (Poluosentsibilitate Espezifikokoaren Indizea) emaitzen interpretaziorako erabiltzen da; GIG-Zentral Baltikoko non Mediterraneoeko indize interkalibratu batean datza. Indize hau kutsadurarekiko sentsibilitatea, kutsaduraren balio indikatzailea eta espeziearen ugaritasun erlatiboaren batez beste ponderatuaren balioetan oinarrituta kalkulatu da. Kalkulua, Omnidia programaren oinarrietan egiten da.

Makroornogabe bentonikoen kasuan bezala, EAEko tipologiaren interkalibratzearen gauzatzean, ondorioztatu da ezberdintasun esanguratsuak daudela tipologia ezberdinen erreferentzia baldintzetan.

Makroornogabeen kasuan bezala, *817/2015 Errege Dekretuan, irailaren 11koa, zeinetan azaleko uren egoeraren jarraipena eta eboluzioaren eta ingurumen kalitatearen arauen irizpideak ezartzen diren*, definituak datoz IPS indizearen erreferentzia balioak, baita EQR (Ecological Quality Ratio) atalase-balioak ere.

TIPOLOGIA					
23	29	32	22	30	26
17,6	16,0	18,0	16,6	17,3	18,6

16. taula. Erreferentziako balioa IPS-rako. 817/2015 ED.

IPS	TIPOLOGÍA					
	23	29	32	22	30	26
Kalitatea						
Oso Ona	0,95 – 1	0,92 - 1	0,96 - 1	0,95 – 1	0,94 – 1	0,93 – 1
Ona	0,71 – 0,95	0,69 – 0,92	0,72 – 0,96	0,71 – 0,95	0,71 – 0,94	0,70 – 0,93
Moderatua	0,48 – 0,71	0,46 – 0,69	0,48 – 0,72	0,48 – 0,71	0,47 – 0,71	0,47 – 0,70
Eskasa	0,24 – 0,48	0,23 – 0,46	0,24 – 0,48	0,23 – 0,48	0,24 – 0,47	0,23 – 0,47
Txarra	0 – 0,24	0 – 0,23	0 – 0,24	0 – 0,23	0 – 0,24	0 – 0,23

17. taula. EQR (Ecological Quality Ratio) BALIOAK IPS-rako. 817/2015 ED.

4.5. ARRAIN FAUNA

Arrain-fauna leheneratzea da ur zikinak garbitzeko eta arazteko planek duten helburu nagusietariko bat. Hortik dator arrain-komunitateen egoera ezagutzeko premia.

Halaber, Uraren Esparru Zuzentaruak agerian jartzen du adierazle biologikoak gailentzen zaizkiela adierazle fisiko-kimikoei eta morfologikoei. Adierazle biologiko horien artean arrain-fauna dago, eta arrain-populazioen osaera, ugaritasuna eta egitura aztertzea behartzen du. Hau da, arrainak ibai-ekosistemaren kalitatearen adierazle oso garrantzitsuak dira.

Komunitatearen osaerak eta egiturak maila trofikoaren informazioa ematen dute (bereziki algen eta makroornogabeen informazioa), eta ibai-ekosistemaren kalitatearen egoera erakusten dute. Espezie batzuk luzaro bizi dira (20 urte edo gehiago), eta, hori dela eta, ur-masek jasan dituzten afekzio eta eragin historikoen lekuko izan litezke, nahiz eta eraginen jatorria jadanik desagerturik egon. Gainera, tamaina eta mugikortasun handiagoa dutenez, garrantzi handia dute ekosistemetan; izan ere, eragina dute energia-fluxuan zein substantzien eta elementuen garraioan.

4.5.1. ARRAIN FAUNAREN LAGINKETAK

Arrain-fauna aztertzeko laginak arrantza elektrikoaren bidez hartzen dira. Laginketa-metodologia eta datu-bilketa CEN arauak kontuan hartuz burutu dira, zehazki :

- UNE-EN ISO 14962:2007: *Uraren kalitatea. Arrainen laginketarako aplikazio eremua eta metodoen aukeraketa burutzeko jarraibideak*
- UNE-EN ISO 14011:2003: *Uraren kalitatea. Arrainen laginketa elektrizitatea erabilia.*



6. irudia. Arrain-faunaren laginketak

1.000 m²-ko azalera edo 110 metroko luzera duen ibai-zati bat aukeratzen da estazio bakoitzean. Estazioak ibai-zatiaren baldintza hidrodinamikoak izan behar ditu, bertan bizi diren arrain-espezieak aurkitu ahal izateko.

Arrantza ur-lasterraren kontra egiten da, eta, salabardoan laguntzaz, korrante elektrikoak erasandako arrain ahalik eta gehienak harrapatzen dira. Harrapatutako arrainak sare egindako *bibarioetan* sartzen dira laginketa bukatu arte. Ondoren, arrain guztiak identifikatu eta horien datu biometrikoak hartzen dira. Ale bakoitzetik datu hauek jasotzen dira:

- Espeziearen identifikazioa
- Luzera furkala edo luzera guztira (mm)
- Pisua, gramoak zehaztuta
- Oharrak (sexua, markak, izan ditzakeen patologiak, etab.)

Lana errazteko eta animalien estresa gutxitzeko, arrainak anestesiatu egiten dira iltze-olioa erabilita. Arrainak identifikatu eta biometriak egin eta gero, suspertu eta ibaira itzultzen dira, ahalik eta nahasmendurik txikiena eraginez.

Arrain-faunaren laginketa 25 estaziotan egiten da. Horietatik bost estaziotan, laginketa Semikuantitatiboa egiten da (ondo ondoko bi arrantza-saio). Gainontzeko 20 estazioetan laginketa kualitatiboa da (arrantza-saio bakarra). Ondorengo taulan, laginketa-estazioen zerrenda azaltzen da:

ZK.	ESTAZIOA	EST. KOD.	IBAIA	ARROA	LAGINKETA-MOTA
2	Endara	END10200	Endara	Bidasoa	Semikuantitatiboa
5	Ergoien	OIA05900	Oiartzun	Oiartzun	Semikuantitatiboa
7	Fanderia	OIA11000	Oiartzun	Oiartzun	Kualitatiboa
13	Karabel	URU38800	Urumea	Urumea	Kualitatiboa
22	Segura	ORI11200	Oria	Oria	Kualitatiboa
26	Ordizia	ORI21800	Oria	Oria	Kualitatiboa
30	Irura	ORI40300	Oria	Oria	Kualitatiboa
36	Pte. Lazkao	AGA20200	Agauntza	Oria	Kualitatiboa
37	A. Ab. Troya Meategi	EST03500	Eztanda	Oria	Kualitatiboa
41	A. Ab. Zaldibia	AMU09800	Amundarain	Oria	Kualitatiboa
46	Berastegi	BER13200	Berastegi	Oria	Kualitatiboa
48	Leitzarar Andoain	LEI41600	Leitzarar	Oria	Semikuantitatiboa
49	Brinkola	URO03500	Urola	Urola	Semikuantitatiboa
50	A.Ab. Legazpia	URO09800	Urola	Urola	Kualitatiboa
57	A.Ab. EDAR Badiolegi	URO37500	Urola	Urola	Kualitatiboa
60	Aizarnazabal	URO48200	Urola	Urola	Kualitatiboa
62	A.Ab. Barrendiola	BAR05800	Barrendiola	Urola	Kualitatiboa
64	Landeta	IED13700	Ibai-Eder	Urola	Kualitatiboa
66	Leintz	DEB03100	Deba	Deba	Semikuantitatiboa
69	San Prudentzio	DEB20300	Deba	Deba	Kualitatiboa
70	Matxiategi	DEB27290	Deba	Deba	Kualitatiboa
74	A.Ab. Elgoibar	DEB44300	Deba	Deba	Kualitatiboa
76	Aramaio	ARM07700	Aramaio	Deba	Kualitatiboa
79	Puente Tabesa	OIN12500	Oñati	Deba	Kualitatiboa
82	A. Ab. Elgeta	UBE04200	Ubera	Deba	Kualitatiboa

18. taula. Arrain-faunaren laginak hartzeko estazioak – 2016. urtea

4.5.2. INFORMAZIOAREN TRATAMENDUA

Laginketa-gune bakoitzean arrain-komunitatearen eta populazioen parametro jakin batzuk kalkulatu dira:

- **Arrain-komunitatearen osaera:** ageri diren espezieen zerrenda.
- **Arrain-espezie bakoitzaren maiztasun erlatiboa:** zenbakizko portzentajea.
- **Espezie bakoitzaren biomasa:** zenbakizko portzentajea.
- **Shannon – Weaver Dibertsitate Indizea:** formula honekin kalkulatu da:
 - $H' = -\sum(p_i \log_2 p_i)$
 - Non p_i espezie bakoitzaren maiztasuna den.

- **Espezie bakoitzeko populazioaren egitura:** neurrien egitura 1 cm-ko klase bakoitzeko, neurri klase bakoitzeko ale-kopuruaren portzentajearen arabera adierazita.
- **Espeziearen datu biometrikoak:** batez besteko luzera (mm) eta pisua (g), baita luzeraren eta pisuaren aldakuntza-tarteak ere.

Inbentarioa egin den gunetan, ondoko hau ere kalkulatzen da espezie bakoitzeko:

- **Dentsitate probableena eta konfiantza-mugak** ($\alpha = 0,05$)
- **Biomasa probableena eta konfiantza-mugak** ($\alpha = 0,05$)

Parametroak kalkulatu ondoren, estazio bakoitzeko analisi xehatu bat egingo da, arrain-komunitatearen egoera ezagutzeko helburuarekin.

4.6. DATU-BASEA EGUNERATZEA

Lan honetan lortutako emaitza guztiak OBRA HIDRAULIKOETAKO ZUZENDARITZAK duen datu-basean jasoko dira.

5. SANEAMENDUA

Orain dela gutxi arte, hiri- eta industria-isurketak zuzenean Gipuzkoako ibaietara joaten ziren, inolako tratamendurik egin gabe eta modu orokorrean. Horren ondorioz, toki batzuk kutsatuta edo oso kutsatuta egon dira, eta ibai-tarte batzuetan kutsadura organikoa, toxikoa edo mistoa uretako bizitzarekin bateraezinak ziren mailetara iritsi da. Hiriek eta industriek eragindako kutsadura horrek ibai-ardatz nagusi gehienei eragin die aurreko hamarraldietan; ibaiadar batzuk eta goi-ibarrak bakarrik geratu dira araztu gabeko isurketa horietatik libre. Egoera hori bereziki larria da izan ibai batzuetan, hala nola Deba ibaian (industriak eragindako kutsadura toxiko handia), Oria ibaian (papergintzagatik), Urola Garaian eta Urumea ibaiaren beheko tartean, bai eta horien ibaiadar batzuetan ere. Hala eta guztiz ere, egoera hori aldatu egin da saneamendu- eta arazketa-lanak egin izanari esker, kutsadura eragiten zuten enpresak itxi izanari esker (papergintzako eta metalgintzako sektoreetakoak nagusiki) eta industria askotan ingurumen-neurriak hartu izanari esker. Une hauetan, saneamendu eta arazketarako oinarritzko azpiegiturak gauzatze-fase oso aurreratuan daude. Eskualdeetako hondakin uren araztegi guztiak eraikita eta martxan daude; hala, kolektore-sarea egiteko lanak oso fase aurreratuan daude. Herrigune autonomo eta industrialde ugaritako saneamendua konpontzea falta da, bai eta udal sareak hobetzea ere.

Gipuzkoan horniduraz eta saneamenduaz arduratzen diren erakunde kudeatzaileak hauek dira:

ARROA	HORNIDURAREN ETA SANEAMENDUAREN ERAKUNDE KUDEATZAILEAK
BIDASOA	TXINGUDIKO UREN MANKOMUNITATEA (BIDASOA BEHEA) NAFARROAKO FORU ERKIDEGOKO UDALERRIAK FRANTZIA ALDEKO UDALERRIAK
OIARTZUN	AÑARBEKO UREN MANKOMUNITATEA
URUMEA	AÑARBEKO UREN MANKOMUNITATEA NAFARROAKO FORU ERKIDEGOKO UDALERRIAK
ORIA	GIPUZKOAKO UREN PARTZUERGOA AÑARBEKO UREN MANKOMUNITATEA UR PARTZUERGOAREN BARRUAN EZ DAUDEN GIPUZKOAKO UDALERRIAK NAFARROAKO FORU ERKIDEGOKO UDALERRIAK
UROLA	GIPUZKOAKO UREN PARTZUERGOA
DEBA	GIPUZKOAKO UREN PARTZUERGOA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO UDALERRIAK ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO UDALERRIAK

19. taula. Gipuzkoako horniduraren eta saneamenduaren erakunde kudeatzaileak.

Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak, Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eskumenak dituzte alor honetan, eta lankidetzaz hitzarmen batzuk finkatuak dituzte hornidura eta saneamendurako proiektuak gauzatzeko. Horien ustiapena arestian aipatutako erakundeei dagokie.

Ondoren, arro bakoitzaren egoera zein den azaltzen da:

BIDASOA ibaiak kalitate handiko urak ditu. Ibai honetan, beste arro batzuetan baino isurketa dezente gutxiago egiten dira; gainera, Irun eta Hondarribiko hondakin-urak Atalerrekako HUAN bildu eta tratatzen dira. Nolanahi ere, oraindik ere herrigune horietako eremu batzuek beren isurketak zuzenean Bidasoa ibaira edo Irungo Belaskoenera –Zubimusu errekarerekin loturikoa– egiten dituzte, eta hori positiboa da.

OIARTZUN ibaiaren arroak egoera ona du, eta ia isurketa guztiak jasotzen dira. Gainera, azkeneko urte hauetan Lintziringo eremuko isurketa batzuk jaso dira, eta horrek hobekuntza bat ekarri du Lintzirin errekaen uraren kalitatean, baita Oiartzun ibaiaren behe-ibilguko tartean ere. Beste alde batetik, Arditurri errekan zink-kopuru handia topatu dugu, garai bateko meategietatik datorrena. Esterilen putzu batzuk estaltzeko, landareberritzeko eta egonkortzeko lanak egin dira, eta, horri esker, errekaen kalitate biologikoa hobetu da; nolana ere, oraindik ere metal horren kontzentrazio handiak atzematen dira.

Bestalde, **URUMEA** ibaian urek kalitate handia dute ia luzera osoan, saneamendu-lanak ia amaituta daudelako eta Loiolako HUA martxan dagoelako. Behe-ibilguan uraren kalitatea okerxeagoa da, zenbait isurketa zuzenean ibilgura egiten direlako; hala ere, azken urteetan hobekuntza txiki bat ikusi da, alde horretako hondakin-urak eta industria-urak biltzeko jarduketa batzuk egin direla eta.

Isurketen % 95, gutxi gorabehera, Urumeako kolektore orokorrera konektatuta daude, eta HUA horretan tratatzen dira. Saneamendua gauzatzeko prozesuan hiru une nabarmentzen dira horien garrantziagatik. Lehena 70eko hamarkadan izan zen; paper-industriako isurketen parterik handiena biltzen hasi zen. Bigarrena 1992. eta 1997. urteen bitartean gertatu zen; Hernaniko, Astigarragako eta Donostiako isurpenak konektatu ziren. Horrez gain, oso kutsatzaileak ziren hainbat enpresa itxi ziren. Hirugarrena, Monpaseko urpeko hustubidea eraiki zenean, eta Loiolako aipatu HUA martxan jarri zenean, 2006ko urtarrian. Bestalde, berriki Añorga errekaen saneamendua egin da.

ORIA ibaiaren arroari dagokionez, saneamendua oso fase aurreratuan dago. Goierri, Zegama, Segura, Idiazabal, Ataun, Lazkao, Ezkio-Itsaso, Zaldibia, Ormaiztegi, Beasain, Ordizia... udalerrien hondakin-uren parte handi bat bilduta dago, eta isuriak Legorretako Gaikaoko HUA tratatzen dira (2003an martxan jarria). 2016an Aramako eta Alzagako saneamenduak bukatu dira, eta beste udalerriren batekoari heldu zaio; besteak beste, Beizama, Mutiloa eta Gabiriakoari (obrak gauzatzeko fasean daude). Horren ondorioz, nabarmena da kutsadura organikoak Oria ibaiko goi-ibilguan izan duen beherakada; horrela, uraren kalitateak hobera egin du nabarmen, eta halaxe jarraitzen du gaur egun ere.

Tolosaldean, arroko erdi-behe partean, kolektoreak ia bukatuta daude, eta Adunako Uraldeko HUA martxan 2011z geroztik. Araztegiak Legorreta, Ikaztegieta, Alegia, Tolosa, Berrobi, Villabona, Andoain, Asteasu, Irura, Anoeta, Zizurkil eta Adunako hondakin-urak arazten ditu; ondorioz, kutsadurak nabarmen egin du behera. Gainera, hainbat herri txikitako (Altzo, Abaltzisketa, Gaintza eta Amarotz, besteak beste) hondakin-urak biltzeko esku-hartzeak aurreikusi dira; horiekin egoera nabarmen hobetzea espero da. 2013an Lizartzako HUA jarri zen martxan, horrela herriko hondakin-urak zuzenean isurtzea saihestu zen.

Ibaiaren behe-ibilguan, berriki (2016ko apirila), Lasarteko eta Usurbilgo kolektoreetako obrak bukatu dira; hortaz, herri horietako hondakin-urak Loiolako HUA arazten dira.

Bestalde, paper-industriako isurketak nabarmen jaitsi dira hainbat enpresa itxi izanaren eta neurri zehatzak hartu izanaren ondorioz; oraindik, ordea, arazoak daude Amezketa eta Berastegi ibaietan. Oriaren arroan, aipagarria izan da paper-industriaren eragina, oso presente egon baita ibarrean. Halako industriak historikoki kutsadura garrantzitsua sortu du, nahiz eta beherantz nabarmen egiten joan den arazketa-sistemak martxan jartzearen eta zenbait paper-enpresa (berriki ere) ixtearen ondorioz. Gaur egun, arroan hiru paper-industria daude aktiboan. Hurrengo taulan ikus daitekeenez, karga kutsatzaileak nabarmen murriztu dira. Taulak paper-industriak arroan egin dituen isurketen bilakaera erakusten du:

Urtea	Emaria (m ³ /d)	Sol. Esek. (Kg/d)	DQO (Kg/d)	Paper-industriako enpresak guztira	Araztegiak
1976	78.000	61.000	48.000	17	0
1982	97.000	65.000	62.000	16	2
1989	59.000	29.000	33.000	13	2
1997	25.000	3.500	6.000	11	6
2001	23.000	1.800	5.600	11	9
2007	15.048	533	2.006	5	5
2010	12.000	285	1.000	4	4
2013	10.000	180	900	3	3

20. taula. Papergintza-sektorearen isurien eboluzioa Oria arroan.

UROLA ibaiaren arroan, saneamendua ia amaituta dago. Biztanlegune txiki batzuk baino ez daude konektaturik arroko hiru araztegi nagusietara: Zuringoingo HUA (Urola Garaia), Badiologiko HUA (Urola ertain-behea) eta Basustako HUA (Zumaia). Urola Garaiko HUA 2001ean jarri zuten martxan, eta Legazpiko, Zumarragako eta Urretxuko isurketak arazten ditu. Nolanahi ere, tarteren batean noizean behingo gorabeherak izaten dira, zuzeneko isurketak egiten direlako, Legazpitik beherako uretan gertatzen dena kasurako. Behe-ibilguan paper-industriako isurketen tratamendua hobetu da. Edonola ere, funtzionamendu irregularra dauka, eta ondorioz, aldizka isurketa horien eraginpean egoten da. Bestalde, 1992an Badiologiko HUA jarri zen martxan, Azkoitiko eta Azpeitiko hondakin-urak tratatzeko. 2003an, Basustako HUA (Zumaia) martxan jarri zen. Berriki, Aiaren saneamendurako kolektore bat eraiki dute; horrela, Aiako herriguneko isurketak konektaturik daude Orioko saneamendu-sare orokorrarekin, eta horko hondakin-urak Iñurritzako HUAn (Zarautz) arazten dira.

Deba ibaian saneamendua gauzatze-fase oso aurreratuan dago. 2014an martxan jarri zen Leintz Gatzagako HUA, herri txiki horretako hondakin-urak saneatzeko. 2012an Epeleko HUA jarri zen martxan Deba garaiko tartean, Oñatiko, Eskoriatzako, Aretxabaletako eta Arrasateko hondakin-urak arazteko. Horrek berarekin ekarri du Deba ibaiaren tarte horretan uren kalitatea hobetzea. Bestalde, Mekolaldeko HUA (2009), Bergarako, Antzuolako eta Elgetako hondakin-urak arazten dituen (azken bi horiek konektatu gabe daude oraindik), eta Apraizko HUA (2007), Elgoibarko, Eibarko, Soraluzeko, Ermuko, Mendaroko eta Mallabiko isurketak arazten dituen (azken bi horiek konektatu gabe daude oraindik), funtzionamenduan daude; horri esker, nabarmen murriztu da kutsadura-maila, nahiz eta oraindik aurkitu daitekeen. Mutrikuko eta Debako Arronamendiko HUAK ere bukatuta daude. Konektaturik ez dauden udalerrak ahal denik eta azkarren konektatzea aurreikusten da.

Bestalde, metal-industrian arazteko sistemetan eta azalerako tratamendu-sistemetan egindako hobekuntzek toxikotasun-maila jaiste ahal izatea lortu dute. Bi gauzarengatik gertatu da hori:

- Aurreko eta berriki izandako industria-krisiak: ondorioz, enpresa ugari itxi dituzte, eta besteetan jarduera jaitsi da.
- Martxan diren enpresek ezarri dituzten ingurumen-hobekuntzak:
 - Barruko hobekuntzak, zirkuituak itxita
 - 'Hodi bukaerako' araztegi indibidualak instalatu
 - Hondakin toxikoak eta arriskutsuak kudeatu

Jarraian, arroen saneamendua zein egoeratan dagoen adieraziko dugu:

ARROA	SISTEMA	SANEAMENDUAREN EGOERA
Bidasoa	Txingudiko Mank.	Ibaiko, erreketako eta estuarioko hodi biltzaileak: gauzatuak. Itsasorako tunela eta hustubidea: gauzatuak. HUA martxan.
Oiartzun	Añarbeko Mank.	Badiako hodi biltzaileak: gauzatuak. Oiartzungo eta hipermerkatuen inguruko kolektorea: gauzatuak. Loiolako HUAra konektatzea: gauzatua.
Urumea	Añarbeko Mank.	Ibaiko eta erreketako hodi biltzaileak: amaituak. Lotura-kolektoreak: gauzatuak. Itsaspeko hustubidea: gauzatua eta martxan. Loiolako HUA martxan.
Oria	Gipuzkoako Uren Partzuergoa Oria Garaia Erdialdeko Oria Oria Behea Añarbeko Mank.	Amaituak Idiazabal-Segurako eta Ataun-Lazkaoko kolektoreak. Beasain-Ordiziako kolektoreak: gauzatuak. Gaikaoko HUA: martxan. Bukatuak: Legorreta-Alegia, Asteasu-Villabona, Irura-Villabona, Andoain-HUA, Alegia-Tolosa, Villabona-HUA, Tolosa-Irura. Adunako HUA: martxan. Uraldeko HUA martxan. Loiolako HUA martxan.(Lasarte-Usurbil)
Urola	Gipuzkoako Uren Partzuergoa Urola Garaia Erdialdeko Urola Urola Behea	Kolektoreak: gauzatuak. Zuringoingo HUA: martxan. Kolektoreak gauzatuta. Badiologiko HUA martxan. Kolektoreak gauzatuta eta HUAk (Iñurritza, Basusta eta Sanantonpe) martxan.
Deba	Gipuzkoako Uren Partzuergoa Debagoiena Erdialdeko Deba Deba Kosta	Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate eta Oñati: gauzatuak. Epeleko HUA: martxan. Bergara: Kolektoreak bukatuta eta Mekolaldeko HUA martxan. Ermuko eta Mallabiko saneamendua: gauzatzen. Elgoibarko hodi biltzailea: gauzatua. Apraizko HUA: martxan. Debako HUA eta Mutrikuko saneamendua gauzatuak. Mutrikuko HUA: amaitua.

21. taula. Saneamenduaren gaur egungo egoera (2016).

6. HIDROLOGÍA


Gipuzkoako sare foronomikoak, ur-emia neurtzeko 24 estazio ditu; Gipuzkoako Foru Aldundiarenak. Horiek Kantauriko Konfederazio Hidrografikoarenak diren beste estazio batzuekin osatzen dira.

2015-2016. urte hidrologikoari dagokionez, idazle-taldeak Gipuzkoako Foru Aldundiaren sareko ur-emia neurtzeko 17 estaziotan jasotako informazioa erabili du. Horrez gain, Bidasoa ibaiko ur-emia neurtzeko Endarlatsako estazioak (Kantauriko Konfederazio Hidrografikoarena) emandako datuak analizatu dira, lurraldean egon daitekeen aldakortasun hidrologikoaren espektroa nahikotasunez betetzeko.

Ur-emia neurtzeko estazioetako datuen arabera, 2015-2016. urte hidrologikoak aurreko urtean baino ekarpen nabarmen gutxiago jaso ditu. Aurreko urtekoa serieko hezeenetako bat izan zen. Arro gehien urteko batez besteko emaria serie historikoaren antzekoak edo zertxobait baxuagoak dira. Ur-emia neurtzeko estazioek jasotzen dituzten datuetatik ondorioztatzen denaren arabera, 2015-2016. urte hidrologikoa "**normaltzat**" sailkatzen¹ da. Nahiz eta datua zertxobait aldatu arroen arabera, hilabeterik hezeena martxoa izan da ("oso heze" gisa sailkatua) eta ondoren otsaila. Aitzitik, udako hilabeteak dira ur-emiari gutxien mantentzen dutenak, eta abuztuak ditu emari baxuenak. Kasu horretan, abuztua "lehor" gisa sailkatu da.

2015-2016. urte hidrologikoaren beste ezaugarri bat izan da lehen hiruhilekoan ekarpen gutxi jaso dituela, oro har; bereziki urrian eta abenduan. Azken hori "oso lehortzat" har daiteke; ez da batere ohikoa Gipuzkoako lurralde historikoan.

Oria ibaiko Lasarteko estazioko (C9Z1) eta Oñati ibaiko Zubillagako estazioko (A1Z2) ondorengo hidrogrametan ikus daiteke Gipuzkoako bi eremu desberdinen (bata bestetik urrun) urte hidrologikoaren dinamika orokorra. Antzeman daiteke nola, isurketa-arroak desberdinak izanik ere, dinamika oso antzekoa den urtean zehar.



7. irudia. Oria ibaiko Lasarteko eta Oñati ibaiko Zubillagako estazioetako eguneko batez besteko emaria. 2015-2016. urte hidrologikoa.

¹ Urte hidrologikoaren sailkapena "oso lehorra, lehorra, normala, hezea eta oso hezea" izan daiteke.

Jarraian, serieko urteko batez besteko emariak, aztertutako estazioetakoak, jaso ditugu 1995-1996. urtetik hasita (21 urte).

Urte Hidrológ.	1106 Endar.	A1Z1 San Pruden.	A1Z2 Zubill.	A3Z1 Altzola	B1Z1 Aitzu	B2Z1 Aizarna.	C1Z2 Eztanda	C3Z1 Amund.	C5Z1 Alegia	C6Z2 Araxes	C7Z1 Beraste.	C8Z1 Leitz.	C9Z1 Lasarte	D2W1 Ereñozu	E1W1 Oiartzun	C2Z1 Agaun.	B1Z2 Ibaieder	B1Z3 Matxinb.
1995-1996	14,32	1,616	2,162	7,399	-	-	0,621	-	-	-	0,790	3,135	-	4,755	-	1,067	0,681	-
1996-1997	22,41	2,910	3,384	12,019	-	7,634	1,141	-	7,329	-	1,293	4,809	-	9,055	-	1,864	1,359	-
1997-1998	17,43	1,846	2,280	8,525	-	5,379	0,735	-	5,400	-	0,853	3,366	-	6,900	-	1,312	1,004	-
1998-1999	27,46	3,023	3,357	13,167	-	8,962	1,361	-	8,731	-	1,662	6,169	-	12,334	2,892	2,157	1,626	-
1999-2000	15,99	1,695	2,159	8,076	0,996	5,195	0,683	-	4,950	-	0,906	3,665	-	7,352	1,931	1,249	0,781	-
2000-2001	21,61	2,113	2,721	9,930	1,443	6,275	0,919	-	6,513	-	1,057	4,211	20,237	8,021	2,218	1,557	1,056	-
2001-2002	9,73	1,169	1,754	6,157	0,781	4,152	0,436	0,696	3,874	-	0,752	2,902	12,868	5,503	-	1,078	0,631	-
2002-2003	26,59	2,882	-	12,490	1,694	8,090	1,305	0,915	8,086	-	1,422	5,243	24,090	10,743	-	1,853	-	0,348
2003-2004	20,5	2,545	3,112	10,348	1,559	6,876	1,026	1,047	7,733	-	1,178	4,931	22,682	-	-	1,960	1,335	0,279
2004-2005	15,91	2,784	3,400	11,581	1,685	7,077	1,143	1,035	8,007	-	1,073	4,511	21,945	6,939	1,695	2,015	1,395	0,310
2005-2006	16,62	2,349	2,604	9,722	1,343	6,497	0,925	0,875	6,689	-	1,004	4,280	19,740	7,100	1,720	1,616	1,421	0,257
2006-2007	20,7	2,393	3,216	10,367	1,416	6,060	0,884	1,030	6,606	-	1,075	4,754	21,012	8,473	-	1,724	1,174	0,231
2007-2008	-	2,268	2,622	9,416	1,220	4,993	0,877	0,831	5,963	-	1,007	4,381	19,020	8,530	4,782	1,465	1,136	0,211
2008-2009	24,92	4,021	3,979	14,632	2,065	9,562	1,425	1,191	9,705	-	1,333	5,284	28,748	10,755	2,831	2,310	2,080	0,315
2009-2010	25,17	2,286	2,868	10,438	1,467	6,318	1,101	0,871	6,721	-	0,969	4,022	20,024	7,326	2,093	1,751	1,170	0,203
2010-2011	18,67	1,668	2,392	8,322	1,170	5,796	0,578	0,802	4,782	-	1,165	4,242	19,013	8,116	2,251	1,441	0,970	0,162
2011-2012	28,26	2,086	2,615	9,400	1,293	7,424	0,740	0,873	6,283	3,466	1,318	4,447	22,226	8,794	2,474	1,691	1,356	0,227
2012-2013	44,95	4,745	5,358	19,044	2,586	13,005	2,100	1,524	13,423	6,581	1,925	7,543	40,603	14,111	4,010	3,332	2,944	0,508
2013-2014	35,17	2,949	3,324	11,967	1,724	7,684	1,091	1,055	7,707	4,326	1,274	6,010	25,848	12,430	3,168	1,951	1,465	0,273
2014-2015	32,72	3,886	4,051	15,365	2,097	9,446	1,451	1,192	11,322	4,879	1,665	6,346	29,286	12,047	2,840	2,520	1,948	0,306
2015-2016	26,74	2,623	2,878	10,411	1,485	6,689	0,888	0,837	7,381	3,592	1,161	4,632	20,860	8,514	1,965	1,689	1,323	0,219
Batez Bestekoa	23,294	2,565	3,012	10,894	1,531	7,156	1,020	0,985	7,360	4,569	1,185	4,709	23,013	8,890	2,634	1,791	1,343	0,275

22. taula. Urteko batez besteko emariak Gipuzkoako neurketa estazioetan. Datuak $m^3 s^{-1}$ tan.

7. EMAITZAK ETA EZTABAIDA

Kapitulu honek bi atal ditu:

- 2016ko kanpainako ibaien egoera
- Urtez urteko bilakaera

Eranskinetan xehekiago kontsulta daitezke laginketa-gune bakoitzaren datuak, atalburu bakoitzeko taulak eta grafikoak (kalitate fisiko-kimikoa eta biologikoa, ekoizpen primarioa eta arrain-fauna); baita kalitate fisiko-kimikoaren eta biologikoaren urtez urteko bilakaera ere.

Zebra muskuiluaren eta sedimentuen analisiaren txostenak eranskinetan jaso dira.

7.1. IBAIEN EGOERA 2016. URTEAN

Atal honetan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko ibaiak 2016. urtean zuten egoera aztertzen da. Arro bakoitzeko analisia egiten da, ordena honetan:

- Bidasoa
- Oiartzun
- Urumea
- Oria
- Urola
- Deba

Arro bakoitzean atalburu hauek azaltzen dira:

- Deskribapen geografikoa
- Uraren kalitate fisiko-kimikoa
- Uraren kalitate biologikoa
- Ekoizpen primarioa eta plankton-komunitateak
- Arrain-fauna
- Sintesia

7.1.1. BIDASOA IBAIAREN ARROA

7.1.1.1. DESKRIBAPEN GEOGRAFIKOA (BIDASOA)

Bidasoa ibaiaren arroa Gipuzkoako Lurralde Historikoko ekialde-ekialdean dago, eta 700-km² ditu. Azalera horren % 10a baizik ez da Gipuzkoa, ibaiaren ezkeraldea hain zuzen, Endarlatsatik hasi eta bokaleraino doana. Nazioarteko urak direnez, batzorde franko-espainiar batek kudeatzen du sektore hori. Gainontzeko partea Nafarroako Foru Komunitateari dagokio. Geologiaren aldetik, Bortzirietako material paleozoikoak nagusitzen dira. Azken zatiak izaera granitikoak dauka, eta Aiako Harria nabarmentzen da. Bidasoako estuarioan, Irungo eta Hondarribiko herriak daude, eta biztanleak 75.000 inguru dira guztira. Nafarroako partean ez dago herri handirik Bidasoa ibaitik gertu. Bidasoa ibaiak ibaiadar-sare handi bat du, eta horien artean, beheko aldean, Endara eta Jaizubia errekek daude.

Endara errekekaren azpiarroak 3,77 km²-ko azalera dauka. Goiko aldean, San Antongo urtegia dago. Urtegiak 5,09 Hm²-ko edukiera du, eta Irungo eta Hondarribiko herriak hornitzen ditu.

Bidasoa ibaiaren arroan, basogintza eta nekazaritza-abeltzaintza dira erabilera nagusiak. Horrez gain, bada industria-jarduera garrantzitsu bat ere Legasa, Lesaka eta Bera aldean, Nafarroako partean, bai eta Irunen eta Hondarribian ere, Gipuzkoako partean. Bidasoa ibaiak jauzi hidroelektriko ugari ditu. Presa gehienak arrain-eskaileraz hornituak daude. Ibaiko habitata, bai ardatzetakoa eta bai adarretakoa, kontserbazio-egoera onean dago. Gainera, esan behar da kudeaketa- eta saneamendu-planak ia amaiturik daudela. Egoera horri esker, Kantauriko migratzaile handi diren bost arrain-espezie kontserbatu ahal izan dira: kolaka, izokina, itsas amuarraina, aingira eta lanproia.

7.1.1.2. URAREN KALITATE FISIKO-KIMIKOA (BIDASOA)

Ondoren, 2015-2016. urte hidrologikoan lortutako emaitza fisiko-kimiko nagusiak azaltzen dira:

KODEA	ESTAZIOA	IBAIA	Lagin. Kop.	T ^a (°C)	pH	Ox. Dis (mg/l)	Eroan. (µS/cm)	NH ₄ (mg/l)	PO ₄ (mg/l)	NO ₃ (mg/l)	Arrain Gait.
BID00000	Endarlatsa	Bidasoa	8	8,2 – 19,8	7,5 – 8,2	9,42 – 12,57	92 – 252	<D.M – 0,06	<D.M – 0,21	2,46 – 5,38	Izokin
END10200	Endara	Endara	8	8,8 – 18,4	7,2 – 7,5	9,55 – 11,88	86 – 228	<D.M	<D.M – 0,70	2,47 – 3,78	Izokin
JAI04950	Jaizubia	Jaizubia	2	18,8 – 19,5	8,1	8,59 – 8,99	365 – 377	<D.M – 0,08	0,12 – 0,23	--	Zipri

D.M.: Detekzio-muga.

23. taula. Bidasoa ibaiaren arroko datu fisiko-kimikoak 2015-2016 urte hidrologikoa (balio minimo eta maximoak)

Endarlatsaren eta Endararen baldintza fisiko-kimikoak egokiak dira salmonidoentzat. Neurtutako parametro guztiek hala adierazi dute.

2016an Jaizubia erreka ere analizatu genuen. Kasu horretan, oxigenazioak salmonidoen espezieak baldintzatuko lituzke, baxua delako eta ez delako araudiak jasotzen duen 9 mg/l-ra iristen. Nolanahi ere, kontuan hartu behar da puntu horretan bi laginketa baino ez dela egin.

7.1.1.3. URAREN KALITATE BIOLOGIKOA (BIDASOA)

Ondorengo taulan, Bidasoa ibaian eta Endara eta Jaizubia erreketan dauden laginketa-estazioetan IBMWP indize biotikoaren zer balio atzeman diren azaltzen da:

				UDABERRIA			AGORRALDIA		
Estazioa	Kodea	Ibaia	Mota	IBMWP	EQR IBMWP	Kalitatea	IBMWP	EQR IBMWP	Kalitatea
Endarlatsa	BID00000	Bidasoa	29	187	1,04	Oso ona	197	1,09	Oso ona
Endara	END10200	Endara	23	223	1,14	Oso ona	172	0,88	Oso ona
Jaizubia	JAI04950	Jaizubia	30	56	0,25	Eskasa	70	0,31	Moderatua

24. taula. Bidasoa ibaiaren arroko uraren kalitate biologikoa. 2016. urtea.

Makroornogabeentzako indize biotikoen emaitzen arabera, bai Bidasoa ibaiak Endarlatsan, bai Endara errekek oso ur kalitate ona erakutsi dute bi kanpainetan.

Aurretik aipatu dugun moduan, 2016an Jaizubia erreketan laginak hartu dira lehenengoz, eta emaitzak ez dira oso gogobetekoak izan. Uraren kalitatea eskasa da udaberrian, eta moderatua agorraldian.

7.1.1.4. EKOIZPEN PRIMARIOA (BIDASOA)

Bidasoa ibaiak, Endarlatsa aldean, eta Endara errekek egoera trofiko hau dute:

		BENTOSA			PLANKTONA		
ESTAZIOAK	IBAIA	Klorofila (mg/m ²)	Margalef indizea	Egoera trofikoa	Klorofila (µg/l)	Margalef indizea	Egoera trofikoa
Endarlatsa	29,13	2,59	Mesotrofia	2,19	2,35	Oligotrofia	29,13
Endara	1,07	2,40	Oligotrofia	-	-	-	1,07

25. taula. Bidasoa ibaiaren arroko ekoizpen primarioa – 2016. urtea.

Alga bentonikoei dagokienez, berriz, Endarlatsak nolabaiteko eutrofia erakusten du, heltze-fasean dauden alga-komunitateekin. Aitzitik, Endaran, klorofila aterata lortutako emaitzek agerian utzi dute erreka-tartea ez dela batere emankorra; hau da, oligotrofia du. Kasu honetan, alga-fasea ere heltze-fasean dago.

Endarlatsako estazioan planktonean egindako azterketan, emaitzek oligotrofia erakusten dute, uretan heltze-fasean dagoen alga-populazio batekin.

Planktonek Endarlatsako estazioan duen konposizioari dagokionez, honako hauek izan dira gune horretan aurkitutako talde fitoplanktonikoak: diatomeoak, klorofitoak, kriptofizeoak, dinofizeoak, zianofizeoak eta konjugatuak. Algen maiztasunak moderatu-baxuak izan dira. Algarik ugariena klorofitoa izan da, *Scenedesmus armatus*, ohikoa ingurune β-mesosaprobioetan. Talde horretan bost genero desberdin identifikatu dira. Diatomeoen taldeak erakutsi du genero-aniztasun handiena. Hamalau genero desberdin identifikatu dira, eta maiztasunari erreparatuta *Navicula sp.* nabarmendu da. Kalitate ekologikoko hainbat adierazle aurkitu dira, *Gyrosigma sp.* eta *Rhoicosphenia curvata* kasurako, biak ere eutrofiloak eta β-mesosaprobikoak. Halaber, *Melosira varians* eta *Nitzschia acicularis* ere identifikatu dira, eutrofiloak eta α-mesosaprobikoak; alegia, ingurune eutrofitoetan garatzen dira, materia organiko ugari sortutako kutsadura dagoen lekuetan (MAGRAMA, ID-TAX). *Oscillatoria sp.* generoko zianobakterioak ere aurkitu dira, kontzentrazio baxuetan. Gainerako alga-taldeak (kriptofizeoak, dinoflagelatuak, konjugatuak eta euglenofizeoak) maiztasun baxuetan daude.

Identifikatutako zooplanktonari dagokionez, kladozeroek, errotiferoek, protozoek, kironomidoen larbek, turbelarioek eta nematodoek osatzen dute. Talde horien maiztasunak baxuak izan dira.

Intsolazioa altua da Bidasoaren azken tartean (Endarlatsa), ur-bazterreko landaredi eskasiagatik eta ibaiaren beraren zabaleragatik. Kasu honetan gainera, bi gertakari ematen dira batera: batetik, laginketaren tartean, ibaiaren eskuinaldeko ertzean, nagusi da arroka-azalerratzea eta ezker aldean, berriz, N-121 errepideko horma. Aitzitik, Endara errekan azken tartean ur-bazterreko landarediak itzal handia ematen du.

ESTAZIOA	ARGI-XURGATZEAREN KOEFIZIENTEA. BIDASOA IBAIAREN ARROA
Endarlatsa	0
Endara	0,51

26. taula. Argi-xurgatzearen koefizientea. Bidasoa ibaiaren arroa.


7.1.1.5. ARRAIN FAUNA (OIARTZUN)

Jarraian, Endara errekan, Bidasoa ibaiarekiko bokaletik hurbil egindako arrain-laginketan lortutako emaitzak jaso ditugu, eta iruzkina gehitu diogu.

IV. eranskinean espezieen araberrako tailen banaketaren grafikoa kontsulta daiteke.

Ale-kopurua/Ha								
ESTAZIOA	IBAIA	LAGINKETA MOTA	IZOKINA	AMUARRAINA	EZKAILUA	GOBIOA	MAZKARRA	AINGIRA
Endara	Endara	Semikuantitatiboa	363	213	4.277	116	5.901	1.197

27. taula. Arrain-komunitatearen osaera Endaran - 2016. urtea



8. irudia. Endarako arrain-komunitatearen osaera (Endara ibaia) - 2016. urtea.

Arrain-komunitatea 6 espeziek osatzen dute: izokinak, amuarrainak, ezkailuk, mazkarrak, aingirak eta zarboak. Izokinak eta amuarrainak oso dentsitate ahulak dauzkate, 2014an egin zen laginketan bezala. Aipatu behar dugu izokinak naturalak direla. Aitzitik, ezkailuak eta mazkarrak dentsitate altuak dituzte. Aingirak dentsitate garrantzitsua dauka, nahiz eta aurreko laginketarekiko behera egin duen. Bestalde, zarbo-ale bakanak harrapatu ditugu.

7.1.1.6. SINTESIA (BIDASOA)

Nola Bidasoa ibaian (Endarlatsaren parean), hala Endara errekan, emaitza fisiko-kimiko onak lortu ditugu, halako moldez, non urak oso egokiak baitira salmonidoentzat. Aitzitik, Jaizubia erreka egokia da ziprinidoentzat, ez baitu espezie salmonidoek behar izaten duten behar besteko oxigenaziorik.

Bestalde, makroornogabeen indize biotikoen emaitzek erakusten dute Endarlatsan eta Endaran urak oso kalitate ona duela. Ez da gauza bera gertatzen Jaizubia errekarerekin; horretan, uraren kalitatea eskasa da. Egoera trofikoari dagokionez, nolabaiteko eutrofia antzematen da Endarlatsan, nahiz eta ohikoena produktibitate baxua izan.

Finean, lortutako emaitzek agerian uzten dute Bidasoa ibaiak eta Endara errekek, oro har, egoera biologikoa eta fisiko-kimikoa ona dituztela. Jaizubia errekarerekin dagokionez, berriz, nolabaiteko defizita erakusten du oxigenoan, eta kalitate biologikoa irregularra da.

7.1.2. OIARTZUN IBAIAREN ARROA

7.1.2.1. DESKRIBAPEN GEOGRAFIKOA (OIARTZUN)

Oiartzun ibaiaren arroak du eremurik txikiena Gipuzkoan dauden sei arro handien artean: 86 km². Ekialdean kokaturik dago, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoaren barruan sartuta dago oso-osorik. Normalean, prezipitazioak oso ugariak dira arro honetan. Oso erliebe malkartsua du, malda handikoa. Kontuan izan behar da 12 km baino gutxiagoan igarotzen dela 800-900 metroetatik itsasoaren mailara. Aiako Harriko material granitiko geologikoek eta horien aureola metamorfikoak material azidoak sortzen dituzte arroaren zati handi batean. Beheko aldean, hiri-eta industria-garapen handi bat dago. Pasaia badiak herri hauek hartzen ditu: Donostia, Errenteria, Pasaia eta Lezo, eta guztira 120.000 biztanle inguru dituzte. Ibiadar nagusiak Arditurri, Karrika, Sarobe eta Lintzirin edo Gaintxurizketa dira.

Añarbeko urtegiak hornitzen ditu arro honetan kokatuta dauden herriak, urtegia Oiartzun ibaiaren arrotik kanpo badago ere. Ibai-buruan, ur-hargune garrantzitsu bat kokatzen da, Oiartzun herria hornitzeko erabiltzen dena. Saneamendua ere ia amaitua dago. Isurketak kolektoreetan bilduta daude eta Loiolako hondakin-uren araztegiaren tratatzen dira.

Oro har, arroaren goiko aldea egoera onean dago. Inguru hauetan baso-erabilera da nagusi; izan ere, baso autoktonoen eremu handiak daude. Beheragoko guneetan, baso-landaketak, laborantzako eta belarra ebakitzeko zelaiak daude. Kasu honetan, ibaiko habitata zertxobait erasanda dago; halere, kontserbazio-maila Moderatua du.

Haranaren barrenean, elkarrekin nahasturik ageri dira laborantza-guneak, zelaiak, herriguneak, industrialdeak eta azpiegitura handiak. Gune honetan, habitataren kontserbazioa irregularra da. Bokalean presio antropiko handia dago, eta horrek izugarri narriatzen du ibaiko habitata. Gaur egun, goiko aldean, zentral hidroelektriko bat dago martxan; gainera, herrien eta industriaren hornikuntzarako hainbat ur-hargune daude. Arditurriko garai bateko meategietatik datozen metalek kutsatu egiten dute erreka, zakartegietako lixibiatuen eta meategi-sarbideetako azaleratzeen ondorioz. Dena dela, azken urteetan, hainbat jarduketa egin dira meategi zaharretatik eratorritako metal-ekarpenak gutxitu nahian.


7.1.2.2. URAREN KALITATE FISIKO-KIMIKOA (OIARTZUN)

Ondoren, Oiartzun ibaiaren arroko erreketan lortutako datu fisiko-kimiko nagusiak laburbiltzen dira:

KODEA	ESTAZIOA	IBAIA	ZK.	T ^a (°C)	Ox.Dis. (mg/l)	pH	NH ₄ (mg/l)	Eroan. (µS/cm)	PO ₄ (mg/l)	DOO (mg/l)	Zn (mg/l)	Arrain Gait.
OIA04200	Aritxulegi	Oiartzun	15	7,2 – 18,2	9,31 – 11,99	7,2 – 7,7	<D.M	63 – 97	<D.M	<D.M	<D.M	Izokin
OIA05900	Ergoien	Oiartzun	8	8,7 – 17,8	9,31 – 11,53	7,1 – 7,7	<D.M	82 – 119	<D.M	<D.M	0,23 – 0,52	Zipri
OIA09500	Ugaldetxo	Oiartzun	15	8 – 19,3	9,17 – 11,67	7,2 – 8,1	<D.M	123 – 236	<D.M – 0,08	<D.M	0,08 – 0,25	Izokin
OIA11000	Fanderia	Oiartzun	15	8,5 – 19,5	8,80 – 11,53	7,4 – 8,3	<D.M – 0,13	187 – 318	<D.M – 0,15	<D.M	0,04 – 0,14	Izokin
ARD02400	Arditurri	Arditurri	8	8,3 – 18,3	9,63 – 11,71	6,8 – 7,6	<D.M.	96 – 162	<D.M	<D.M	0,74 – 1,35	Ez gai
GAI02200	Lintzi bok.	Lintzirin	7	10,0 – 17,5	6,49 – 11,17	8,1 – 8,3	<D.M – 0,09	366 – 607	<D.M – 0,21	<D.M – 16	<D.M	Izokin

D.M.: Detekzio-muga

28. taula. Oiartzun arroko datu fisiko-kimikoak- 2015-2016. urte hidrologikoa. (Balio maximo eta minimoak)



9. irudia. Oiertzun ibaiaren kalitate fisiko-kimikoak – 2015-2016.urte hidrologikoa.

Oiertzun ibaiak, oro har, egoera fisiko-kimiko onak ditu. Azpimarratzekoa da ur fresko ondo oxigenatua, salmonidoen ibaiak berezkoak dituzten ezaugarriak. Araudiaren arabera, ibai osoa egokia da salmonidoentzat, Ergoiengo tartean izan ezik. Izan ere, tarte horretan zinka aurkitu da, Arditurriko meategitik datorrena; tarte hori beraz, ziprinidoentzat da egokia.

Zinkaren kontzentrazio-maila ere altua da Arditurri errekan. Horren ondorioz, ibaiadar hori arrainak bizitzeko ezegokitzat jotzen da, litroko 1 mg-tik gorako kontzentrazioak neurtu baitira.


Lintzirin errekarri dagokionez, berriz, salmonidoentzat egokia da, nahiz eta uda partean nolabaiteko oxigeno defizita antzematen den.

7.1.2.3. KALITATE FISIKO-KIMIKOAREN JARRAIKO AZTERKETA (OIARTZUN)

OIARTZUN ibaian kokatuta dagoen neurketa jarraituko estazioak datu hauek ematen ditu: pH-a, uraren temperatura, eroankortasuna, oxigeno disolbatua, uhertasuna eta solido esekiak. Urteko egunen % 92etako datuak daude, parametro guztietakoak.

	pH-a	Uraren T ^a (° C)	Eroan. (µS/cm)	Ox. Dis. (mg/l)	Uher. (UNF)	Sol. Esek. (mg/l)
BATEZ BEST.	7,5	14,3	232	10,16	6	7
DESB.TIP.	0,2	3,2	38	1,06	15	19
MAX.	8,0	21,7	328	12,17	146	231
MIN.	7,0	8,9	143	8,04	0	2
N	363	363	362	363	350	360
URRI. BAT. B.	7,8	14,4	268	9,70	2	2
AZA. BAT. B.	7,6	13,2	274	9,92	8	8
AB. BAT. B.	7,7	11,1	246	10,79	1	2
URT. BAT. B.	7,6	11,0	226	10,73	5	6
OTSA. BAT. B.	7,5	10,8	207	10,80	17	23
MAR. BAT. B.	7,5	11,1	195	11,69	10	13
APIR. BAT. B.	7,6	12,7	201	11,69	4	4
MAI. BAT. B.	7,4	15,1	211	10,10	9	10
EKA. BAT. B.	7,4	16,6	207	9,65	6	6
UZT. BAT. B.	7,4	18,4	220	9,20	2	2
ABU. BAT. B.	7,5	19,5	278	8,83	1	2
IRA. BAT. B.	7,2	18,0	250	8,82	14	9

29. taula. Oiertzun ibaian kokatuta dagoen neurketa jarraituko estazioaren estatistika – 2015-2016.urte hidrologikoa (eguneroko batezbestekoetan oinarritua)



10. irudia. Kalitate fisiko-kimiko jarraitua Oiartzunen – 2015-2016.urte hidrologikoa


Araudiaren arabera, erregistratutako baldintza fisiko-kimikoak bateragarriak dira salmonidoekin. Analizatutako parametro guztiek hala adierazi dute. Aipatu beharko litzateke bitan gainditu dela 21,5° C-ko tenperatura, salmodidoak bizitzeko tenperatura-muga gisa hartzen dena. Edonola ere, egoera hori egunen % 1etik beherako portzentajea da; hortaz ez da mugatzailea.

7.1.2.4. URAREN KALITATE BIOLOGIKOA (OIARTZUN)

Oiartzun arroko ibaietan egindako laginketetan emaitza hauek lortu dira:

Estazioa	Kodea	Ibaia	Mota	UDABERRIA			AGORRALDIA		
				IBMWP	EQR IBMWP	Kalitatea	IBMWP	EQR IBMWP	Kalidad
Aritxulegi	OIA04200	Oiartzun	23	235	1,21	Oso ona	159	0,82	Oso ona
Ergoien	OIA05900	Oiartzun	23	183	0,94	Oso ona	133	0,68	Ona
Ugaldetxo	OIA09500	Oiartzun	23	130	0,67	Ona	108	0,55	Ona
Fanderia	OIA11000	Oiartzun	23	79	0,41	Moderatua	90	0,46	Moderatua
Arditurri	ARD02400	Arditurri	23	153	0,78	Oso ona	109	0,56	Ona
Lintzirin bokala	GAI03900	Lintzirin	23	35	0,18	Eskasa	31	0,16	Eskasa

30. taula. Oiartzun arroko kalitate biologikoa. 2016. urtea



11. irudia. Oiartzungo ibaiaren kalitate biologikoaren eboluzio longitudinala. 2016. urtea.

Makroornogabeen analisiaren arabera, Oiartzun ibaiak UEZk ezarritako helburuak betetzen ditu estazio guztietan, Fanderian izan ezik; horretan, kalitate biologikoa Moderatua da, bai udaberrian, bai agorraldian. Indize biotikoak behera egiten du goi-ibarretik bokalerantz, nahiz eta Fanderian soilik topatu diren kutsadura-arazoak. Gainerako tartetan, bai udaberrian, bai agorraldian, egoera gogobetegarria da.

Ibaiadarrei dagokienez, Arditurrik ur-kalitate oso ona eta ona du, hurrenez hurren. Nolanahi ere, Lintzirinen behealdean kalitatea eskasa da, agerikoak izanik kutsadura arazoak.

7.1.2.5. EKOIZPEN PRIMARIOA (OIARTZUN)

Ondoren, Oiartzun arroko ibaietan lortutako ekoizpen primarioaren emaitzak azaltzen dira:

ESTAZIOAK	IBAIA	BENTOSA			PLANKTONA		
		Klorofila (mg/m ²)	Margalef indizea	Egoera trofikoa	Korofila (µg/l)	Margalef indizea	Egoera trofikoa
Aritxulegi	Oiartzun	--	--	--			
Ergoien	Oiartzun	16,16	1,97	Oligotrofia	0,48	2,46	Oligotrofia
Ugaldetxo	Oiartzun	32,67	1,96	Mesotrofia			
Fanderia	Oiartzun	11,95	2,27	Oligotrofia	9,17	2,64	Mesotrofia
Arditurri	Arditurri	5,10	2,37	Oligotrofia			
Lintzirin bokala	Lintzirin	21,40	1,59	Mesotrofia			

31. taula. Oiartzun ibaiaren arroko ekoizpen primarioa - 2016. urtea.

Oiartzun ibaiaren ardatzaren tarterik altuenean, Aritxulegin, ez dira algak antzematen. Ergoiena da hantzematen hasten den lehen tarte (gazte-fasea); klorofilaren azterketa eginda, oligotrofia erakusten du. Ugaldetxon, nahiz eta algak aurreko tartean bezala gazte-fasean egon, egoera mesotrofikoan dago. Oiartzun ibaiaren Fanderiako tartean, egoera trofikoa berriro ere oligotrofikoa da, heltze-fasean dauden algekin.

Bestalde, Arditurrin oligotrofia antzematen da, heltze-fasean dauden populazioekin. Hala ere, emaitzek mesotrofia erakusten dute Lintzirinen, hazte-fasean dauden algekin.

Klorofila planktonikoari dagokionez, emaitzek oligotrofia erakusten dute Ergoienen, eta mesotrofia Fanderian. Bi tarte horietan, alga populazioak heltze-fasean daude.

Horrez gain, komunitate planktonikoaren analisia egin da Oiartzun ibaiaren beheko tartean, Fanderian, eta talde hauek agertu dira: diatomeoak, klorofitoak, zianobakterioak, kriptofizeoak eta konjugatuak. Fitoplanktonaren presentzia moderatua da; talderik ugariena diatomeoak dira, bai maiztasunagatik, bai identifikatutako genero aniztasunagatik. Alga horietatik *Melosira varians* izan da ugariena, bera izanik kalitate adierazlea, eutrofiloa eta α-mesosaprobikoa. Halaber, ur eutrofikoaren beste adierazle batzuk ere aurkitu dira; besteak beste, *Nitzschia sigmaidea* eta *Rhoicosphenia curvata*, eutrofiloak eta β-mesosaprobikoak (MAGRAMA, ID-TAX). Orobat, *Nitzschia linearis*, maiztasun baxuetan identifikatua; hori ere ur mesotrofikoaren eta β-mesosaprobikoaren adierazlea. Klorofitoak hiru generotan baino ez dira agertu, eta horietan nabarmenena *Ulothrix* izan da, nahiz eta, oro har, maiztasun baxuetan. *Oscillatoria* zianobakterioa identifikatu da kontzentrazio baxuetan.

Laginketaren puntu horretan oso eskasa izan da topatutako zooplanktona, errotifero, protozoo eta nematodo bakan batzuek osaturik.

Oiartzun ibaiaren ardatzean, ur-bazterreko landaredia neurri batean kaltetuta dago; hortaz, nolabaiteko intsolazio-maila dago, % 50ekoa gutxi gorabehera. Arditurriren behe-tartean, egoera nahikoa antzekoa da; ur-bazterreko landaredia dago, baina ez du ibilgu osoa estaltzen laginketa-tartean. Aitzitik, Lintzirin errekek estaldura maila altua dauka, ia osorik gerizpean.

ESTAZIOA	ARGI-XURGATZEAREN KOEFIZIENTEA. OIARTZUN IBAIAREN ARROA
Aritxulegi	0,39
Ergoien	0,62
Ugaldetxo	0,03
Fanderia	0,42
Arditurri	0,15
Lintzirin bokala	0,54

32. taula. Argi-xurgatzearen koefizientea. Oiartzun arroa.


7.1.2.6. ARRAIN FAUNA (OIARTZUN)

Arrantza elektrikoko laginketak egin dira Oiartzun ibaian, Ergoingo eta Fanderiako estazioetan. Jarraian, lortutako emaitzak azalduko ditugu.

IV. eranskinean, espezieen araberako neurrien banaketen grafikoak kontsulta daitezke.

Ale kopurua/ Ha									
ESTAZIOA	IBAIA	LAGINKETA MOTA	IZOKINA	AMUARRAINA	EZKAILUA	MAZKARRA	AINGIRA	PLATUXA	KORROKOIA
Ergoien	Oiartzun	Semikuantitatiboa		3.936	1.469		358		
Fanderia	Oiartzun	Kualitatiboa	13	253	3.981	897	506	13	38

33. taula. Ugaldetxoko arrain-komunitatea (Oiartzun ibaia) - 2016. urtea.



12. irudia. Ergoien eta Fanderiako arrain-komunitatearen osaera (Oiartzun ibaia) - 2016. urtea.

Ergoingo arrain-komunitatea 3 espeziek osatzen dute: amuarrainak, ezkailuak eta aingirak. Amuarraina da espezie nagusia, eta dentsitate altua hartzen du. Ezkailua ere ugaria da, eta aingira, berriz, eskasa.

Fanderiako arrain-komunitateari dagokionez, zazpi espeziek osatzen dute: izokinak, amuarrainak, ezkailuak, mazkarrak, aingirak, platuxak eta korrokoiak. Ezkailua da espezie nagusia, eta horren dentsitatea altua da. Amuarrainak dentsitate ahula du. Basa-izokin bat harrapatu da; horrek erakusten du espeziea ugaltu egin dela. Mazkarrak gora egin du dentsitatean aurreko laginketarekiko; hala ere, dentsitatea ahula da. Edonola ere, aingiraren populazioak behera egin du; horren dentsitatea ahula da. Gainera, platuxa- eta korrokoi-ale bakanak arrantzatuta dira.

7.1.2.7. SINTESIA (OIARTZUN)

Kalitate fisiko-kimikoari dagokionez, **Oiartzun** ibaiak, oro har, egoera fisiko-kimiko onak ditu, salmonidoen urek berezkoak dituztenak. Hala ere, metalei dagokionez, zink kontzentrazio altuak topatu dira Ergoienen, Arditurriko garai bateko meategitik datozenak. Horrela, ur horiek ez dira egokiak salmonidoentzat, bai, ordea, ziprinidoentzat (arrain-babeserako 2006/44/EE Zuzentarauaren arabera). Ugaldetxon eta Fanderian metal hori aurkitu da, nahiz eta kontzentrazio txikiagotan; ur horiek, hortaz, aproposak dira salmonidoentzat.

Bestalde, Oiartzun ibaiaren uraren kalitate biologikoa oso ona edo ona da ia kasu guztietan, Fanderian izan ezik; hor, kalitatea moderatua da, bai udaberrian, bai agorraldian.

Ekoizpen primarioari dagokionez, klorofila bentonikoaren analisiak oligotrofia erakusten du Ergoienen eta Fanderian, eta eutrofia edo mesotrofia arina Ugaldetxon. Bestalde, klorofila planktonikoaren mailek oligotrofia erakusten duten gune horretan, eta mesotrofia Fanderian.

Arrain-faunari dagokionez, 2016an laginketan egin dira Ergoienen eta Fanderian. Amurraina da espezie nagusia Ergoienen, eta dentsitate altua hartzen du. Ezkailuk dentsitate garrantzitsua lortu du, eta aingirak, berriz, eskasa. Egoera nahikoa gogobetegarria dela esan daiteke. Fanderiako arrain-komunitatearen egoerari dagokionez, berriz, ezkailua da espezie nagusia, dentsitate altuarekin. Amurrainak, mazkarrak eta aingirak dentsitate ahula dute. Platuxa- eta korrokoi-ale bakar batzuk baino ez dira aurkitu. Nolanahi ere, basa-izokin bat harrapatu da; horrek erakusten du espeziea modu naturalean ugaltu dela azken urte honetan.

Ibaiadarrei dagokienez, **Arditurri** errekan dauden zink kontzentrazio altuek (garai bateko meategitik datozenak) ezinezkoa egiten dute arrainak bertan bizitzea. Gainerako parametroek balio egokiak dituzte. Kalitate biologikoari dagokionez, berriz, oso egoera ona erakusten du udaberrian, eta ona agorraldian. Klorofila bentonikoa atera dugu erreka-tartearen egoera trofikoaren zein den ezagutzeko. Ekoizpen txikia da; hau da oligotrofia dago.

Lintzirin errekan, analizatutako parametroek erakusten dute tartea egokia dela salmonidoentzat. Hala ere, udan nolabaiteko oxigeno falta antzematen da. Analisi biologikoari erreparatuz gero, kutsadura-arazo garrantzitsuak daudela antzematen da; uraren kalitatea txarra da bi denboraldietan. Egoera trofikoari dagokionez, algek nolabaiteko eutrofia adierazten dute.

7.1.3. URUMEA IBAIAREN ARROA

7.1.3.1. DESKRIBAPEN GEOGRAFIKOA (URUMEA)

Urumea ibaiaren arroak 272 km²-ko eremua dauka; horietatik 108 km² Gipuzkoari dagozkie, eta gainerakoa, 164 km², Nafarroari. Urumea ibaia Goizuetan jaio eta Donostian itsasoratzen da. Geologiari dagokionez, goiko aldean material azidoak gailentzen dira; Landarbaso ibaiadarrean, berriz, kaliza motako azaleratzeak dira nagusi. Beheko aldean, Urnieta, Hernani, Astigarraga eta Donostiako herriak daude, eta guztien artean 140.000 biztanleko kopurua osatzen dute. Urumea ibaiaren adar garrantzitsuenak Añarbe, Urruzuno, Latxe eta Landarbaso dira.

Añarbeko urtegiak 49 Hm³-ko edukiera du, eta Gipuzkoako handiena da. Urumearen beheko aldea eta inguruko herriak (Oiartzun ibaiaren arroa, Lasarte, Usurbil eta Añorga-Ibaeta) hornitzen ditu. Saneamendua amaitua dago ia; ur zikinak kolektoretan biltzen dira eta Loiolako HUAn tratatzen dira.

Arro honetan gailentzen diren erabilerak basogintza eta abeltzaintza dira; laborantza beheko aldean bakarrik da garrantzitsua. Hernani herritik behera, herriguneak, industrialdeak eta azpiegiturak dira nagusi. Hala, goiko aldean ibaiko habitata kontserbazio-egoera onean dago oro har, eta jarraitutasun onargarria du. Beheko aldean, ordea, hiri- eta industria-garapenek ibaiertzak hartu dituztenetik, narriatu edo ia erabat galdu da galeria-basoa. Alde horretan ohikoa da ibai-tarteak bideratuta egotea eta jatorrizko basoaren ordeztu platano-lerroak aurkitzea.

Beste alde batetik, Urumea ibaiaren aprobetxamendu hidroelektrikoak garrantzi handia du: 6 zentral hidroelektriko daude martxan ardatz nagusian eta Añarbe ibaiadarrean. Horrez gain, hainbat ur-hargune daude industrien hornikuntzarako.


7.1.3.2. URAREN KALITATE FISIKO-KIMIKOA (URUMEA)

Urumea arroko ibaietan datu fisiko-kimiko hauek lortu dira. Laginketa kopurua eskasa izan dela kontuan hartu beharra dago emaitzak ulertu eta arrain gaitasuna sailkatzeko garaian.

KODEA	ESTAZIOA	IBAIA	Lagink. kop.	T ^a (° C)	pH	Eroan. (μS/cm)	Ox. Dis. (mg/l)	PO ₄ (mg/l)	DQO (mg/l)	NH ₄ (mg/l)	Arrain gait.
URU28800	Pagoaga	Urumea	2	15,7 – 19	7,6 – 7,7	86 – 93	9,26 – 9,75	<D.M	–	<D.M	Izoki
URU33800	Fagollaga	Urumea	15	7,9 – 19,6	7,2 – 7,9	57 – 99	9,14 – 12,32	<D.M	<D.M	<D.M	Izoki
URU35400	Lastaola	Urumea	15	8,0 – 20,6	7,3 – 7,9	61 – 111	9,54 – 12,27	<D.M	<D.M	<D.M	Izoki
URU38800	Karabel	Urumea	15	8,1 – 20,9	7,0 – 7,9	71 – 129	8,88 – 11,84	<D.M	<D.M	<D.M	Izoki
URU40200	Ergobia	Urumea	15	8,0 – 20,7	7,2 – 7,8	87 – 158	8,35 – 11,71	<D.M – 0,05	<D.M	<D.M – 0,09	Izoki
LAN06100	Landarbaso	Landarbaso	7	9,5 – 19,3	8,0 – 8,3	195 – 378	8,10 – 11,41	<D.M – 0,12	<D.M – 16	<D.M – 0,07	Izoki
URR06000	Urruzuno	Urruzuno	3	9,5 – 16,2	7,1 – 7,7	58 – 81	9,64 – 11,42	<D.M	<D.M	<D.M – 0,07	Izoki
LAT02000	Latxe	Latxe	3	10,9 – 18,6	7,5 – 7,8	79 – 112	9,26 – 10,87	<D.M	<D.M	<D.M	Izoki
URN02000	Urnieta	Urnieta	3	12,5 – 19,7	8,0 – 8,1	410 – 565	8,20 – 9,63	0,06 – 0,72	<D.M	0,32 – 2,04	Ez gai
ANT00600	Antziola	Antziola	3	13,7 – 18,3	7,9	544 – 667	5,94 – 8,82	0,59 – 1,25	16 – 40	0,62 – 3,42	Ez gai
AÑO00350	Añorga Errotaburu	Añorga	8	10,2 – 19,7	8,1 – 78,4	460 – 759	8,79 – 11,15	0,08 – 0,40	–	<D.M – 0,25	Izoki

D.M.: Detekzio-muga.

34. taula. Urumea arroko ibaietan datu fisiko-kimikoak – 2015-2016. urte hidrologikoa (balio minimo eta maximoak)



13. irudia. Urumea ibaiko kalitate fisiko-kimikoa – 2015-2016. urte hidrologikoa.

Urumea ibaiaren urak egokiak dira salmonidoentzat luzera osoan. Analizatutako parametro guztiek oso kalitate fisiko-kimiko onak dituzte.


Ibaiadarrei dagokienez, analisisen emaitzek egoera desberdinak erakusten dituzte. Landarbaso, Urruzuno, Latxe eta Añorga errekek egokiak dira salmonidoentzat. Urnietako eta Antziolako errekei dagokienez, berriz, amonioak eragindako kutsadura garrantzitsuak erakusten du aztertutako tarreak ez direla egokiak arraintzat, indarrean dagoen araudiaren arabera. Gainera, ortofosfatoek eragindako eutrofizazioa ere antzeman da. Antzian ere oxigeno eskasia antzeman da.

7.1.3.3. KALITATE FISIKO-KIMIKOAREN JARRAIKO AZTERKETA (URUMEA)

EREÑOTZUn kokatuta dagoen neurketa jarraituko estazioak parametro hauek neurtzen ditu: pH-a, uraren tenperatura, eroankortasuna, oxigeno disolbatua, uhertasuna eta solido esekiak. Urteko egunen % 96etako datuak daude, parametro guztietakoak.

	pH-a	Uraren T ^a (° C)	Eroan. (µS/cm)	Ox. Dis. (mg/l)	Uhert. (UNF)	Sol. Esek. (mg/l)
BATEZ BEST.	7,1	14,1	75	10,72	6	13
DESB.TIP.	0,2	3,7	11	0,79	19	44
MAX.	7,7	22,2	116	12,79	324	606
MIN.	6,2	7,2	48	8,70	2	0
N	344	355	352	355	355	346
URR. BATEZ B.	6,9	14,5	78	10,17	4	8
AZA. BATEZ B.	7,2	13,0	78	10,63	19	47
ABE. BATEZ B.	7,4	11,3	83	10,96	4	7
URT. BATEZ B.	7,1	10,0	68	11,22	4	8
OTSA. BATEZ B.	7,0	9,7	64	11,27	11	36
MAR. BATEZ B.	7,1	10,2	60	11,85	9	20
APIR. BATEZ B.	7,2	11,7	66	11,15	2	7
MAIA. BATEZ B.	7,2	14,7	76	10,63	4	7
EKA. BATZ B.	7,2	16,7	75	10,90	3	7
UZT. BATEZ B.	7,1	18,6	81	10,69	3	8
ABU. BATEZ B.	6,9	19,8	86	9,60	2	6
IRA. BATEZ B.	6,7	18,2	85	9,48	5	9

35. taula. Ereñozun kokatuta dagoen neurketa jarraituko estazioaren estatistika, Urumea ibaian – 2015-2016.urte hidrologikoa (eguneroko batezbestekoetan oinarritua).



14. irudia. Kalitate fisiko-kimiko jarraitua Ereñozun – 2015-2016. urte hidrologikoa.


Indarrean dagoen araudiaren arabera, Ereñozuko neurketa-estazioak etengabe ematen dituen datuek erakusten dutenez, uraren egoera fisiko-kimikoak egokiak dira salmonidoentzat. Neurtutako parametro guztiek kalitate oneko ura erakusten dute, nahiz eta uneren batean edo bestean defizit batzuk antzeman daitezkeen. Ildo horretan, uraren gehieneko balioak 21,5^o C-tik gorakoak dira, araudiak salmonidoentzat ezartzen duen mugatik gorakoak. Nolanahi ere, hori soilik hiru egunetan gertatu da; horrenbestez, ez da inolako eragozpenik halako espeziearentzat. Oxigenazioak ere baldintza lezake amuarrainaren eta izokinaren garapen normala, zenbaitetan litroko 9 mg-tik beherako kontzentrazioak neurtu baitira. Haatik, egunen ia % 97an gainditu egin da balio hori; hortaz, oxigenazioa tarte horretan oso ona dela esan dezakegu.

7.1.3.4. URAREN KALITATE BIOLOGIKOA (URUMEA)

Ondoko taulan, Urumea arroko ibaietan egindako makroornogabeen laginketetan zer emaitza lortu diren azaltzen da:

Estazioa	Kodea	Ibaia	Mota	UDABERRIA			AGORRALDIA		
				IBMWP	EQR IBMWP	Kalitatea	IBMWP	EQR IBMWP	Kalitatea
Pagoaga	URU28800	Urumea	32	199	1,03	Oso ona	183	0,94	Oso ona
Fagollaga	URU33800	Urumea	32	184	0,95	Oso ona	170	0,88	Ona
Lastaola	URU35400	Urumea	32	197	1,02	Oso ona	157	0,81	Ona
Karabel	URU38800	Urumea	32	175	0,90	Ona	105	0,54	Moderatua
Ergobia	URU40200	Urumea	32	97	0,50	Moderatua	119	0,61	Ona
Landarbaso	LAN06100	Landarbaso	32	245	1,26	Oso ona	188	0,97	Oso ona
Añorga Errotaburu	AÑO00350	Añorga	30	60	0,27	Eskasa	73	0,32	Moderatua

36. taula. Urumea ibaiaren arroko kalitate biologikoa - 2016. urtea.



15. irudia. Urumea ibaiaren kalitate biologikoaren eboluzio longitudinala. 2016. urtea.

Urumea ibaiak, oro har, IBMWPren puntuazio oso altuak lortu ditu. Edonola ere, hainbat arazo aurkitu dira. Pagoagatik Lastaolaraino, ibaiaren egoera oso gogobetegarria da, bai udaberrian, bai agorraldian. Tarterik baxuenetan, ordea, kalitateak behera egiten du. Karabelen, udaberrian kalitate biologikoa ona da; agorraldian, ordea, moderatua izatera pasatzen da. Hain justu, aurkakoa gertatzen da tarterik baxuenean, Ergobirenean; horretan, udaberriko kanpainan fauna bentonikoaren analisiaren ondoriozko kalitateak kutsadura arazoak azaleratzen ditu. Egoera hobetu egiten da agorraldian; kalitatea ona izatera pasatzen da.

Ibaiadarrei dagokienez, Landarbaso errekek indize biotikoan oso puntuazio altuak jasotzen ditu; hortaz, UEZen helburuak betetzen ditu inolako arazorik gabe.

2016. urtean, berariazko laginketak egin dira Añorga errekan, Errotaburun; ez da arazo larririk adieraziko duten emaitza negatiborik jaso. Uraren kalitatea eskasa eta moderatua da, urrenez hurren.

7.1.3.5. EKOIZPEN PRIMARIOA (URUMEA)

Urumea ibaiaren arroan, 7 estaziotan hartu dira klorofila bentonikoaren laginak eta 2tan klorofila planktonikoarenak. Gainera, alga-komunitateen osaera ere aztertu da estazio batean: Ergobian.

ESTAZIOAK	IBAIA	BENTOSA			PLANKTONA		
		Klorofila (mg/m ²)	Margalef indizea	Egoera trofikoa	Klorofila (µg/l)	Margalef indizea	Egoera trofikoa
Pagoaga	Urumea	1,52	2,29	Oligotrofia			
Fagollaga	Urumea	12,24	2,42	Oligotrofia	2,38	2,32	Oligotrofia
Lastaola	Urumea	7,12	2,83	Oligotrofia			
Karabel	Urumea	10,47	2,27	Oligotrofia			
Ergobia	Urumea	7,84	2,06	Oligotrofia	2,19	2,52	Oligotrofia
Landarbaso	Landarbaso	--	--	--			
Añorga Errotaburu	Añorga	3,68	2,71	Oligotrofia			

37. taula. Urumea ibaiko arroaren ekoizpen primarioa - 2016. urtea.

Klorofila bentonikoari dagokionez, lortutako emaitzek oligotrofia adierazten dute, ardatz osoan, Añorga errekan bezalaxe. Kasu guztietan, heltze-fasean dauden algen populazioak dira. Landarbaso errekan ez da algarik topatu.

Fagollagako eta Ergobiko klorofila planktonikoari dagokionez, hor ere oligotrofia antzematen da, heltze-fasean dauden algekin.

Ergobiko konposizio planktonikoari dagokionez, berriz, diatomeoen eta klorofizeoen taldekoak soilik identifikatu dira. Lehenak izan dira talde nagusia, bai maiztasunagatik, bai erakutsi duten genero aniztasunagatik. Hamar genero desberdin ere identifikatu dira, eta horien artean *Nitzschia* eta *Navicula* nabarmendu dira. Uraren kalitate ekologikoaren adierazle batzuk aurkitu dira, *Nitzschia linearis* (mesotrofiloa eta β -mesosaprobikoa), *Amphora sp.* (eutrofiloa eta β -mesosaprobikoa) eta *Melosira varians* eta *Nitzschia acicularis* kasurako (eutrofiloak eta β -mesosaprobikoak). Identifikatutako klorofizeoak lau generokoak izan dira, kontzentrazio-maila urrikoak, *Pediastrum* izan ezik, zehazki *Pediastrum tetras* espeziea; honek, maiztasun moderatuak izan ditu. Espezie horrek gustuko ditu ur zertxobait edo moderatuki eutrofizatuak. (MAGRAMA, ID-TAX). Oro har, guztizko ugaritasunak baxu samarrak izan dira.

Errotiferoek, protozoek eta kironomidoen larbek osatu dute zooplanktona. Organismo horiek ere ugaritasun eskas samarrak erakutsi dituzte.

Marradura-maila garrantzitsua da Urumearen ardatzean, oro har zuhaitz-estaldura adierazgarria ematen duen ur-bazterreko landaredia baitu. Edonola ere, ibilguaren zabalak eragotzi egiten du estaldura handiagoa izatea. Bestalde, Karabel tartea bideratuta edo kanalizatuta dago; hortaz, eguzki-irradiazioa altua da. Landarbaso errekek landaredi-estaldura nabarmena du, Añorga errekek Errotaburun bezala.

ESTAZIOA	ARGI-XURGATZEAREN KOEFIZIENTEA. URUMEA IBAIAREN ARROA
Pagoaga	0,32
Fagollaga	0,51
Lastaola	0,49
Karabel	0,20
Ergobia	0,37
Landarbaso	0,81
Añorga Errotaburu	0,68

38. taula. Argi-xurgatzearen koefiziente. Urumea arroa.


7.1.3.6. ARRAIN FAUNA (URUMEA)

Urumea ibaiaren arroan, arrantza elektriko bidezko laginketa bat egin da Karabelen. Hona hemen lortutako emaitzak:

IV. eranskinean, espezieen araberako neurrien banaketan grafikoak kontsulta daitezke.

Ale-kopurua/Ha								
ESTAZIOA	IBAIA	LAGINKETA MOTA	IZOKINA	AMUARRAINA	EZKAILUA	AINGIRA	PLATUXA	KORROKOIA
Karabel	Urumea	Kualitatiboa	1.312	106	1.450	1.043	98	8

39. taula. Arrain-komunitatearen osaera Karabelen (Urumea ibaia) - 2016. urtea.



16. irudia. Arrain-komunitatea Karabelen (Urumea ibaia) - 2016. urtea.

Karabelen 6 arrain-espezietako aleak harrapatu dira: izokina, amuarraina, ezkailua, aingira, korrokoa eta platuxa. Aurreko denboraldiarekin alderatuta, nabarmentzekoa da basa izokinaren populazioak zertxobait gora egin duela; oso datu positiboa. Aingirak eta ezkailuak ere dentsitate aipagarriak dituzte. Aitzitik, amuarrainaren populazioa oso ahula da. Gainera, korrokoia eta platuxa-ale bakanak arrantatu dira.

7.1.3.7. SINTESIA (URUMEA)

Urumea ibaian lortutako emaitza fisiko-kimikoen erakusten dute ur horiek egokiak direla salmonidoentzat ibaiaren luzera osoan. Kalitate biologikoak ardatz nagusiaren parterik handienez mantentzen da; indize biotikoaren puntuazioak oso altuak dira; uraren kalitate biologiko ona/oso ona da. Nolanahi ere, Karabelen eta Ergobin kutsadura arazoak topatu dira, agorraldian eta udaberrian, hurrenez hurren. Algen arabera (bentonikoak zein planktonikoak), aztertutako estazio guztietan produktibitate txikia dago; alegia, oligotrofia egoeran daude. 2016an arrain-faunaren laginketa egin da Karabelgo estazioan, Urumea ibaian; azpimarratzekoa izan da basa-izokinaren dentsitatea. Aingiren eta ezkailuen dentsitate ere altua izan da. Edonola ere, amuarrainaren populazioa ahula da. Tarte horretan korrokoia eta platuxak ere aurkitu dira.

Ibaiadarrei dagokienez, **Landarbaso** errearen kalitate fisiko-kimikoa oso ona da. Kalitate biologikoa ere gogobetegarria da (oso ona/ona).

Urruzunon egoera fisiko-kimikoa salmonidoentzat egokia dela erakusten du. Halaber, **Latxe** errearen kalitate fisiko-kimikoa ona da.

Urnieta eta **Antziola** erreketan altua da kutsadura organikoa, nagusiki amonioagatik, nahiz eta fosfatoak ere ageri diren.

Azkenik, **Añorga** erreka, saneamendua egin izanaren ondorioz, kalitate fisiko-kimikoen arabera, salmonidoentzako egokia da Errotaburuko tartean, nahiz eta nolabaiteko oxigeno eskasia antzeman den. Hala ere, adierazle kimikoen egoera akastuna erakutsi dute, nagusiki udaberriko kanpainan; uraren kalitatea eskasa da. Agorraldian zertxobait hobetzen da (kalitate moderatua). Alga bentoniko batzuk jaso ditugu, tartearen ekoizpen primarioa zehazte aldera. Ardatz nagusian bezala, hemen ere egoera oligotrofikoa da.

7.1.4. ORIA IBAIAREN ARROA

7.1.4.1. DESKRIBAPEN GEOGRAFIKOA (ORIA)

Oria ibaiaren arroa da, 882 km²rekin, Gipuzkoako Lurralde Historikoko garrantzitsuenak. Azaleraren zati bat Nafarroako Foru Komunitatearen barnean kokatzen da, hain zuzen ere, Araxeseko eta Leitzarango ibai-buruak. Gainerakoa, 749 km², Gipuzkoari dagokio. Arro guztian zehar, hainbat material geologiko daude, baina kareharria gailentzen da.

Oria ibaia Otzaurteko magaletan jaiotzen da eta Orion itsasoratzen da. Ibaiaren luzera guztian zehar, herri garrantzitsu asko kokatu dira, hala nola Beasain, Ordizia, Tolosa, Andoain eta Lasarte. Biztanleak 126.000 inguru dira. Arro hau ibaiadar ugariz osatua dago, baina garrantzitsuenak, eskuinaldean, Urtsuaran, Agauntza, Zaldibia, Ibiur, Amezketa, Araxes, Zelai eta Leitzarano dira, eta ezkerrean, Eztanda, Zubiri, Salubita, Alkiza, Asteasu, Abalotz, Santiago eta Altxerri.

Lareoko urtegiak (2,1 Hm³) eta Arriarangoak (3,2 Hm³) hornitzen dute Goierri aldea. Lareoko urtegiak, gainera, emaria dakarkio Agauntza ibaiari. Beste alde batetik, Ibiurko urtegiak (7,6 Hm³), berriki egindakoak, Tolosaldea hornitzen du. Lasarte eta Usurbilgo herriak Añarbeko urez hornitzen dira. Saneamenduak dagokionez, Goierriko herri gehienak jasota daude, eta isurkinak Legorretako Gaikao hondakin-uren araztegiak tratatzen dira; kolektore hori 2003. urtean jarri zen martxan. Tolosaldean, kolektoreak ia amaiturik daude, eta Adunako HUA 2011. urtean jarri zen martxan.

Ibaiko habitatari dagokionez, Aralar eta Aizkorriko mendilerroetatik igarotzen diren guneak kontserbazio-egoera onean daude. Ardatz nagusiaren eta ibaiadar batzuen beheko ibarrak erasanda daude, herriguneak, industrialdeak nahiz azpiegiturak ezarri baitira. Isurketek, ibai-bideratzeek eta aprobetxamendu hidroelektrikoek larri degradatu dute ibaiko habitata. Aprobetxamendu hidrauliko ugariak nabarmentzen dira; zehazki, 50 baino gehiago daude erroldatuta, eta 30 inguruk dute aprobetxamendu hidroelektrikoa. Leitzarano ibaia da gehien erasandakoa, era horretako aprobetxamenduen kopuruagatik eta tamainagatik.

7.1.4.2. URAREN KALITATE FISIKO-KIMIKOA (ORIA)


Ondorengo taulan, laburki azaltzen da Oria arroko ibaietan eginiko laginketetan zer emaitza fisiko-kimiko lortu diren nagusiki:

KODEA	ESTAZIOA	IBAIA	Lagink. Kop.	T ^a (° C)	pH	Eroan. (µS/cm)	Ox. Dis. (mg/l)	PO ₄ (mg/l)	DQO (mg/l)	NH ₄ (mg/l)	Arrain gait.
ORI05500	Zegama	Oria	2	16,0 – 19,3	8,1 – 8,2	829 – 1.474	8,51 – 9,09	<D.M	-	<D.M	Izokin
ORI11200	Segura	Oria	15	7,6 – 23,0	7,9 – 8,9	278 – 1.303	8,61 – 13,71	<D.M – 0,17	<D.M – 18	<D.M	Zipri
ORI14000	Beasain lb.gora	Oria	7	7,6 – 23,9	8,2 – 9,1	285 – 1.049	9,95 – 13,07	<D.M – 0,27	<D.M – 19	<D.M – 0,10	Ez gai
ORI16250	Eztanda gora	Oria	7	7,6 – 24,8	8,2 – 8,9	286 – 1.196	6,92 – 13,73	<D.M – 0,35	<D.M – 20	0,05 – 0,18	Zipri
ORI16500	Beasain Igartza	Oria	2	19,6 – 21,7	8,2 – 8,4	676 – 822	8,03 – 10,29	0,07 – 0,20	-	<D.M – 0,27	Zipri
ORI21800	Ordizia	Oria	15	8,2 – 24,5	7,9 – 8,5	261 – 565	8,48 – 11,90	<D.M – 0,22	<D.M – 23	<D.M – 0,59	Zipri
ORI24500	Legorreta arazt. beh	Oria	2	19,8 – 22	8,2 – 8,3	546 – 609	8,92 – 9,98	0,35 – 0,48	-	<D.M – 0,06	Zipri
ORI25000	Ikaztegieta	Oria	15	8,7 – 25,5	8,0 – 8,9	305 – 625	8,00 – 13,72	0,06 – 1,57	<D.M – 16	<D.M – 0,21	Zipri
ORI34700	Araxes lb. gora	Oria	15	8,7 – 22,6	8,2 – 8,8	300 – 594	8,63 – 13,31	0,05 – 0,84	<D.M	<D.M – 0,20	Zipri
ORI40300	Irura	Oria	15	9,0 – 21,8	8,2 – 8,6	334 – 639	8,28 – 11,72	<D.M – 0,39	<D.M	<D.M – 0,12	Zipri
ORI46600	Aduna arazt. beh.	Oria	2	19,3 – 21,3	8,1	568 – 628	7,15 – 8,87	0,19 – 0,42	-	0,06 – 0,18	Zipri
ORI49000	Andoain	Oria	15	9,2 – 22,8	8,0 – 8,4	337 – 543	8,02 – 11,94	0,06 – 0,45	<D.M	<D.M – 0,28	Zipri

KODEA	ESTAZIOA	IBAIA	Lagink. Kop.	Tª (° C)	pH	Eroan. (µS/cm)	Ox. Dis. (mg/l)	PO ₄ (mg/l)	DQO (mg/l)	NH ₄ (mg/l)	Arrain gait.
ORI57400	Usurbil	Oria	15	9,5 – 22,4	7,8 – 8,3	302 - 535	8,14 – 12,12	0,07 – 0,55	<D.M	0,08 – 0,75	Zipri
MUT03200	Mutiloa beh.	Troi/Mutiloa	2	19,4 – 20,5	7,9 – 8,1	663 – 790	4,93 – 5,85	0,64 – 0,76	-	0,61 – 0,75	Ez gai
URS08700	Urtsuaran	Urtsuaran	3	8,7 – 19,1	8,4 – 8,6	406 - 529	9,29 – 11,65	<D.M. – 0,07	<D.M	0,06 – 0,11	Izokin
AGA20200	Lazkao Zubia	Agauntza	8	7,8 – 19,9	8,1 - 8,6	259 - 327	9,11 – 12,07	<D.M	<D.M	<D.M	Izokin
EST03500	Troya meat. Ib. Beh.	Eztanda	2	20,6 – 22,4	8,2 – 8,3	767 - 863	7,96 – 8,35	0,13 – 0,22	-	0,13 – 0,22	Zipri
EST10000	Ormaiztegi	Eztanda	8	8,3 – 19,5	8,2 – 8,6	474 - 811	8,44 – 13,28	<D.M – 0,23	<D.M	<D.M – 0,08	Izokin
SLU08500	Sta. Luzia bokalea	Santa Luzia	2	19,3 – 23,0	8,2 – 8,5	581 - 680	8,12 – 11,78	<D.M – 0,09	-	<D.M – 0,09	Zipri
ARR03700	Arriaran Ib. Beh.	Arriaran	2	17,8 – 20,1	8,3 – 8,5	370 - 400	9,15 - 10,09	0,05 – 0,06	-	0,05	Izokin
AMU09800	Zaldibia Ib. Beh.	Amundarain	7	9,1 – 22,2	8,1 – 8,8	223 - 340	9,44 – 12,95	<D.M – 0,07	<D.M	<D.M	Zipri
AME08200	Bedaio gora	Amezketza	2	19,1 – 21,3	7,9 - 8,2	458 - 1.075	7,08 - 8,97	0,48 – 1,68	-	0,16 – 2,54	Ez gai
AME13200	Alegi	Amezketza	7	9,8 – 21,4	8,3 – 8,7	263 - 698	9,25 – 11,33	0,05 – 0,72	<D.M – 0,19	<D.M – 0,82	Izokin
SAL03200	Salubita	Salubita	3	10,5 – 13,5	8,0 – 8,2	328 - 368	10,17 – 11,33	<D.M – 0,06	<D.M	<D.M	Izokin
ARA23700	Araxes	Araxes	7	10,3 – 21,6	8,3 – 8,6	343 - 598	8,68 – 12,12	<D.M – 0,10	<D.M	<D.M	Zipri
BER13200	Berastegi	Berastegi	7	11,0 – 20,7	8,2 – 8,6	542 - 935	9,83 – 11,91	0,09 – 0,23	<D.M	<D.M – 0,22	Izokin
AST07900	Villabona	Asteasu	8	9,9 – 19,6	8,2 – 8,8	391 - 512	10,03 – 12,06	0,06 – 0,14	<D.M	<D.M – 0,07	Izokin
LEI41600	Leitzarar Andoain	Leitzarar	7	10,5 – 20,0	8,0 – 8,3	144 - 217	9,02 – 11,37	<D.M – 0,05	<D.M	<D.M – 0,07	Izokin

D.M.: Detekzio-muga.

40. taula. Oria ibaiko datu fisiko-kimikoak – 2015-2016. urte hidrologikoa (balio minimo eta maximoak)



17. irudia. Oria ibaiko kalitate fisiko-kimikoa – 2015-2016. urte hidrologikoa.

Datuak interpretatzean, kontuan izan behar dugu estazio guztiak ez direla maiztasun berdinarekin lagintzen. Zenbaitetan, Seguran kasurako, datuak 15 alditan hartu dira; beste batzuetan, berriz, bitan hartu izan dira, Troya meategitik gorako uretan esaterako.

Oria ibaian, Zegamako estazioan salbu, non egoera fisiko-kimikoak ezin hobekak baitira salmonidoentzat, gainerako ia erreka osoa ziprinidoentzako da egokia, batez ere agorraldian urak araudiak ezartzen dituen 21,5^o C-tik gorako balioak hartzen dituelako. Garai berean, nolabaiteko oxigeno eskasia antzematen da, bereziki Eztanda errekarerekin elkartzen den puntutik gorako uretan eta Adunako HUAtik beherako uretan. Bestalde, Beasaindik gorako urak "ez egokitza" jotzen dira arraintentzat, neurketa batek 9,1eko emaitza eman baitzuen.

Egoerak hobera egin du nabarmen azken urteotan, saneamenduko eta araztegiko azpiegituretan izan diren aurrerapausoei esker. Hala ere, kutsadura organikoa antzematen da maila batean. Ikaztegi-tako eta Araxes ibaiko uretan gorako estazioek nolabaiteko eutrofizazioa erakusten dute urtean zehar, eta horren lekuko da fosfato kantitateak mugan daudela. Ordiziak eta Usurbilek amonio-kontzentrazio maximoak dituzte, eta araudiak onartzen baditu ere, kutsaduraren adierazle dira.

Ibaiadarrei dagokienez, analisisen emaitzek egoera desberdinak erakusten dituzte. Alderdi negatiboa **Troi** edo Mutiloa ibaia da; ez da arrainak bizitzeko egokia, tartea oso oxigenazio txikia duelako. Gainera, amonioak eragindako kutsadura topatu da. Antzeko egoeran dago **Amezket**a ibaiaren goiko tartea, Bedaiotik gorako uretan. Kasu horretan, amonioak baldintzatzen du arrainen bizia, kutsadura oso altua baita. Fosfatoek ere kontzentrazio altuak dituzte. Nolanahi ere, ibaiaren azken tartea, Alegian, egokia da salmonidoentzat, nahiz eta zenbait sasoitan ere fosfatoek eta amonioak kutsatzen duten, mugetara iritsi gabe betiere.

Eztanda ibaitik gorako urak (Troia meategia), **Santa Luzia** errekaen urak (bokalean), **Amundarain** errekaen urak (Zaldibiatik behera), **Araxes** ibaiaren urak (beheko tartean), udan izaten dituzten tenperatura altuen ondorioz, ziprinidoentzat egokiak dira, sailkapenaren arabera.

Aztertutako gainerako ibaiadarrek (**Berastegi**, **Asteasu** eta **Leitzar**) oso egoera fisiko-kimiko egokiak dituzte, egokiak salmonidoentzat.


7.1.4.3. KALITATE FISIKO-KIMIKOAREN JARRAIKO AZTERKETA (ORIA)

Oria ibaiaren arroan 7 estazio iraunkor daude, zeintzuek etengabe ematen baitituzte uraren kalitateari buruzko datuak: Alegian eta Lasarten, ardatz nagusian; eta gainontzeko 5ak Eztanda, Araxes, Amundarain, Berastegi eta Leitzar ibaiadarretan.

ALEGIKO neurketa jarraituko estazioak datu hauek ematen ditu: pH-a, uraren tenperatura, eroankortasuna, oxigeno disolbatua, uhertasuna, materia organikoa, amonioa eta ortofosfatoak. Funtzionamendua ona da, eta datu-eskuragarritasuna handia da, egunen % 97 eta 99 artean.

	pH-a	Uraren T ^a (° C)	Eroan. (µS/cm)	Ox. Dis. (mg/l)	Uhert. (UNF)	Mat Org (m-1)	NH ₄ ⁺ (mg/l)	Ortofosfatoak (mg/l P)
BATEZ BES.	7,8	15,2	474	9,91	16	5,4	0,09	0,12
DESB.TIP.	0,3	4,8	98	1,75	33	2,1	0,07	0,11
MAX.	8,2	24,6	658	12,48	322	13,8	0,33	0,53
MIN.	6,7	8,0	274	2,87	3	1,4	0,00	0,00
N	366	366	366	366	366	356	362	362
URRI. BAT. B.	7,9	15,5	519	9,57	12	6,1	0,14	0,22
AZ. BAT. B.	7,9	13,6	534	9,78	25	7,0	0,09	0,32
ABE. BAT. B.	8,0	10,2	550	11,43	4	5,2	0,05	0,24
URT. BAT. B.	7,9	10,2	414	11,34	18	6,3	0,10	0,10
OTS. BAT. B.	7,7	10,1	380	11,08	44	6,7	0,10	0,05
MAR. BAT. B.	7,8	10,4	343	11,83	33	3,7	0,14	0,03
API. BAT. B.	7,9	12,4	367	11,86	12	2,9	0,08	0,05
MAI. BAT. B.	7,7	16,5	443	9,76	7	3,4	0,07	0,06
EKA. BAT. B.	7,7	19,5	484	8,92	12	4,6	0,05	0,07
UZI. BAT. B.	7,8	21,5	528	8,14	9	5,0	0,10	0,10
ABU. BAT. B.	7,4	22,4	583	7,44	8	6,6	0,12	0,08
IRA. BAT. B.	7,5	20,2	537	7,81	9	7,4	0,04	0,11

41. taula. Alegian kokatuta dagoen neurketa jarraituko estazioaren estatistika, Oria ibaia – 2015-2016.urte hidrologikoa (eguneroko batezbestekoetan oinarritua).




18. irudia. Alegiko kalitate fisiko-kimiko jarraitua – 2015-2016. urte hidrologikoa.

Ibai tarte hori ziprinidoentzat egoki eta salmonidoentzat ezegoki egiten duen alderdietako bat uraren temperatura da. Berrogeita hamabost egunetan salmonidoen espeziarentzat araudiak ezartzen dituen 21,5° C-ko temperatura muga gainditzen da; horrek esan nahi du erregistroen % 15. Bestalde, nahiz eta urtearen tarterik handienean oxigenazioak maila altuak dituen eta salmonidoekin bateragarriak diren (erregistroen % 69k 9 mg/l gainditzen dute), zenbait alditan gabezia nabarmena da; esate baterako, neurtutako eguneko 2,87 mg/l-ko gutxieneko batez bestekoa. Uhertasun handikoaldiak topatu dira. Oro har, uhertasun horrek ur-gordaldiekin du lotura, baina egiten diren obren ondorioz ere izan daiteke. Aurkitu den gai organikoari dagokionez, urteko batez bestekoa 5,4 m⁻¹ da. Eguneko gehienezko batez bestekoa 13,8 m⁻¹ da; horrek agerian uzten du zein diren materia organikoa antzematen diren momentu puntualak. Amonioari dagokionez, kontzentrazioek behera egin dute aurreko urtearekiko, nahiz eta oraindik presente dagoen. Amonioak eta ortofosfatoek maximo altu samarrak badituzte ere, ez dira arazo larriren adierazle.

Abuztuaren 19tik 23ra bitarteko epean hamar minutuz behin hartutako datuak analizatu dira. Giro-temperatura batez beste 20,1 ° C da, eta 12,8° C eta 36,9° C artean dabil. Disolbatutako oxigenoaren batez bestekoa oso baxua da; 5,42 mg/l. Aldi horretan oxigenazioa eskasa da; kasuen % 100ean balioak 9 mg/l-tik behera daude, eta % 82an 7 mg/l-tik behera. Gainera, uraren temperaturak zertxobait altuak dira, 21,6° C-ko batez bestekoarekin; bariazioa 19,6 ° C eta 24,1° C artekoa da. 21,5° C-ko temperatura muga gainditu egiten da kasuen % 59an. Finean, temperatura eta oxigenoa ez dira oso aproposak salmonidoentzat denbora tarte horretan.

	Ox.Dis. (mg/l)	Uraren T ^a (° C)	Giro T ^a (° C)
Batez best.	5,42	21,6	20,1
Desb.tip.	1,65	1,0	5,7
Max.	8,25	24,1	36,9
Min.	1,35	19,6	12,8
N	720	720	720
Diferentzia	6,90	4,5	24,1

42. taula. Estatistika niktimerala Alegian (Oria ibaia). 2015ko uztaila.




19. irudia. Oria ibaiko uraren kalitatearen eboluzioa, Alegian. Hamar minuturoko datuak.

LASARTEko neurketa jarraituko estazioak 9 parametro hauen datuak ematen ditu: pH-a, uraren temperatura, eroankortasuna, oxigeno disolbatua, uhertasuna, materia organikoa, amonioa, solido esekiak eta ortofosfatoak. Estazioaren funtzionamendua ona da; parametroek egunen % 93 baino gehiagotan lortu dituzte datuak.

	pH-a	Uraren T ^a (° C)	Eroan. (µS/cm)	Ox. Dis (mg/l)	Uhert. (UNF)	Mat. Org (m-1)	NH ₄ + (mg/l)	Sol. esek. (mg/l)	Ortofosf. (mg/l P)
BATEZ B.	7,7	15,2	423	10,28	13	4,8	0,16	21	0,07
DESB.TIP.	0,3	4,2	84	1,37	23	2,2	0,09	70	0,04
MAX.	8,4	23,8	583	12,99	226	11,7	0,65	1.007	0,20
MIN.	7,2	8,9	239	5,35	2	0,7	0,03	2	0,00
N	360	361	358	361	360	340	360	362	356
URRI. B.B.	7,8	15,6	458	9,62	16	5,6	0,16	20	0,08
AZ. B.B.	7,8	14,0	488	9,85	23	6,6	0,18	70	0,13
ABE. B. B.	7,8	11,2	420	11,21	4	2,9	0,12	5	0,08
URT. B. B.	7,8	10,8	358	11,27	12	5,6	0,19	16	0,06
OTS. B. B.	7,8	10,6	330	11,91	23	4,6	0,11	49	0,04
MAR. B. B.	7,6	10,8	301	12,17	30	4,1	0,15	37	0,03
API. B. B.	7,3	12,7	334	11,78	11	4,0	0,13	13	0,03
MAI. B. B.	7,9	16,2	432	10,05	7	3,9	0,12	8	0,05
EKA. B. B.	7,8	18,8	445	9,30	8	5,8	0,13	10	0,07
UZT. B. B.	7,7	20,7	484	9,01	5	4,7	0,21	6	0,08
ABU. B. B.	7,7	21,3	514	8,50	4	5,3	0,22	5	0,13
IRA. B. B.	7,7	19,8	497	8,90	9	4,6	0,18	11	0,11

43. taula. Lasarten kokatuta dagoen neurketa jarraituko estazioaren estatistika, Oria ibaian – 2015-2016.urte hidrologikoa (eguneroko batezbestekoetan oinarritua)




20. irudia. Lasarteko kalitate fisiko-kimiko jarraitua – 2014-2015. urte hidrologikoa.

Uraren gehieneko batez besteko temperatura egunero 23,8° C da. Hogeita hamaika kasutan (% 9), 21,5° C-ko muga gainditzen da; hortaz, araudiaren arabera, salmonidoek ezinezkoa dute ur horietan bizitzea, bai, ordea, ziprinidoek. Oxigenoari dagokionez, nahiz eta egun gehienetan (% 81) 9 mg/l-tik gorakoa izan (araudiak ura salmonidoentzat egokia izateko nahitaezkotzat jarri duen neurria), esan beharra dago zenbaitetan oxigeno defizita dagoela espezie horientzat, ez, ordea, ziprinidoentzat. Balio horiek udaldiko temperatura altuekin dute lotura. Uhertasunaren urteko batez bestekoa baxua da, nahiz eta zenbait alditan gora egiten duen, nagusiki euriteak direnean. Aipatu beharra dago, ordea, obrek ere eragin dezaketela uhertasun hori, kasu honetan AHTko lanek. Azkenik, kutsadura organikoa erakusten duten parametroek ez dute, ildo horretan, arazorik adierazten.

Eztanda errekan, SALBATOREKO estazio automatikoak bost parametroren informazioa ematen du: pH-a, uraren temperatura, eroankortasuna, oxigeno disolbatua eta uhertasuna. Erregistrokopuru handia dago, egunen % 98tik gorakoa.

	pH-a	Uraren T ^a (° C)	Eroan. (µS/cm)	Ox. Dis. (mg/l)	Uhert. (UNF)
BATEZ B.	8,0	14,2	604	10,29	19
DESB.TIP.	0,2	4,4	99	1,04	42
MAX.	8,4	22,7	775	13,13	453
MIN.	7,1	6,7	267	6,66	1,9
N	361	361	361	361	361
URRI. BAT.B.	7,8	14,3	652	9,93	9
AZA. BAT.B.	8,0	12,3	637	10,06	27
ABE. BAT. B.	8,3	8,7	699	11,96	3
URT. BAT. B.	8,2	9,4	580	11,39	21
OTS. BAT. B.	8,0	9,6	487	10,73	59
MAR. BAT. B.	8,0	10,2	478	10,91	28
API. BAT. B.	7,8	12,1	496	10,84	15
MAI. BAT. B.	7,8	15,5	618	9,42	14
EKA. BAT. B.	7,9	18,4	613	9,35	13
UZT. BAT. B.	7,9	19,9	651	9,72	9
ABU. BAT. B.	7,9	20,4	672	9,67	10
IRA. BAT. B.	7,9	16,8	651	9,74	28

44. taula. Salbatoren kokatuta dagoen neurketa jarraituko estazioaren estatistika, Eztanda ibaian – 2015-2016.urte hidrologikoa (eguneroko batezbestekoetan oinarritua).



21. irudia. Salbatoreko kalitate fisiko-kimiko jarraitua – 2015-2016. urte hidrologikoa.


Erregistratutako baldintza fisiko-kimikoek, oro har, Eztanda ibaia egoera onean dagoela erakusten dute, nahiz eta zenbait alditan bereziki salmonidoen espezieen garapen normala baldintza dezaketen parametroak aurkitu diren. Parametro horien artean temperatura dago. Egunik gehienetan (% 96) arauak salmonidoen espezieentzat ezartzen dituen 21,5° C-ra iristen ez bada ere, zenbait egunetan temperatura altuek kaltea eragin liezaiokete halako arrain-faunari. Ez litzateke, ordea, mugatzailea izango ziprinidoentzat. Oxigenazioak ere, urtearen zatirik handienean altua izanik ere, kontzentrazio baxuak erakusten ditu zenbait egunetan (32) salmonidoentzat, udan bereziki.

Hortaz, temperatura altuek salmonidoen bizitza mugatzen dute, ez, ordea, ziprinidoena. Gainerakoan, udaldian nolabaiteko oxigenazio eskasia antzematen da.

Abuztuaren 13tik 18ra bitarteko epean hamar minutuz behin hartutako datuak analizatu dira. Giro-temperaturaren gorabeherak baxueneko 13,2° C-tik gehieneko 23,7° C-ra bitartekoa dira. Disolbatutako oxigenoak 9,05 mg/l-ko batez bestekoa erakusten du. Balioak 6,52 mg/l-tik 12,63 mg/l-ra bitartekoak dira; horren, 6,11 mg/l-ko aldea esan nahi du. Kasuen % 43an, oxigenoaren kontzentrazioa 9 mg/l-tik gorakoa da. Aitzitik, % 8an ez da litroko 7 mg-ra iristen. Uraren temperaturari dagokionez, maximo altu batera iristen da, sasoiari dagokiona; 24,4° C, eta erregistroen erdia baino zertxobait gehiago 21,5° C-tik gorakoa da.

	Ox. Dis. (mg/l)	Uraren T ^a (° C)	Giro T ^a (° C)
Batez best.	9,05	21,6	23,7
Desb. Tip.	1,74	1,6	6,3
Max.	12,63	24,4	36,5
Min.	6,52	17,6	13,2
N	720	720	720
Diferentzia	6,11	6,8	23,3

45. taula. Estatistika niktimerala Salbatoren (Eztanda ibaia). 2016eko uztaila.




22. irudia. Eztanda ibaiko uraren kalitatearen eboluzioa, Salbatore - hamar minuturoko datuak.

AMUNDARAINgo neurketa jarraituko estazioak 6 aldagai fisiko-kimikoen datuak eskaintzen ditu: pH, uraren temperatura, eroankortasuna, oxigeno disolbatua, solido esekiak eta uhertasuna. Datu erabilgarrien kopurua oso altua da, ia % 100koa. Jarraian, emaitzak aurkezten dira:

	pH-a	Uraren T ^a (° C)	Eroan. (µS/cm)	Ox. Dis. (mg/l)	Sol.esek. (mg/l)	Uhert. (UNF)
BATEZ B.	8,0	12,7	296	10,53	14	6
DESB.TIP.	0,2	2,9	29	1,04	21	12
MAX.	8,5	19,9	353	12,84	242	145
MIN.	7,5	8,2	212	8,14	5	1
N	366	366	366	366	365	366
URRI. BAT.B.	8,1	13,1	304	10,23	14	6
AZA. BAT.B.	8,1	12,1	308	10,26	18	8
ABE. BAT. B.	8,0	10,1	315	11,03	8	2
URT. BAT. B.	7,9	9,9	284	11,11	11	4
OTS. BAT. B.	7,8	10,0	277	11,12	30	17
MAR. BAT. B.	7,7	10,0	256	11,49	20	11
API. BAT. B.	8,0	10,8	253	12,36	11	4
MAI. BAT. B.	8,0	12,7	289	10,89	8	3
EKA. BAT. B.	7,9	14,3	314	9,90	19	10
UZI. BAT. B.	7,9	16,2	310	9,46	12	5
ABU. BAT. B.	8,0	17,6	317	9,12	7	2
IRA. BAT. B.	8,2	16,0	317	9,43	10	4

46. taula. Amundarain ibaiko neurketa jarraituko estazioaren estatistika – 2015-2016.urte hidrologikoa (eguneroko batezbestekoetan oinarritua).




23. irudia. Amundaraineko kalitate fisiko-kimiko jarraitua – 2015-2016. urte hidrologikoa.

Amundaraingo errekan neurketa jarraituko estazioak lortutako datuek erakusten dute urak egokiak direla salmonidoentzat, indarrean dagoen araudiaren arabera.

Berastegi ibaian, BELAUNTZAko neurketa jarraituko estazioak 5 aldagai fisiko-kimikoren datuak eskaintzen ditu: pH, uraren temperatura, konduktibitatea, oxigeno disolbatua eta uhertasuna. Datu erabilgarrien kopurua oso altua da, egunen % 94aren ingurukoa. Jarraian, emaitzak aurkezten dira:

	pH-a	Uraren T ^a (° C)	Eroan. (µS/cm)	Ox. Dis. (mg/l)	Uhert. (UNF)
BATEZ BEST.	7,7	13,9	798	10,45	5
DESB.TIP.	0,2	2,6	162	0,65	15
MAX.	8,1	19,1	1.020	11,82	227
MIN.	7,1	9,2	304	8,51	1
N	345	345	345	345	345
URRI. BAT.B.	7,6	14,5	808	9,8	5,6
AZA. BAT.B.	7,6	12,8	754	10,26	18
ABE. BAT. B.	7,7	11,7	898	10,70	2
URT. BAT. B.	7,6	11,5	789	10,60	4
OTS. BAT. B.	7,8	11,1	664	10,79	10
MAR. BAT. B.	7,9	11,2	581	11,09	8
API. BAT. B.	7,7	12,4	680	10,73	4
MAI. BAT. B.	7,7	14,3	826	10,48	3
EKA. BAT. B.	7,7	15,7	848	10,80	3
UZT. BAT. B.	7,7	17,0	891	10,85	2
ABU. BAT. B.	7,3	17,4	915	9,91	2
IRA. BAT. B.	7,5	17,2	914	9,20	3

47. taula. Belauntzan kokatuta dagoen neurketa jarraituko estazioaren estatistika, Berastegi ibaian – 2015-2016.urte hidrologikoa (eguneroko batezbestekoetan oinarritua).




24. irudia. Belauntzako kalitate fisiko-kimiko jarraitua – 2014-2015. urte hidrologikoa.

Lortutako datuen arabera, Berastegi ibaiko tarte hori egokia da salmonidoen espezieak hartzeko, egokiak baitira, oro har, pH-a, temperatura eta oxigenoa.

Leitzarar ibaian, OLAZAR-eko neurketa jarraituko estazioak hurrengo aldagai fisiko-kimikoen datuak eskaintzen ditu: pH, uraren tenperatura, konduktibitatea, oxigeno disolbatua, solido esekiak eta uhertasuna. Datu erabilgarrien kopurua oso altua da, egunen % 96aren ingurukoa. Jarraian, emaitzak aurkezten dira:

	pH-a	Uraren T ^a (° C)	Eroan. (µS/cm)	Ox. Dis. (mg/l)	Uhert. (UNF)	Sol.esek. (mg/l)
BATEZ BEST.	7,8	14,0	180	10,42	13	37
DESB.TIP.	0,2	3,7	30	1,09	29	200
MAX.	8,1	21,4	233	12,64	266	3149
MIN.	7,1	7,8	113	7,25	1	3
N	353	353	353	353	353	353
URRI. BAT. B.	7,7	14,4	195	10,07	16	32
AZA. BAT. B.	7,7	13,0	202	11,31	28	216
ABE. BAT. B.	7,7	10,9	164	11,24	7	15
URT. BAT. B.	7,7	10,4	161	11,44	5	13
OTS. BAT. B.	7,7	9,7	152	11,90	16	35
MAR. BAT. B.	7,9	10,0	141	11,44	25	35
API. BAT. B.	7,9	11,7	147	11,01	5	8
MAI. BAT. B.	7,8	14,3	188	10,18	8	13
EKA. BAT. B.	7,9	16,8	194	9,61	7	12
Uzt. BAT. B.	7,9	18,6	208	9,31	3	6
ABU. BAT. B.	7,7	19,5	210	8,96	8	12
IRA. BAT. B.	7,6	18,2	198	8,99	31	48

48. taula. Olazarren kokatuta dagoen neurketa jarraituko estazioaren estatistika, Leitzarar ibaian – 2015-2016.urte hidrologikoa (eguneroko batezbestekoetan oinarritua).




25. irudia. Kalitate fisiko-kimiko jarraitua, Olazarren - 2015-2016. urte hidrologikoa.

Emaitzek Leitzaran ibaiaren tarte horretako uren egoera fisiko-kimikoak egokiak direla erakusten dute, egokiak salmonidoentzat. Dena den, urtearen sasoiaren batean espezie horientzat (ez ziprinidoentzat) oxigeno eskasia antzeman dela aipatu beharra dago; izan ere, egunen % 10ean ez da araudiak ezartzen dituen litroko 9 mg-ra iristen. Datu horiek gehienak udaldikoak dira.

Araxes ibaiko LIZARTZako neurketa jarraituko estazioak, pH-a, uraren temperatura, eroankortasuna, oxigeno disolbatua eta uhertasuna neurtzen ditu. Datuen % 100 jasotzen ditu. Jarraian aurkezten dira emaitzak:

	pH-a	Uraren T ^a (° C)	Eroan. (µS/cm)	Ox. Dis. (mg/l)	Uhert. (UNF)
BATEZ BEST.	8,0	13,7	439	10,49	11
DESB.TIP.	0,2	3,4	93	1,14	20
MAX.	8,4	21,0	618	12,97	191
MIN.	7,5	8,8	222	8,48	2
N	365	365	365	365	365
URRI. BAT.B.	8,0	14,0	524	9,81	11
AZA. BAT.B.	8,0	12,5	525	10,23	16
ABE. BAT. B.	8,2	10,3	460	11,00	3
URT. BAT. B.	8,2	10,3	389	10,96	11
OTS. BAT. B.	8,1	10,3	333	11,01	28
MAR. BAT. B.	8,0	10,3	301	12,20	21
API. BAT. B.	8,0	11,6	329	12,43	7
MAI. BAT. B.	8,1	13,9	410	10,82	7
EKA. BAT. B.	7,8	16,2	445	9,76	12
UZT. BAT. B.	7,9	18,0	509	9,40	5
ABU. BAT. B.	8,0	19,1	520	9,12	4
IRA. BAT. B.	8,0	17,8	515	9,18	5

49. taula. Lizartzako neurketa jarraituko estazioaren estatistika, Araxes ibaian – 2015-2016.urte hidrologikoa (eguneroko batezbestekoetan oinarritua).



26. irudia. Kalitate fisiko-kimikoa, Araxesen – 2015-2016. urte hidrologikoa.


Araxes ibaiaren tarte horretan jarrian hartutako datuek uraren kalitate fisiko-kimikoa, oro har, ona dela erakusten dute; hortaz, ur horiek egokiak dira salmonidoentzat. Urteko sasoiaren batean, ordea, oxigenazioa eskasa izan daiteke espezie horientzat, ez, ordea, ziprinidoentzat. Gainerako parametroek urak salmonidoentzat egokiak direla erakusten dute.

7.1.4.4. URAREN KALITATE BIOLOGIKOA (ORIA)

Ondoko taulan, Oria arroko ibaietan egindako laginketetan lortutako IBMWP indizearen balioak azaltzen dira:

Estazioa	Kodea	Ibaia	Mota	UDABERRIA			AGORRALDIA		
				IBMWP	EQR IBMWP	Kalitatea	IBMWP	EQR IBMWP	Kalitatea
Zegama	ORI05500	Oria	23	200	1,03	Oso ona	185	0,95	Oso ona
Segura	ORI11200	Oria	23	138	0,71	Ona	137	0,70	Ona
Beasain Ib.gora	ORI14000	Oria	32	137	0,71	Ona	116	0,60	Ona
Beasain Igartzza	ORI16500	Oria	32	110	0,57	Moderatua	89	0,46	Moderatua
Ordizia	ORI21800	Oria	32	114	0,59	Ona	111	0,57	Ona
Legorreta arazt. Beh.	ORI24500	Oria	32	100	0,52	Moderatua	88	0,45	Moderatua
Ikaztegieta	ORI25000	Oria	32	134	0,69	Ona	126	0,65	Ona
Araxes Ib. gora	ORI34700	Oria	29	97	0,54	Moderatua	136	0,76	Ona
Irura	ORI40300	Oria	29	100	0,56	Ona	137	0,76	Ona
Aduna araztegia beh.	ORI46600	Oria	29	113	0,63	Ona	88	0,49	Moderatua
Andoain	ORI49000	Oria	29	77	0,43	Moderatua	156	0,87	Ona
Usurbil	ORI57400	Oria	29	85	0,47	Moderatua	69	0,38	Moderatua
Mutiloa beh.	MUT03200	Troi/Mutiloa	30	22	0,10	Txarra	38	0,17	Eskasa
Lazkao Zubia	AGA20200	Agauntza	32	136	0,70	Ona	148	0,76	Ona
Troya meat. Ib. Beh.	EST03500	Eztanda	23	164	0,84	Oso ona	133	0,68	Ona
Ormaiztegi	EST10000	Eztanda	23	115	0,59	Ona	99	0,51	Ona
Sta. Luzia bokalea	SLU08500	Santa Luzia	23	78	0,40	Moderatua	63	0,32	Moderatua
Arriaran Ib. Beh.	ARR03700	Arriaran	23	152	0,78	Oso ona	161	0,83	Oso ona
Zaldibia Ib. Beh.	AMU09800	Amundarain	23	176	0,90	Oso ona	126	0,65	Ona
Bedaio gora	AME08200	Amezketza	23	65	0,33	Moderatua	90	0,46	Moderatua
Alegi	AME13200	Amezketza	23	121	0,62	Ona	82	0,42	Moderatua
Araxes	ARA23700	Araxes	32	116	0,60	Ona	140	0,72	Ona
Berastegi	BER13200	Berastegi	23	122	0,63	Ona	153	0,78	Oso ona
Villabona	AST07900	Asteasu	23	112	0,57	Ona	110	0,56	Ona
Leizaran Andoain	LEI41600	Leizaran	32	132	0,68	Ona	140	0,72	Ona

50. taula. Oria ibaiko arroaren kalitate biologikoa – 2016. urtea.



27. irudia. Urola ibaiko kalitate biologikoaren eboluzio longitudinala – 2016. urtea.

Oria ibaiko makroornogabeen analisiaren emaitzek datu desberdinak ematen dituzte ibaiaren ibilguan zehar. Bi kanpainen egoera antzekoa bada ere, desberdintasun txiki batzuk daude. Udaberrian, goi-ibarretik Beasaindik gorako uretaraino kalitatea oso ona edo ona da. Beasainen (Igartza) indize biotikoaren balioak nabarmen egiten du behera; horrek agerian uzten ditu kutsadura arazoak (kalitate moderatua). Nolanahi ere, zertxobait beherago, Ordizian, hobera egiten du, baina Legorretako HUAtik beherako uretan arazoa berriro azaleratzen da. Ikaztegieta uraren kalitateak berriro hobera egiten du, eta jarraian okerrera Araxes ibaiko uretan gora (indize biotikoaren balioa mugan dago, kalitate onaren eta kalitate moderatuaren artean). Nolanahi ere, ondorengo bi estazioek egoera ona, kalitateko ura erakusten dute. Behe-ibilguak, Andoain eta Usurbil bitartekoak, berriro arazoak ditu.

Agorraldiko kanpainari dagokionez, egoera aurreko kanpainarekiko berdina da Zegamatik Irura bitartean. Adunako HUAtik beherako uretan kalitateak okerrera egiten du, eta moderatu izatera pasatzen da. Hala ere, Araxes ibaiko goialdean eta Andoainen hobera egin dute (kalitate ona), eta aurreko kanpainan bezalaxe, arazoak sortzen dira Usurbilgo tartean.

Ibaiadarrei dagokienez, berriz, Troik kutsadura arazo larriak ditu, indize biotikoaren arabera, uraren kalitate biologikoa txarragoa eta eskasagoa baita, hurrenez hurren. 2017an eremuaren saneamendua egingo da; hortaz, espero izatekoa da uraren kalitatea nabarmen hobetzea. Agauntza ibaiak, Lazkaoko zubian, kalitate biologiko ona erakutsi du bi kanpainen. Eztanda ibaiak UEZren helburuak erdietsi ditu aztertu ditugun tartetan, bai udaberrian, bai agorraldian. Horrez gain, goi-ibilguan Troya meategitik beherako uretan, udaberriko kanpainan oso egoera ona erakutsi du. Santa Luzia erreka, bokalean, kalitate biologiko moderatua izan du bi kanpainen. Arriaran erreka, urtegitik beherako uretan, indize biotiko oso altua dauka; horrek esan nahi du bai udaberrian, bai agorraldian egoera bikaina dela. Amezketa ibaian laginak hartu ditugu Bedaiotik gorako uretan eta Alegiako bokalean. Bedaiotik gorako uretan kalitate biologikoa moderatua izan da bi kanpainen, eta Alegian ona eta moderatua, hurrenez hurren. Arroko gainerako ibaiadarrek, Troik izan ezik, bi kanpainen ezarritako helburuak lortu dituzte; uren kalitatea ona da (Araxes, Berastegi, Asteasu eta Leitxaran). Berantegi ibaiak ere, agorraldian, oso kalitate ona dauka.

7.1.4.5. EKOIZPEN PRIMARIOA (ORIA)

Hona hemen Oria arroko ibaien egoera trofikoa:

ESTAZIOAK	IBAIA	BENTOS			PLANKTON		
		Klorofila (mg/m ²)	Margalef indizea	Egoera trofikoa	Klorofila (µg/l)	Margalef indizea	Egoera trofikoa
Zegama	Oria	9,28	4,25	Oligotrofia			
Segura	Oria	23,16	2,67	Mesotrofia			
Beasain Ib.gora	Oria	491,21	2,37	Hipereutrofia			
Beasain Igartza	Oria	127,08	2,40	Hipereutrofia			
Ordizia	Oria	43,76	2,28	Mesotrofia	1,92	2,25	Oligotrofia
Legorreta araztegia beh	Oria	67,94	2,23	Mesotrofia			
Ikaztegieta	Oria	5,39	2,33	Oligotrofia			
Araxes Ib. gora	Oria	18,31	2,12	Oligotrofia	4,83	2,16	Oligotrofia
Irura	Oria	176,13	1,76	Hipereutrofia	2,12	2,21	Oligotrofia
Aduna araztegia beh.	Oria	112,58	2,46	Hipereutrofia			
Andoain	Oria	24,33	2,61	Mesotrofia			
Usurbil	Oria	54,86	2,25	Mesotrofia			
Lazkao Zubia	Agauntza	27,22	2,13	Mesotrofia	0,72	2,09	Oligotrofia
Troya meat. Ib. Beh.	Eztanda	0,69	1,75	Oligotrofia			
Ormaiztegi	Eztanda	107,12	2,29	Hipereutrofia			
Sta. Luzia bokalea.	Sta. Luzia	120,65	2,31	Hipereutrofia			
Arriaran Ib. Beh.	Arriaran	323,00	2,29	Hipereutrofia			
Zaldibia Ib. Beh.	Amundarain	157,57	2,33	Hipereutrofia			
Alegi	Amezketza	8,14	2,50	Oligotrofia	0,70	2,18	Oligotrofia
Araxes	Araxes	103,43	2,13	Hipereutrofia			
Berastegi	Berastegi	46,32	2,47	Mesotrofia			
Villabona	Asteasu	254,82	2,17	Hipereutrofia			
Leitzaran Andoain	Leitzaran	3,52	1,89	Oligotrofia	0,90	1,68	Oligotrofia

51. taula. Oria arroko ibaien ekoizpen primarioa – 2016. urtea.

Klorofila bentonikoaren analisiaren arabera, Oria ibaiaren parte handi batek eutrofizazio prozesuak ditu maila batean edo bestean. Beasaindik gorako uretan (Beasain Igartza), Irura eta Adunako HUAtik beherako uretan hipereutrofia dago. Beste muturrean daude Zegamako, Ikaztegieta urak eta Araxestik gorako urak; horietan produktibitatea oso baxua da (oligotrofia). Ibaiaren gainerakoan eutrofia konstantea da. Algen komunitatearen garapenari dagokionez, alga bentoniko gehienak heltze-fasean daude, Zegama eta Irura muturreko egoeran daudela; horietan, algak oso helduak eta gazteak dira, hurrenez hurren.

Klorofila planktonikoaren gaineko egoerari dagokionez, laginak hartu ditugu Ordizian eta Araxes eta Iruratik gorako uretan. Hiru tarte horietan oligotrofia antzematen da, algak heltze-fasean daudela.

Bestalde, Araxestik eta Iruratik gorako uren konposizio planktonikoa analizatu da (fitoplanktona eta zooplanktona): Araxestik gorako uretan diatomeoak, klorofizeoak, zianofizeoak eta konjugatuak aurkitu dira. Diatomeoak izan dira algarik arruntenak, nahiz eta maiztasunak moderatuak izan. Uraren kalitate ekologikoaren adierazle batzuk antzeman dira, *Nitzschia*

linearis (mesotrofiloa eta β -mesosaprobikoa), *Rhoicosphenia curvata* (eutrofiloa eta β -mesosaprobikoa) eta *Melosira varians* kasurako (eutrofiloa eta α -mesosaprobikoa). Alga horiek ingurune mesoeutrofikoa adierazten dute, eta materia organikoaren edukiera ertain-altua da. (MAGRAMA, ID-TAX). Identifikatu diren klorofizeoak *Scenedesmus* generoko *S. armatus* eta *S. obliquus* espezieak izan dira; biak ere, ur β -mesosaprobikoetan ohikoak. Zianobakterioak ia ez dira aurkitu, oso maiztasun baxua erakutsi dute. Alga konjugatuaren artean, *Closterium* generoko bi espezie ere identifikatu dira; *C. lunula* eta *C. moniliferum*. Azken hori maiz ageri da ur eutrofikoetan. Talde horren presentzia oso noizean behingoa eta eskasa izan da.

Laginean topatutako zooplanktona oso maiztasun txikikoa izan da, eta protozoo ziliatuek, heliozooek eta kironomidoen larba batzuek osatu dute.

Iruran honako alga-taldeak aurkitu ditugu: diatomeoak, klorofitoak, kriptofizeoak eta konjugatuak. Lehen bi taldeak izan dira nagusi tarte horretan, eta aurreko urtearekin alderatuta, bi kasuetan kontabilizatutako maiztasunek gora egin dute. Zortzi diatomeo-genero identifikatu dira, eta ugariena *Cyclotella* sp. izan da. Halaber, *Nitzschia* generoko hiru espezie identifikatu ditugu. Horien artean, *N. acicularis* eta *N. sigmoidea*; horrek adierazten digu ur horiek eutrofikoak eta α -mesosaprobikoak direla: Halaber, *Melosira varians* ere aurkitu dugu. Hots, ingurune eutrofizatuak eta materia organikoan aberatsak diren inguruneak nahiago dituzte. Beste adierazle batzuk ere identifikatu dira; esate baterako, *Rhoicosphenia curvata*, espezie hori ere eutrofiloa eta β -mesosaprobikoa, edo *Nitzschia linearis* eta *Diatoma vulgare* espezie mesotrofiloak eta β -mesosaprobikoak. (MAGRAMA, ID-TAX). Lau klorofizeo genero identifikatu dira, eta maiztasun altuengatik *Scenedesmus* nabarmendu da bi espezierekin: *S. armatus* eta *S. obliquus*, biek ere ur β -mesosaprobikoak nahiago dituzte. Kriptofizeoak noizean behin aurkitu dira, eta maiztasun baxuarekin, baita konjugatuak ere.

Zooplanktonaren analisiak errotiferoak, kironomidoak eta nematodoak daudela erakutsi du. Lehen horien artean, eta lortutako maiztasunari erreparatuta, *Proales* generoa nabarmendu da.

Oriaren ibaiadarrei dagokienez, eutrofizazio-arazoak topatu dira horietako batzuetan. Ateratako klorofila bentonikoaren arabera, Eztanda ibaiak Ormaiztegin, Santa Luziak bokalean, Arriaranek urtegitik beherako uretan, Amundarainek Zaldibiatik beherako uretan, Araxesek Amarotzen, eta Asteasuk Villabonan hipereutrofia prozesuak dituzte. Agauntzan eta Berastegin produktibitateak behera egin du (mesotrofia). Nola Amezketan ibaiak Alegian, hala Leitzaranean bokalean, klorofila-kontzentrazio baxua dute. Alga planktoniko guztiak heltze-fasean daude, nahiz eta Troya meategitik beherako uretan eta Leitzaranean (Andoain) gutxiago garatuta egon.

Bestalde, fitoplanktonaren laginak hartu dira Lazkaoko zubian, Alegian eta Leitzaranean (Andoain); horietan, egoera oligotrofikoa da, algak hazte-fasean daudela.

Leitzaranean planktonaren konposizioaren analisisa ere egin da. Gune horretan topatu diren talde fitoplanktonikoak diatomeoak, klorofizeoak, zianofizeoak eta konjugatuak izan dira. Diatomeoak izan dira alga nagusiak, bai ugaritasunari, bai aniztasunari erreparatuta. Hamaika genero identifikatu dira, eta ohikoena *Navicula*, *Fragilaria* eta *Melosira* dira. Kalitatearen adierazlerik garrantzitsuenen artean aipa daitezke *Melosira varians*, eutrofiloa eta α -mesosaprobikoa, eta *Nitzschia linearis*, mesotrofiloa eta β -mesosaprobikoa. (MAGRAMA, ID-TAX). Zianobakterioak ia ez dira aurkitu, oso kontzentrazio baxua dute. *Merismopedia* generoa identifikatu da, ez besterik. Gainerako alga-taldeen genero-aniztasun eta maiztasun baxuak erakutsi dituzte.

Laginak errotiferoz eta kironomidoz soilik osatutako zooplanktona erakutsi du, kontzentrazio baxutan.

Oriaren ibaiertzak eta zenbait ibaiadar oro har oso eraldatuak daude, eta, horren ondorioz, eguzkiaren eragina izugarri pairatzen dute. Horrek eta mantenu gaien presentzia handiak, batez

ere fosfatoenak, eutrofizazio-arazoak ekar ditzake. Era berean, kontuan hartu behar dira ibilguak dituen ebakidura arazoak, ibaiertzeko landaretzaren degradazioa baitute ondorio. Ibai-buruko estazioetan, Zegaman eta Seguran, zuhaitz-estaldura ona da oraindik, eta, beraz, itzal handia dago. Tarte horretatik aurrera, ia estazio guztiek dute intsolazio handia, ibaia bideratzeko egin diren lanen ondorioz; izan ere, ur-geruza zabaldu behar izan da, eta bi ertzetako landare-estalkia kendu. Ikaztegieta da salbuespen bakarra; gune horretan, zuhaitz-masa bat dago, eta horrek itzal handia ematen dio Oria ibaiari. Ibaiadarren egoera oso desberdina da. Hainbat gunetan, hala nola Troya meategitik beherako uretan, eta Ormaiztegin Eztanda ibaian, Santa Luzia bokalean, Arriaran errekan eta Zaldibiatik beherako uretan, Amundarainen, argi-xurgatzearen koefizienteak handiak dira oro har. Alabaina, ibaiadarretako hainbat tartetan argiarekiko esposizioa handia da, hala nola Alegian, Araxesen, Berastegin, Villabonan eta Leitzararen. Oro har, hiri-tarteak dira, ibaia bideratua dute eta ia ez dute tamaina handiko landaretzarik.

ORIA IBAIKO ESTAZIOAK		IBAIADARRETAKO ESTAZIOAK	
Zegama	0,87	Lazkao Zubia	0,60
Segura	0,48	Troya meat. Ib. Beh.	0,55
Beasain Ib.gora	0,44	Ormaiztegi	0,94
Beasain Igartza	0,47	Sta. Luzia bokalea.	0,26
Ordizia	0,35	Arriaran Ib. Beh.	0,25
Legorreta araztegia beh	0,22	Zaldibia Ib. Beh.	0,34
Ikaztegieta	0,23	Alegi	0,00
Araxes Ib. gora	0,00	Araxes	0,26
Irura	0,35	Berastegi	0,14
Aduna araztegia beh.	0,12	Villabona	0,09
Andoain	0,12	Leitzaran Andoain	0,21
Usurbil	0,87		

52. taula. Argi-xurgatzearen koefiziente. Oria arroa.


7.1.4.6. ARRAIN FAUNA (ORIA)

Oria ibaian, arrantza elektrikoko arrain-laginketa kualitatiboak (pasada bat) egin dira hiru estaziotan: Seguran, Ordizian eta Iruran. Halaber, Oria ibaiaren ibaiadarretan arrantza elektrikoko arrain-laginketak egin dira, honako hauetan: Agauntza (Lazkaoko zubia), Eztanda (Troya meategitik gora), Amundarain (Zaldibiatik behera), Berastegi (Berastegi). Eta analisi semikuantitatiboak (bi pasada) Leitzararen (Andoain). Emaizta hauek atera dira:

IV. eranskinean, espezieen araberako neurrien banaketaren grafikoak ikus daitezke.

Ale-kopurua/Ha								
ESTAZIOA	IBAIA	LAGINKETA MOTA	AMUARRAINA	BARBOA	LOINA	EZKAILUA	MAZKARRA	AINGIRA
Segura	Oria	Kualitatiboa	124		2.327	3.639	39.604	
Ordizia	Oria	Kualitatiboa		3.920	6.948	2.465	6.573	
Irura	Oria	Kualitatiboa	224	725	17	656	431	466
Lazkao Zubia	Agauntza	Kualitatiboa	165	1.321	351	2.746	805	
Troya meat. Ib. Beh.	Eztanda	Kualitatiboa	30	455	1.455	10.790	30	30
Zaldibia Ib. Beh.	Amundarain	Kualitatiboa	713	38	2.702	5.386	5.761	94
Berastegi	Berastegi	Kualitatiboa	557	39		91	544	39
Leitz. Andoain	Leitzaran	Semikuantitatiboa	471	346	1.236	563	1.468	508

53. taula. Oria arroko ibaietako arrain-faunaren egoera – 2016. urtea.



28. irudia. Arrain-komunitatea Oria arroko ibaietan - 2016. urtea.

SEGURAKO estazioan arrain-komunitatea 4 espeziek osatzen dute: amuarrainak, loinak, ezkailuak eta mazkarrak. Mazkarra da espezierik ugariena aldearekin; dentsitatea oso altua da. Loinak eta ezkailuak ere dentsitate handia dute. Aitzitik, amuarrainaren populazioa oso ahula da. Egoera nahikoa gogobetegarria da.

ORDIZIAN lau arrain-espezie daude: barboa, lolina, ezkailua eta mazkarra. Barbo- eta lolina-populazioak nabarmen suspertzen ari dira aurreko laginketarekin alderatuta; dentsitate altuak dituzte. Ezkailuak ere gora egin du aurreko laginketarekin alderatuta. Bere aldetik, mazkar-populazioa oso ugaria da, aurreko laginketetan bezalaxe. Ez dira amuarrain- eta aingira-alerik harrapatu. Aurreko laginketetan ageri ziren espezie horiek, nahiz eta dentsitate baxuan. Egoera nahikoa gogobetegarria da.

IRURAKO estazioan arrain-komunitatea 6 espeziek osatzen dute: amuarrainak, barboak, loinak, ezkailuak, mazkarrak eta aingirak. Aurreko laginketekiko, barbo-populazioa areagotu egin dela ikusi da. Aitzitik, ia ez da lolina-alerik harrapatu. Gainerako espezieek dentsitate ahulak dituzte, aurreko laginketetan bezalaxe.

Agauntza ibaian, LAZKAOKO zubian, bost arrain-espezieetako aleak arrantzatu dira: amuarraina, barboa, lolina, ezkailua eta mazkarra. Barboaren populazioa dezente suspertu da; dentsitate garrantzitsura iritsi da. Lolina, ordea, dentsitate baxuetan mantentzen da. Ugaria da ezkailuen populazioa. Aitzitik, mazkarra eskas samarra da. Horrez gain, eta aurreko laginketetan bezala, amuarrain-ale batzuk harrapatu dira.

Eztanda ibaian, TROYA MEATEGItik BEHERAKO URETAN, azken urteotako hobekuntza antzeman da aurten ere; horrela, ezkailuen, loinen eta barboen dentsitateak dezente egin du gora aurreko laginketekiko; ezkailuaren kasuan, dentsitatea oso altua izan da. Gainerako espezieei dagokienez (amuarraina, mazkarra eta aingira), gutxi aurkitu dira, aurreko laginketetan bezalaxe.

ZALDIBIATIK BEHERAKO UREN estazioan, Amundarain ibaian, saneamendua egin izanari esker, urak kalitatea berreskuratu du; ondorioz, tarte horretan arrain-faunaren egoera nabarmen hobetu da. Hala, amuarrainen kopuruak nabarmen egin du gora aurreko laginketarekin alderatuta. Era berean, loinen eta ezkailuen populazioek ere gora egin dute, oso dentsitate altuak lortuta. Mazkarrak antzeko posizioari eusten dio, populazio ugariarekin. Barbo-ale bakan batzuk ageri dira, aurreko laginketetan harrapatu ez zen espeziea. Azkenik, aingira-ale bakan batzuk harrapatu dira, aurreko laginketetan bezalaxe.

BERASTEGI ibaian, Ibarra barrena, arrain-komunitatea ondorengo horiek osatzen dute: amuarrainak, barboak, ezkailuak, mazkarrak eta aingirak. Amuarrainek eta mazkarrek dentsitate ahula dute. Gainerako espezieei dagokienez, ale bakan batzuk baino ez dira harrapatu. Hortaz, ez daiteke esan egoera ona denik. Datu positibo gisa aipatuko dugu aurreko laginketetan antzemandakoaren arabera amuarrain-kopuruak gora egin duela aurreko laginketekiko, eta egoera hori mantendu egin da aurten ere.

Azkenik, LEITZARAN ibaian, ANDOAINEN, arrain-komunitatea sei espeziek osatzen dute: amuarrainak, barboak, loinak, ezkailuak, mazkarrak eta aingirak. Loinek eta mazkarrek dentsitate garrantzitsuak dituzte; alabaina, gainerako espezieak eskasak dira. Egoera ez da erabat gogobetegarria, azken laginketetan amuarrain-populazioak behera egin duela ikusi baita.

7.1.4.7. SINTESIA (ORIA)

Emaizta fisiko-kimikoei dagokienez, **Oria** ibaia Zegamako goiko tartean soilik da egokia salmonidoentzat. Beasaindik gorako uretan gehienezko pH 9,1 da; hortaz, ezinezkoa da arrainik egotea. Gainerakoak, batez ere udaldian ematen diren tenperatura altuen ondorioz, ziprinidoentzat dira egokiak. Horrez gain, ardatz nagusian zehar nolabaiteko oxigeno eskasia dago. Zenbait tartek (Ordizia, Ikaztegieta, Araxestik gorako urak eta Usurbil, kasurako) zenbaitetan kutsadura organikoa dute, arrainak egoteko mugatzen duten kontzentrazioetara iristen ez bada ere.

Kalitate biologikoari dagokionez, udaberriko kanpainan IBMWPren puntuazioak altuak dira askotan; horrela, uraren kalitatea oso ona da goi-ibarrean (Zegama) eta kalitate ona sei alditan (Segura, Beasaindik gorako urak, Ordizia, Ikaztegieta. Irura eta Adunako HUAtik beherako urak). Bost estaziotan (Beasaingo Igartza, Legorretako HUAtik beherako urak, Araxestik gorako urak, Andoain eta Usurbil) kalitate biologikoa moderatua da. Bestalde, agorraldian egoera antzekoa da. Aurreko kanpainarekiko hiru aldaketa sumatu dira. Adunako HUAtik gorako uretan kalitate biologikoa okerrera egiten du (moderatua). Araxestik gorako uretan eta Andoainen, aitzitik, hobera egin du, eta moderatutik onera pasa da. Ibaiaren gainerako tartetek kalitate moderatu bera dute.

Klorofila bentonikoaren analisiaren arabera, Oria ibaiaren parte handi batek eutrofizazio prozesuak ditu maila batean edo bestean. Beasaindik gorako uretan (Beasain Igartza), Irura eta Adunako HUAtik beherako uretan hipereutrofia dago. Beste muturrean daude Zegamako eta Ikaztegieta urak eta Araxestik gorako urak; horietan produktibitatea oso baxua da (oligotrofia). Ibaiaren gainerakoan eutrofia konstantea da.

Segurako estazioan amuarrainek, loinek, ezkailuek eta mazkarrek osatzen dute arrain-komunitatea. Mazkarrak oso dentsitate altua du. Loinak eta ezkailuak ere dentsitate handia dute. Aitzitik, amuarrainaren populazioa oso ahula da. Egoera nahikoa gogobetegarria da. ORDIZIAN lau arrain-espezie daude: barboa, laina, ezkailua eta mazkarra, guztiak ere oso ugariak. 2016an ez dira amuarrain- eta aingira-alerik arrantzatu. Aurreko laginetan ageri ziren espezie horiek, nahiz eta dentsitate baxuan. Egoera nahikoa gogobetegarria da. Irurako estazioari dagokionez, arrain-komunitatea amuarrainek, barboek, loinek, ezkailuek, mazkarrek eta aingirek osatzen dute. Barboaren populazioak neurri batean gora egin du. Aitzitik, ia ez da laina-alerik harrapatu. Gainerako espezieek, ohi denez, dentsitate ahulak dituzte.

Ibaiadarrei dagokienez, lagin fisiko-kimikoak hartu dira **Troi** ibaian, Mutiloatik beherako uretan, eta emaitza negatiboak izan dira. Tartea ez da egokia arraintzat, oxigeno-gabezia nabarmena delako. Gainera, amonioak eta fosfatoek eragindako kutsadura topatu da. Makroornogabeen analisiak agerian uzten du egoera hori, uraren kalitate biologiko txarra eta eskasa agerian utzita. Nolanahi ere, espero da egoerak hobera egitea 2017an Mutiloan saneamendua martxan jartzearekin batera.

Urtsuaran errekan egoera fisiko-kimikoa aztertu da bakarrik, eta emaitzak onak izan dira.

Agautza ibaian, Lazkaoko zubian, analisi fisiko-kimikoen emaitzek erakusten dute urak egokiak direla salmonidoentzat. Bestalde, emaitza biologikoen egoera ona erakusten dute, bai udaberrian, bai agorraldian. Ekoizpen primarioak mesotrofia erakusten du bentosetan, eta oligotrofia planktonean. Arrain-konposizioari dagokionez, amuarrain-, barbo-, laina-, ezkailu- eta mazkar-aleak harrapatu dira. Barboaren populazioa dezente suspertu da; dentsitatea garrantzitsua izatera iritsi da. Laina, ordea, dentsitate baxuetan mantentzen da, mazkarra bezala. Ezkailuen populazioa, berri, ugaria da. Halaber, amuarrain bakan batzuk ere harrapatu dira.

Eztanda ibaia, Troya meategitik beherako uretan, temperatura altuetara iristen da; hortaz, egokia da ziprinidoentzat. Nolabaiteko oxigeno eskasia ere antzematen da. Nolanahi ere, Ormaiztegiko tartea egokia da salmonidoentzat. Hala ere, emaitza biologikoek agerian uzten dute egoera oso ona dela ibai osoan; kalitatea ona da, baita oso ona ere. Ekoizpen primarioak oligotrofia erakusten du Troya meategitik beherako uretan, eta hipereutrofia Ormaiztegin. iktiofaunari dagokionez, Troya meategitik beheko uretan, azken urteotako hobekuntza antzeman da aurten ere; horrela, ezkailuen, loinen eta barboen dentsitateak dezente egin du gora aurreko laginketekiko, ezkailuaren kasuan, dentsitatea oso altua izan da. Gainerako espezieei dagokienez (amuarraina, mazkarra eta aingira), oraindik ere oso gutxi dira.

Bestalde, **Santa Luzia** ibaiadarraren urak temperatura altuetara iristen dira, eta horrek salmonidoen bizitza mugatzen du, ez, ordea, ziprinidoena. Kalitate biologikoari dagokionez, kalitate moderatuko urei dagozkien emaitza apalak lortu dira. Ekoizpen primario bentonikoa egoera hipereutrofiko bati dagokiona da.

Arriaran errekek, urtegitik beherako uretan, kalitate fisiko-kimiko altua dauka; hortaz, egokia salmonidoentzat. Era berean, kalitate biologikoa bikaina da. Haatik, ekoizpen primarioak (bentosetan) hipereutrofia erakusten du.

Amundarain ibaia, Zaldibiatik beherako uretan, egokia da ziprinidoentzat, udaldiko temperatura ez baita egokia salmonidoentzat. Ez da, aurreko laginketetan ez bezala, kutsadura organikorik antzematen. Bestalde, emaitza biologikoek egoera oso ona erakusten duten udaberrian, ona agorraldian. Klorofila bentonikoaren analisiak hipereutrofia erakusten du. Arrain-faunari dagokionez, amuarrainen kopuruak nabarmen egin du gora aurreko laginketarekin alderatuta. Era berean, loinen eta ezkailuen populazioek ere gora egin dute, oso dentsitate altuak lortuta. Mazkarrak antzeko posizioari eusten dio, populazio ugariarekin. Barbo-ale bakan batzuk ageri dira, aurreko laginketan harrapatu ez zen espeziea. Azkenik, aingira-ale bakan batzuk harrapatu dira. Amundarain ibaiaren behe-ibilguan antzemandako hobekuntza Zaldibiako herrigunearen saneamendua egin izanari esker dator.

Bestalde, **Amezket**a ibaian, analisi fisiko-kimikoen emaitzek erakusten dute Bedaiotik gorako tartea ez dela egokia arraintentzat. Ibaiaren parte horretan amonio-kutsadura handia dago, eta neurri apalagoan fosfatoek sortuta. Hala ere, Alegiak egoera ona erakusten du salmonidoentzat. Kalitate biologikoari dagokionez, Bedaiotik gorako uretan arazoak daude; izan ere, indize biotikoak kalitate moderatuko urak erakusten baititu bi kanpainetan. Alegian, ordea, uraren kalitatea udaberrian ona da, nahiz eta agorraldian okerrera egiten duen. Ekoizpen primarioaren egoera analizatu da Alegian, eta emaitzek oligotrofia erakusten dute.

2016an, **Salubita** errekaaren egoera fisiko-kimikoa analizatu da. Emaizak oso egoera ona erakutsi dute.

Araxes ibaiari dagokionez, bokalean, ziprinidoentzat egokia da, udaldiko temperaturaren ondorioz; berau, salmonidoentzat mugatzailea izan daiteke. Puntu horretan, azken urteotan ikusi da kutsadura organikoak nabarmen egin duela behera, Amaroako auzoan egindako saneamenduaren ondorioz, aurretik amonioa mugatzailea baitzen arraintentzat. Modu berean, emaitza biologikoek hobera egin dute azken urteetan, baita 2016an ere; bi kanpainetan egoera ona antzeman da. Aldiz, ekoizpen primarioa egoera hipereutrofiko bati dagokiona da.

Berastegi ibaian, Ibarra barrena, emaitza fisiko-kimikoek urak salmonidoentzat egokiak direla erakusten dute. Alderdi biologikoari dagokionez, egoera oso gogobetegarria izan da bi kanpainetan. Klorofila bentonikoaren analisiak eutrofia erakusten du. Arrain-komunitateari dagokionez, ez daiteke esan egoera ona denik. Amuarrain-, barbo-, ezkailu-, mazkar-, eta aingira-dentsitate ahulek osatzen dute arrain-komunitatea. Hala ere, azpimarratu beharra dago, datu positibo gisa, aurreko laginketan amuarrainak ikusi zirela.

Asteasu ibaia, Villabonan barrena, egokia da salmonidoentzat. Egoera horrek bere isla dauka kalitate biologikoan ere, uren kalitatea ona baita bai udaberrian, bai agorraldian. Haatik, ekoizpen primarioaren analisiak hipereutrofia erakusten du.

Azkenik, **Leitzaran** ibaiaren bokalean, emaitza fisiko-kimikoek urak salmonidoentzat egokiak direla erakusten dute. Modu berean, emaitza biologikoak aldekoak dira, eta egoera ona erakutsi dute laginketaren bi kanpainetan. Halaber, oligotrofia topatu da bentosetan eta planktonean. Arrain-komunitatearen egoerari dagokionez, 6 espeziek osatzen dute: amuarrainak, barboak, loinak, ezkailuak, mazkarrak eta aingirak. Loinek eta mazkarrek dentsitate garrantzitsuak dituzte; alabaina, gainerako espezieak eskasak dira. Egoera ez da erabat gogobetegarria, azken laginketetan amuarrain-populazioak behera egin duela ikusi baita.

7.1.5. UROLA IBAIAREN ARROA

7.1.5.1. DESKRIBAPEN GEOGRAFIKOA (UROLA)

Urola ibaiaren arroak 342 km²-ko eremua hartzen du eta Gipuzkoako Lurralde Historiko barnean dago oso-osorik. Urola ibaia Aizkorriko mendilerroaren iparraldean jaiotzen da eta Zumaian itsasoratzen da. Inguru horretako izaera geologikoa askotarikoa da, baina kareharri erako materialak gailentzen dira. Arroaren bereizgarria da oso estua dela eta kota handiak dituela ardatz nagusiaren goi-ibilguan, haran garai batean sarturik baitoa, ia ibaiadarrrik ez duela. Tarte horretan, ibaiadarrak txikiak dira, eta horien artean Barrendiola eta Urtatza nabarmentzen dira. Azkoitira iristean, ibai-morfologia aldatu egiten da, ibarra zabaldu egiten da, eta beheko ibilguan ondoz ondoko hainbat meandro sortzen ditu. Tarte horretan, ibaiadarrak handiagoak dira; Ibaieder nabarmentzen da, arroko ibaiadar nagusia, eta, horrez gain, Errezil, Sastarrain, Altzolarats eta beste batzuk. Arro honetan herri handiak daude kokatuta, hala nola Legazpi, Zumarraga, Urretxu, Azkoitia, Azpeitia, Zestoa eta Zumaia.

Goiko aldean, Barrendiola urtegia dago, 1,4 Hm³ har ditzakeen hornikuntzarako urtegia. Horrez gain, erdialdean, Ibaieder urtegia dago (10,7 Hm³). Saneamendu-planak ia amaituta daude. Badiologiko HUA 1991. urtetik dago martxan, eta han tratatzen dira Azkoitiko, Azpeitiko, Lasako eta Zestoako isurkinak. Halaber, 2001. urtean, Urola Garaiko HUA jarri zen martxan, eta han tratatzen dira Legazpiko, Urretxuko eta Zumarragako ur zikinak.

Ibaiko habitatari dagokionez, arroaren goiko aldeak egoera onean kontserbatzen dira, batez ere Aizkorri mendilerroa, han jatorrizko basoaren zati handi bat gordetzen baita. Hala ere, haran barruan hiri- eta industria-garapen izugarria dago; ondorioz, labore atlantikoak eta sega-belardiak desagertzen joan dira gunee lauenetatik, eta hiri- eta industria-erabilerak ezartzen joan dira; horrek ibaiko ekosistema larri narriatu du. Ibaiek bortizki bideratu dira, hein handi batean uholdeak prebenitzeko, eta horrek larri aldatu ditu ibaiertzak, kasu askotan ibaiertzeko landaredia suntsitzeraino.

Beste alde batetik, arroan aprobeixamendu elektrikoa dago, eta sei zentral hidroelektriko daude martxan. Gainera, hainbat hargune industrial garrantzitsu daude. Oztopo ugari daude, eta horietako asko ez dira erabiltzen. Azken urteotan, Gipuzkoako Foru Aldundia presa txikiak eraisteko edo iragazkor bihurtzeko plan bat egiten ari da, eta jadanik hainbat obra eta proiektu ugari burutu ditu.

7.1.5.2. URAREN KALITATE FISIKO-KIMIKOA (UROLA)


Ondorengo taulan, laburki azaltzen da Urola arroko ibaietan eginiko laginketetan zer emaitza fisiko-kimiko lortu diren:

KODEA	ESTAZIOA	IBAIA	Lagink, kop.	T ^a (°C)	pH-a	Eroan. (µS/cm)	Ox.Dis. (mg/l)	PO ₄ (mg/l)	DQO (mg/l)	NH ₄ (mg/l)	Arrain gaitasuna
URO03500	Brinkola	Urola	14	6,7 – 16,9	7,9 – 8,3	168 - 334	7,88 – 11,52	<D.M – 0,07	<D.M	<D.M	Izokin
URO06900	Legazpia lb. gora	Urola	14	7,3 – 18,9	8,0 – 8,5	172 - 301	8,29 - 11,60	<D.M – 0,05	<D.M	<D.M – 0,06	Izokin
URO09800	Legazpia lb. Beh.	Urola	14	7,2 – 20,8	7,8 – 8,4	153 - 482	8,11 – 11,65	<D.M – 2,85	<D.M – 26	<D.M – 0,08	Izokin
URO14200	Urretxu arazt. gora	Urola	2	19,4 – 22,0	8,2 – 8,6	357 - 433	8,13 – 9,21	0,29 – 0,53	-	0,15 – 0,30	Zipri
URO15700	Urretxu	Urola	14	7,4 – 19,5	7,7 - 8,5	222 - 518	7,81 – 11,57	0,15 – 3,89	<D.M – 24	<D.M – 0,29	Izokin
URO21100	Aizpurutxo	Urola	14	7,7 – 19,5	8,0 – 8,6	234 - 478	8,67 – 11,81	0,11 – 1,32	<D.M – 25	<D.M – 0,17	Izokin
URO27200	Azkoitia lb. gora	Urola	14	8,5 – 19,6	8,1 – 8,6	246 - 424	8,73 – 12,43	0,14 – 0,93	<D.M – 22	<D.M – 0,16	Izokin
URO35000	Azpeitia	Urola	14	10,8 – 18,2	8,0 – 8,6	310 - 524	8,36 – 13,13	0,06 – 1,52	<D.M – 23	<D.M – 1,75	Ez gai
URO37500	Ab. EDAR Badiologi	Urola	2	17,5 – 18,6	8,1	518 - 522	8,41 – 9,30	0,38 – 0,49	-	0,05 – 0,15	Izokin

KODEA	ESTAZIOA	IBAIA	Lagink, kop.	T ^a (°C)	pH-a	Eroan. (µS/cm)	Ox.Dis. (mg/l)	PO ₄ (mg/l)	DQO (mg/l)	NH ₄ (mg/l)	Arrain gaitasuna
URO39600	Badiolegi ara. Beh.	Urola	14	10,9 – 19,7	7,9 – 8,4	306 – 528	8,07 – 11,56	0,12 – 0,79	<D.M - 16	<D.M – 0,38	Izokin
URO43800	Lasao	Urola	14	10,9 – 19,5	7,8 – 8,4	311 - 559	8,20 – 11,59	0,13 – 1,01	<D.M	<D.M – 0,94	Izokin
URO48200	Zestoa Ib. Beh.	Urola	2	18,4 – 19,0	8,2	475 - 517	8,39 – 9,80	0,40 – 0,42	-	<D.M – 0,05	Izokin
URO51800	Aizarnazabal	Urola	14	11,4 – 20,4	7,6 – 8,4	303 - 582	6,81 – 11,19	0,09 – 0,84	<D.M – 41	<D.M – 0,72	Izokin
BAR05800	Oikina	Barrendiola	2	16,2 – 17,2	8,0 – 8,2	196 - 200	8,68 – 8,89	<D.M	-	<D.M	Zipri
IED07400	Barrendiola Ib. Beh.	Ibai-Eder	2	14,2 – 16,3	8,1 – 8,2	282 - 289	9,04 – 9,53	<D.M	-	<D.M – 0,06	Izokin
IED13700	Pr Ibai-Ede Ib. Beh.	Ibai-Eder	14	10,9 – 18,3	8,1 – 8,4	330 - 629	8,74 – 11,63	<D.M – 0,08	<D.M	<D.M – 0,06	Izokin
REG01680	Landeta	Errezil	2	15,9 – 17,0	8,2 – 8,3	493 - 506	9,28 – 9,57	0,13 – 0,18	<D.M	<D.M – 0,11	Izokin

D.M.: Detekzio-muga

54. taula. Urola arroko ibaietako datu fisiko-kimikoak - 2015-2016. urte hidrologikoa (balio minimo eta maximoak).



29. irudia. Urola ibaiko kalitate fisiko-kimikoa – 2015-2016. urte hidrologikoa.

Datuak interpretatzerako orduan, aintzat hartu behar da Urretxuko HUAtik gorako uretan, Badiolegiko HUAtik beherako uretan eta Aizarnazabalen 2 laginketa baino ez daudela. Gainerako estazioetan, berriz, 14 egin dira.

Parametro ezberdinak aztertu eta gero, esan daiteke **Urola** ibaiak kalitate fisiko-kimiko ona duela ia luzera osoan; nolahi ere, salbuespenak daude. Indarrean den araudiaren arabera, aztertutako zati guztiak salmonidoentzako egokitzat jo dira, Urretxuko HUAtik uretan gorako estazioa izan ezik. Bertan, udako tenperaturak salmonidoak normaltasunez garatea baldintzatuko luke, ez berriz, ziprinidena. Halaber, Azpeitiko estazioa salbuespena izan da; izan ere, kutsadura organiko handia duenez, ez da arrainen bizitzarako egokitzat jo. 1 mg/l amonio baino gehiagoko maximoa (1,75 mg/l) erregistratu da, zatia baldintzatzen duena. Horrek oso kutsadura handia dakar.

Parametro gehienak salmonidoentzako gai diren mugen barruan badaude ere, oso onuragarriak ez diren zenbait egoera detektatu dira. Batzuetan, oxigenatzeak salmonidoak mugatu ditzake, normalean udan zehar. Baina arrainen bizitza mugatu dezake ere bai, Oikinan gertatzen den moduan. Bertan urrian neurtu ohi den oxigenatzea ez da 7 mg/l-ra iristen. Hala ere, ibai-ibilera osoan zehar detektatutako kutsadura organikoa da ohikoena. Batez besteko zatiaren ezaugarri nagusia da bertan dagoen fosfatoak eragindako eutrofizazioa. Neurtu diren kontzentrazio maximoek eutrofizazio handia adierazi dute, hala nola Urretxun, Aizpurutxon, Azkoititik gorako uretan, Azpeitian, Lasao eta Zestoa uretan behera. Beste zatiren batean kutsadura nabarmentzen da ere bai, amonioa dago eta. Jadanik aipatu dugun Azpeitiko zatiaz gain, Zestoa uretan beherako uretan kutsadura handia agertzen duen urteko maximoa neur daiteke.

Nitratoak ere detektatu dira ibilguan. Nagusiki zati honetan: Legazpitik beherako uretan, Urretxun, Aizpirutxon, Lasaon eta Zestoatik beherako uretan.

Ibaiadarrei dagokienez, baldintza fisiko-kimikoak onak dira. Aztertutako estazio guztiak salmonidoentzako egokiak dira, Barrendiolako urtegitik beherako uretan izan ezik, bertan oxigenatzeak espezie horiek mugatu ditzakeelako (ez berriz, ziprinidoak). Hala ere, kontuan hartu beharra dago 2 lagin hartzen direla urtean.


7.1.5.3. KALITATE FISIKO-KIMIKOAREN JARRAIKO AZTERKETA (UROLA)

Urola ibaiaren arroan 2 estazio iraunkor daude, zeintzuek etengabe ematen baitituzte uraren kalitateari buruzko datuak: Aitzu eta Aizarnazabal, goi- eta behe-ibarrean, hurrenez hurren.

AITZUko neurketa jarraituko estazioak zortzi parametro hauen datuak ematen ditu: pH-a, uraren tenperatura, eroankortasuna, oxigeno disolbatua, uhertasuna, materia organikoa, amonioa eta ortofosfatoak. Funtzionamendua ona da, eta datu-portzentajea egunen 93 eta 99% bitartekoa da. Honako hauek dira emaitzak:

	pH-a	Uraren T ^a	Eroankor. (µS/cm)	Ox. Dis (mg/l)	Uhert. (UNF)	Mat org (m-1)	NH4 + (mg/l)	Ortofos (mg/l)
BATEZ BES.	7,9	14,0	406	10,11	14	6,4	0,09	0,18
DESB.TIP.	0,2	4,1	96	1,20	33	2,8	0,08	0,22
MAX.	8,5	21,9	570	12,03	447	19,5	0,49	1,25
MIN.	7,4	7,1	187	7,75	2	0,2	0,00	0,01
N	362	362	362	362	355	344	340	358
URRI. B.B.	7,8	14,7	501	9,38	11	8,3	0,11	0,14
AZA. B.B.	8,0	12,9	464	9,51	23	9,0	0,07	0,14
ABE. B.B.	7,9	10,5	453	10,73	4	7,1	0,02	0,47
URT. B.B.	7,7	9,8	339	11,15	15	6,4	0,07	0,14
OTSA. B.B.	7,7	9,6	284	11,40	45	5,6	0,09	0,09
MAR. B.B.	8,0	9,0	271	11,50	27	5,1	0,07	0,10
API. B.B.	8,2	10,9	291	11,68	11	3,7	0,09	0,10
MAI. B.B.	8,0	14,5	382	10,54	9	4,9	0,09	0,18
EKA. B.B.	8,0	17,5	438	9,59	8	7,0	0,14	0,15
UZT. B.B.	7,9	19,2	465	8,76	4	9,7	0,06	0,38
ABU. B.B.	7,9	19,8	496	8,47	5	5,1	0,17	0,15
IRA. B.B.	8,0	18,4	463	8,86	14	5,4	0,12	0,10

55. taula. Aitzuko neurketa jarraituko estazioaren estatistika, Urola ibaia – 2015-2016. urte hidrologikoa (eguneko batez bestekoetan oinarritua).



30. irudia. Aitzuko kalitate fisiko-kimiko jarraitua – 20145-2016. urte hidrologikoa.


Aztertutako parametroen arabera, zati horretako urak egokiak dira salmonidoentzat. Espezie horientzako oxigeno-defizit txiki bateko tarteak detektatu badira ere, batez ere, uda-garaian, jardunaldi gehienek oxigeno-kontzentrazio handia izan dute, salmonidoen espezieen beharrek bat eginez. Uhertasunak balio handiak izan dituen egunak detektatu dira ere bai. Halere, gehienetan euri bortitzekoaldiak izan dira, eta ez da alde batera uzten ibilguan agian egin diren obrek edo jarduketa motaren batek eragin izana.

Lortutako datuetatik ondorioztatu da urtero dagoela kutsadura organiko apur bat. Lortutako amonio- eta ortofosfato-maximoek hori adierazi dute, eta agerian utzi dute kutsadura jakina ertain-handia eta eutrofizazioa, hurrenez hurren.

AIZARNAZABALgo estazioan parametro fisiko-kimiko hauek neurtzen dira: pH-a, uraren tenperatura, eroankortasuna, oxigeno disolbatua, uhertasuna, materia organikoa, amonioa, solido esekiak eta ortofosfatoak. Funtzionamendua oso ona da, ia 100% datuak lortzen direlarik. Ondoko taulan azaltzen dira emaitzak:

	pH-a	Uraren T ^a	Eroankor. (µS/cm)	Ox Dis (mg/l)	Uhert. (UNF)	Mat Org (m-1)	NH ₄ + (mg/l)	Solid. esek. (mg/l)	Ortof (mg/l)
BATEZ BES.	7,8	14,9	433	9,73	10	4,8	0,19	15	0,13
DESB.TIP.	0,5	3,7	106	1,00	22	1,5	0,15	43	0,07
MAX.	9,4	22,6	579	11,35	195	12,2	0,96	566	0,31
MIN.	7,1	9,0	163	5,62	2	1,3	0,00	5	0,01
N	360	364	364	364	364	359	364	365	364
URRI. B.B.	7,6	15,1	498	8,14	7	5,1	0,27	9	0,16
AZA. B.B.	7,5	13,7	488	9,64	17	5,0	0,18	27	0,20
ABE. B.B.	7,8	11,5	448	10,90	3	3,4	0,09	6	0,09
URT. B.B.	7,6	10,9	361	10,49	7	5,0	0,18	10	0,11
OTSA. B.B.	7,4	10,8	286	10,47	31	5,9	0,21	56	0,07
MAR. B.B.	7,6	11,0	254	10,80	25	4,6	0,38	29	0,04
API. B.B.	8,1	12,5	348	10,53	8	3,7	0,29	9	0,04
MAI. B.B.	7,8	16,1	469	9,27	4	3,8	0,14	6	0,13
EKA. B.B.	7,7	18,4	508	9,07	3	4,3	0,13	5	0,16
UZT. B.B.	8,4	19,7	524	8,94	3	4,7	0,09	5	0,19
ABU. B.B.	8,2	20,2	521	9,10	6	5,6	0,22	7	0,18
IRA. B.B.	7,9	18,5	480	9,47	7	6,5	0,14	7	0,15

56. taula. Aizarnazabaleko neurketa jarraituko estazioaren estatistika, Urola ibaian – 20145-2016. urte hidrologikoa (eguneko batez bestekoetan oinarritua)



31. irudia. Kalitate fisiko-kimiko jarraitua, Aizarnazabalen - 2015-2016. urte hidrologikoa.

Egun gehienetan pH-ak ur naturalen balioak hartu baditu ere, 3 alditan 9ko balioa gainditu du, eta, gehienez, 9,4ko balioa lortu du. Nahiko ur oinarrikoak adierazten ditu horrek. Temperatura nahiko fresko mantendu da urte osoan, baina aldien % 2an 21,5^o-ko muga gainditu du, hain zuzen ere, salmonidoei dagokienez araudiak ezarri duen muga. Hala ere, 3 jardunaldiz bakarrik ari garenez, urak espezie horietarako egokitzat hartu dira. Antzeko zerbait gertatzen da oxigenatzearekin. Egun gehienetan kontzentrazioa handia da, baina, nagusiki udan, defizit txiki bat detektatzen da. Behin ez da 7 mg/l-ra iritsi, eta, araudiaren arabera, kantitate hori beharrezkoa da arrainek normaltasunez bizitzeko. Faktore horrek zati hori baldintzatu lezake, eta, ondorioz, ziprinidoentzako egokitzat eta salmonidoentzako desegokitzat jo liteke. Uhertasun handiko aldiek arrain-faunari eragin liezaiokete. Nolanahi ere, 30 UNF gainditzen dituzten jardunaldi gehienak eurialdiekin lotuta daude.


Zenbait alditan materia organikoko kantitatea handia da. Amonioa bezala. Ohikoa kontzentrazio txikietan egotea da, baina detektatutako maximoek kutsadura handiko aldiren bat adierazten dute. Hala ere, ortofosfatoen presentzia nahiko txikia da, eta ez du eutrofizazio handirik adierazten.

Azken batean, detektatutako pH balio handiek mugatu lezakete zatia. Oxigenatzea ere mugatzailea izan liteke, zenbait egunetan ez baita 7 mg/l-ra iristen. Bestalde, jatorri organikoko kutsadura-maila txikia dago.

Urriaren 17tik 21era bitarteko aldiaren analisi niktimerala egin da. Giro-tenperatura freskoa da, 13,6^o C, alegia. Gutxieneko balioa 4,3^o C izan da, eta gehienekoa, ordea, 13,6^o C. Disolbatutako oxigenoak batezbesteko txikia du, 6,78 mg/-koa, eta 5,03 eta 11,70 mg/l bitartean aldatzen da. Gauaren eta egunaren arteko aldea 6,67 mg/l da. Aldien % 67n, oxigeno-kontzentrazioa 7 mg/l baino txikiagoa da, eta horrek adierazten du oxigenatzea urria dela aldi horretan, bai eta arrainen bizitza mugatzen duela ere. Bestalde, uraren batez besteko tenperatura txikia da, 14,6^o C, alegia. 11,5^o C eta 16,2^o C bitartean aldatzen da, beraz, salmonidoentzako baldintza egokiak daude.

	Ox. Dis. (mg/l)	Uraren T ^a (° C)	Giro T ^a (° C)
Batez best.	6,78	14,6	13,6
Desb.tip.	1,60	1,2	3,8
Max.	11,70	16,2	22,5
Min.	5,03	11,5	4,3
N	719	719	720
Diferentzia	6,67	4,7	18,2

57. taula. Estatistika niktimerala Aizarnazabalen (Urola ibaia). 2016eko urria.




32. irudia. Urola ibaiko ur-kalitatearen eboluzioa, Aizarnazabalen. Hamar minutueroako datuak.

7.1.5.4. URAREN KALITATE BIOLOGIKOA (UROLA)

Ondoko taulan, Urola ibaian egindako makroornogabean laginketetan zer emaitza lortu diren azaltzen da:

Estazioa	Kodea	Ibaia	Mota	UDABERRIA			AGORRALDIA		
				IBMWP	EQR IBMWP	Kalitatea	IBMWP	EQR IBMWP	Kalitatea
Brinkola	URO03500	Urola	23	190	0,97	Oso ona	205	1,05	Oso ona
Legazpia Ib. gora	URO06900	Urola	23	146	0,75	Ona	172	0,88	Oso ona
Legazpia Ib. Beh.	URO09800	Urola	23	98	0,50	Ona	89	0,46	Moderatua
Urretxu arazt. gora	URO14200	Urola	23	52	0,27	Eskasa	86	0,44	Moderatua
Urretxu	URO15700	Urola	23	82	0,42	Moderatua	114	0,58	Ona
Aizpurutxo	URO21100	Urola	23	77	0,39	Moderatua	85	0,44	Moderatua
Azkoitia Ib. gora	URO27200	Urola	23	140	0,72	Ona	144	0,74	Ona
Azpeitia	URO35000	Urola	32	107	0,55	Moderatua	136	0,70	Ona
Badiolegi araz Beh.	URO37500	Urola	32	81	0,42	Moderatua	121	0,62	Ona
Lasao	URO39600	Urola	32	128	0,66	Ona	139	0,72	Ona
Zestoa Ib. Beh.	URO43800	Urola	32	110	0,57	Moderatua	124	0,64	Ona
Aizarnazabal	URO48200	Urola	32	125	0,64	Ona	156	0,80	Ona
Oikina	URO51800	Urola	32	67	0,35	Moderatua	101	0,52	Moderatua
Barrendiol Ib. Beh.	BAR05800	Barrendiola	23	138	0,71	Ona	126	0,65	Ona
Pr Ibai-Ede Ib. Beh.	IED07400	Ibai-Eder	23	195	1,00	Oso ona	156	0,80	Oso ona
Landeta	IED13700	Ibai-Eder	23	128	0,66	Ona	145	0,74	Ona
Errezil Ib. Beh	REG01680	Errezil	23	193	0,99	Oso ona	177	0,91	Oso ona

58. taula. Urola arroko kalitate biologikoa – 2016. urtea.



33. irudia. Urola ibaiko kalitate biologikoaren eboluzio longitudinala – 2016. urtea.

Oro har, egoera txarragoa antzeman da udaberrian agorraldian baino. Udaberriko kanpainen zehar, Brinkolaren eta Legazpiren (ibaian beheira) artean egoera oso ona da, uraren kalitatea oso oso ona dela adierazten duten indize biotikoko balio handiak daude eta. Hori dela eta, Urola ibaiko goiko aldeak UEZren helburuak lortzen ditu. Halere, Urretxuko HUAtik gorako uretan kalitate biologikoak txarrera egiten du nabarmen. Urretxuko HUAren aurreko zati horrek kalitate urria du, ageriko kutsadura-zeinuekin. Bi kanpainen artean osoan izan den kalifikaziorik txarrena da. Hurrengo 2 estazioetan (Urretxu eta Aizpurutxo) egoera pixka bat hobetu arren, ez dira ezarritako helburuak lortzen. Bi zatietan moderatua da uren egoera. Hala ere, Azkoititik gorako uretan hobera egiten du, eta uren kalitatea ona da. Hori da joera beheko zatiraino. Azpeitian, HUAtik beheirako uretan, Zestoatik beheirako uretan eta Oikinan uraren kalitatea moderatua da. Tartean, Lasao eta Aizarnazabalen, urak kalitate onekoak dira.

Agorraldiko kanpainen, Urola ibaiko goiko zatian, Brinkola eta Legazpitik ibaian gorako estazioetan, IBMWPak puntuazio altuak lortu ditu, kalitate biologiko ona eta oso ona adierazten dutenak. Legazpitik beheirako uretan eta Urretxuko HUAtik gorako uretan zertxobait okerragoa da; IBMWP indizearen balioek kalitate biologiko moderatuko urak adierazten dituzte. Urretxun uraren kalitatea lehengoratu da eta kalitate ona lortu du, Aizpurutxon, berriz, kalitate moderatua jaitsi da berriz ere. Azkoititik gorako uretan egoerak hobera egiten du, kalitate ona adierazten duten indize biotikoko balio handiak lortu dira eta. Egoera hori ibaiaren tarteko zatian mantentzen da, Aizarnazabaleraino. Bokaletik gertukoan estazioan egoera txartzen da, uren kalitatea moderatua da eta.

Ibaiekin dagokienez, Barrendiola errekan, urtegitik beheirako uretan, egoera ona topatu da udaberrian nahiz agorraldian, eta kalitate biologiko ona erregistratu da.

Bestalde, Ibaieder ibaiek emaitza onak lortu ditu. Oso kalitate oneko urak egon dira Ibaieder presatik beheirako ibaian, eta kalitate onekoak Landetan, bi kanpainen artean. Azkenik, Errezil errekek bikaina du herritik beheirako uraren kalitate.

7.1.5.5. EKOIZPEN PRIMARIOA (UROLA)

Alga bentonikoen eta planktonikoen laginak bildu dira estazio hauetan:

ESTAZIOAK		BENTOSA			PLANKTONA		
		Klorofila (mg/l)	Margalef indizea	Egoera trofikoa	Klorofila (µg/l)	Margalef indizea	Egoera trofikoa
Brinkola	Urola	--	--	--			
Legazpia lb. gora	Urola	16,49	2,75	Oligotrofia			
Legazpia lb. Beh.	Urola	20,60	1,89	Mesotrofia	0,71	2,94	Oligotrofia
Urretxu araz. gora	Urola	13,18	4,00	Oligotrofia			
Urretxu	Urola	55,49	4,00	Mesotrofia	2,89	2,49	Oligotrofia
Aizpurutxo	Urola	539,37	2,50	Hipereutrofia			
Azkoitia lb. gora	Urola	76,06	2,00	Eutrofia			
Azpeitia	Urola	167,78	2,38	Eutrofia	3,44	2,33	Oligotrofia
Badiolegi ara Beh.	Urola	29,71	2,44	Mesotrofia	6,01	2,62	Mesotrofia
Lasao	Urola	44,34	2,20	Mesotrofia			
Zestoa lb. Beh.	Urola	24,78	2,17	Mesotrofia			
Aizarnazabal	Urola	141,67	2,20	Eutrofia			
Oikina	Urola	17,59	2,28	Oligotrofia			
Barrendiol lb. Beh.	Barrendiola	--	--	--			
P Ibai-Ed lb. Beh.	Ibaieder	54,16	1,15	Mesotrofia			
Landeta	Ibaieder	337,40	2,30	Hipereutrofia	8,66	2,48	Mesotrofia

59. taula. Urola ibaiko ekoizpen primarioa - 2016. urtea.

Klorofila bentikoaren analisiak eutrofizazio-prozesuak agerian utzi ditu Urolaren arroan. Ardatz nagusian aipagarria da Aizpurutxotik eta Azkoititik gorako ura eta Azpeititik igarotzen den ibai-tartea. Hipereutrofia antzeman da Aizpurutxon eta eutrofia beste bi estazioetan. Baita ibaiaren beheko aldean ere, Aizarnazabalen egoera eutrofiakoa da. Ez berriz, Oikinan. Bertan oso txikia da ekoizpen primarioa (oligotrofia). Urola ibaiaren zatirik handienean eutrofia moderatua edo mesotrofia antzeman da. Ibaidarrei dagokienez, Ibaieder ibaiak hipereutrofia-egoera du beheko zatian (Landeta). Alga-populazioak estadio ezberdinetan daude arto osoan sakabanatuta. Gazte-populazioak daude, adibidez, Ibaiederreko presatik beherako uretan (Ibaieder ibaia). Halere, oso populazio helduak daude Urretxu inguruan, ardatz nagusian.

Klorofila planktonikoa ere aztertu da arroaren zenbait lekutan. Oraingoan, parametro horrek ez du gertakizun nabarmengarririk adierazi, estazio gehienetan oligotrofia nagusi da eta. Mesotrofia agertu da Urola ibaiko Badiolegiko HUAtik ibaian beherako zatian eta Ibaieder ibaiko Landetan. Heltze-fasean dauden alga-populazioak dira.

Gainera, osaera planktonikoaren analisia egin da Urola ibaian (Azpeitian) eta Azpeitiko HUAtik beherako uretan, bai eta Ibaiederren ere, Landetan: Azpeitian diatomeoak, klorofitoak, Kriptofizeoak eta zianofizeoak identifikatu dira. Diatomeoak talde planktoniko nagusietako bat izan dira, bai beren frekuentziengatik, bai eta identifikatutako genero-maiztasunarengatik (10 ezberdin) ere. Ugarienen artean *Navicula sp.*, *Nitzschia sp.* eta *Melosira* nabarmendu behar dira. Kalitate ekologikoko zenbait adierazle identifikatu dira; *Melosira varians* eta *Nitzschia acicularis* izan dira ohikoenetako batzuk. Horiek eutrofiloak dira eta α -mesosaprobikoak, alegia, ingurune eutrofizatuak eta materia organiko ugaria dutenak nahiago dituzten algak. Halaber, beste adierazle batzuk identifikatu dira, hala nola *Diatoma vulgare*, mesoutrofilo eta β -mesosaprobikoa dena, eta *Rhoicosphenia curvata*, espezie eutrofilo eta β -mesosaprobikoa. Klorofito taldea ere garrantzitsua izan da zati horretan ikuspegi kuantitatiboa aintzat hartuta. Edonola ere, talde horretako bi espezie baino ez dira identifikatu: *Pediastrum boryanum*, meso-ur eutrofiloak nahiago dituenak, eta *Scenedesmus obliquus*, ingurune β -mesosaprobikoak

nahiago dituena. Kriptofizeoen kontzentrazio txikiak aurkitu dira, bai eta *Oscillatoria* zianobakterioaren zenbait harizpi ere, frekuentzia moderatuetan.

Aurkitutako zooplanktona errotiferoz eta protozooz bakarrik osatu da. Lehenengoen artean *proales* generoa izan da nabarmen, detrituz eta deskonposatzen ari den materia organikoz elikatzen dena.

Azpeitiko HUAtik beherako uretan honako talde fitoplanktoniko hauek aurkitu dira: Diatomeoak, klorofizeoak, dinofizeoak eta zianofizeoak. Diatomeoak izan dira talde nagusia, beren frekuentziengatik nahiz aurkitutako genero-aniztasunarengatik (zortzi genero ezberdin topatu dira). Horien artean uraren kalitate ekologikoko zenbait adierazle identifikatu dira, hala nola *Melosira varians* (α -mesosaprobikoa) eta *Rhoicosphenia curvata* (β -mesosaprobikoa); biak eutrofiloak. Maiztasun txikiagoarekin beste zenbait adierazle topatu dira, besteak beste, *Nitzschia acicularis*, eutrofiloa eta α -mesosaprobikoa, *Nitzschia linearis* eta *Diatoma vulgare*, biak β -mesosaprobikoak, eta mesotrofiloa eta mesoeutrofiloa, hurrenez hurren. Klorofitoak frekuentzia moderatuetan topatu dira. Ohikoenak *Scenedesmus armatus* direlakoak izan dira, eutrofiloak direnak eta ur β -mesosaprobikoak nahiago dituztenak, bai eta *Scenedesmus obliquus* direlakoak ere, β -mesosaprobikoa ere bai. (NAEIM, ID-TAX). *Chroococcus* generoko zianobakterioak identifikatu dira, kontzentrazio txikietan, bai eta *Ceratium* generoko zenbait dinoflagelatu ere. Azken horiek oso oso urriak izan dira.

Laginaren zooplanktona errotiferoz, protozooz eta akaroz osatuta egon da. Errotiferoak organismorik usuenak izan dira, zehazki, *Proales* generoa, detrituz elikatzen dena. Protozooen artean nabariak izan dira *Didinium* eta *Zoothammium* generoetako ziliatuak.

Landeta igarotzean Ibaieder ibaiaren osaera planktonikoari dagokionez, lagin horretan aurkitutako fitoplanktona diatomeoz bakarrik osatuta egon da ia-ia, bai eta oso frekuentzia txikietan batutako zenbait algez ere. 11 genero diatomeo ezberdin identifikatu dira. Ugariena *Melosira varians* delakoa izan da. Adierazle eutrofiloa eta α -mesosaprobikoa da, hau da, ingurune eutrofikoak eta materia organikoko kontzentrazio ugarikoak nahiago ditu. Kalitate ekologikoko beste adierazle batzuk identifikatu dira, baina askoz kantitate txikiagoetan, hala nola *Diatoma vulgare* eta *Fragilaria crotonensis*; biak dira β -mesosaprobikoak, eta mesoeutrofiloak eta mesotrofiloak, hurrenez hurren.

Zooplanktona errotiferoz, protozooz, turbelarioz eta kironomidoz osatuta egon da. Organismo horien maiztasunak txiki eta moderatu tartekoak izan dira.

Ibai-buruan nola bokaletik gertu dagoen aldean, itzal handia dago zenbait lekutan: Brinkolan, Legazpitik gorako uretan, Legazpitik beherako uretan, Azkoititik gorako uretan, Lasaon eta Aizarnazabalén. Alabaina, beste gune batzuk egoera okerragoan daude, kasu horietan ibaia bideratzeko lanen ondorioz zuhaitz-estalkia kendu delako. Urretxuko HUAtik ibaian gora, Urretxu, Aizpurutxo, Azpeitia, Badiolegi HUAtik ibaian behera, Zestoatik ibaian behera eta Oikinan. Tarte horietan, intsolazioa handia da. Bestalde, itzal handia dago Barrendiolan. Ibaiederren, presan behera bakarrik da garrantzitsua, eta Landetan, berriz, eguzki-argiarekiko esposizioa ia erabatekoa da. Errotifero- eta protozoo-aleak topatu dira.

ESTAZIOA	ARGI XURGATZEAREN KOEFIZIENTEA UROLA ARROAN
Brinkola	0,82
Legazpia Ib. gora	0,79
Legazpia Ib. Beh.	0,62
Urretxu araz. gora	0,83
Urretxu	0,36
Aizpurutxo	0,00
Azkoitia Ib. gora	0,67
Azpeitia	0,13
Badiolegi ara Beh.	0,00
Lasao	0,17
Zestoa Ib. Beh.	0,61
Aizarnazabal	0,15
Oikina	0,38
Barrendiol Ib. Beh.	0,94
P Ibai-Ed Ib. Beh.	0,82
Landeta	0,63

60. taula. Argi-xurgatzearen koefiziente. Urola arroa.

7.1.5.6. DIATOMEOEN ANALISIA

Urola ibaian, Azpeitiko eta uretan behera dagoen HUAKo estazioetan, diatomeoen laginak hartzeko bi kanpaina egiten dira (udaberrian eta agorraldian). Horrez gain, Ibaieder ibaian ere, Landetan, laginak hartu dira. IPS indizerako lortutako emaitzak ondoko taulan azaltzen :

				UDABERRIA			AGORRALDIA		
Estazioa	Kodea	Ibaia	Tipo	IPS	EQR IPS	Egoera	IPS	EQR IPS	Egoera
Azpeitia	URO35000	Urola	32	13,1	0,73	Ona	13,9	0,77	Ona
Badiolegi araztegi beh.	URO37500	Urola	32	10,2	0,57	Moderatua	11,4	0,63	Moderatua
Landeta	IED13700	Ibai-Eder	23	17,2	0,98	Oso ona	15,2	0,86	Ona

61. taula. Ur-kalitatea diatomeoen arabera. IPS indizea - 2016. urtea.

Azpeitian, diatomeo bentonikoen analisiak adierazi du uren egoera ona dela, bai udaberrian bai agorraldian ere. Hala ere, Badiolegiko HUAtik beherako uren kalitatea *moderatura* jaisten da.

Beraz, Ibaieder ibaiak, Landetatik igarotzean, oso kalitate oneko egoera du udaberrian. Agorraldian, IPS indizeak pixka bat behera egiten badu ere, egoera ona da.

Ondoren, Shannon-en aniztasun-indizearen balioak azaltzen dira:

Estazioa	Udaberria	Agorraldia
Azpeitia	4,12	3,77
Badiolegi araztegi beh.	4,55	4,49
Landeta	3,26	3,79

62. taula. Shannon indizearen balioak – 2016. urtea.

Shannon-en indizearen arabera, bai udaberrian bai agorraldian, eta hiru zatietan, espezie-aniztasuna handia da.


7.1.5.7. ARRAIN FAUNA (UROLA)


Arroko 6 gunetan arrain-laginketak egin dira. Urola ibaian, lau gunetan egin dira arrain-laginketak: Brinkolan (arrain-laginketa semikuantitatiboa egin da), eta Legazpitik eta Badiolegi HUAtik beherako uretan eta Aizarnazabalen (laginketa kuantitatiboa egin da horietan). Ibaiadarrei dagokienez, arrain-laginketa kualitatiboak egin dira Barrendiola eta Ibaieder erreketan. Lortutako emaitzak ondorengo taulan jaso ditugu:

IV. eranskinean, espezieen araberako neurri banaketaren grafikoak ikus daitezke.

Ale-kopurua/Ha								
ESTAZIOA	LAGINKETA MOTA	IBAIA	AMUARRAINA	BARBO	LOINA	EZKAILU	MAZKARRA	AINGIRA
Brinkola	Semikuantitatiboa	Urola	5.866					
Legazpi Ib. Beh.	Kualitatiboa	Urola	478			1.287	37	18
Badiol araz Beh	Kualitatiboa	Urola	169	138	4.916	2.519	814	384
Aizarnazabal	Kualitatiboa	Urola	38	234	3.512	604	279	113
Barrendiola	Kualitatiboa	Barrendiola	1.602			1.246	178	
Landeta	Kualitatiboa	Ibaieder	374	467	3.194	5.718	2.025	156

63. taula. Urola arroko ibaietako arrain komunitatearen osaera - 2016. urte hidrologikoa.





34. irudia. Arrain-komunitatea Urola arroko ibaietan - 2016. urtea.

BRINKOLAN arrain-komunitatea espezie bakarrekoa da, eta amuarrain-populazio ugari batez osatzen da, goi-ibarreko zati batean espero zitekeenez. Hortaz, egoera oso egokia da.

LEGAZPIko estaziotik beherako uretan, arrain-komunitatea 4 espeziez osatuta dago: amuarrainaz, ezkailuz, mazkarrez eta aingiraz. Ezkailua da espezierik ugariena, nabarmen, eta dentsitate handia lortu du. Bestalde, amuarrainak dentsitate txikia du. Mazkarrari eta aingirari dagokienez, ale solteak baino ez dira harrapatu. Datu horiek adierazten dutenez, egoera txarra dago zatian. Hala ere, nabarmendu beharra dago, aingira lehenbiziz aurkitu dela, ale bakarraz ari bagara ere. Mazkarraren presentzia ere nabarmengarria da, 2008an soilik harrapatu baitzen espezie hori.

BADIOLEGIKO HUAtik beherako uretan, 6 arrain-espezieko aleak ageri dira: amuarraina, barboa, loina, ezkailua, mazkarra eta aingira. Loina oso ugaria da. Ezkailuak ere dentsitate ugaria du, mazkarrak, osterak, txikia. Gainerako espezieak urriak dira.

AIZARNAZABALEn 6 arrain-espezie daude: amuarraina, barboa, loina, ezkailua, mazkarra eta aingira. Loina da espezie nagusia eta oso dentsitate handia du. Ezkailu-populazioa urria da. Gainerako espezieak urriak dira. Egoera ona da erlatiboki.

Ibaiadarrei dagokienez, BARRENDIOLAtik ERREKAN BEHERA dagoen puntuan, egoerak txarrera egin duela antzematen da, aurreko urtearekin alderatuta; izan ere, amuarrain-populazioa txikitu dela ikusi da, eta dentsitate pixka bat urria du. Halaber, ezkailu-populazioak dentsitate pixka bat txikia du, eta mazkarraren presentzia urria da.

LANDETAAn, Ibaiedereko bokalean kokatutako puntuan, 6 arrain-espezieko aleak harrapatu dira: amuarraina, barboa, loina, ezkailua, mazkarra eta aingira. Ezkailua, mazkarra eta loina dira espezierik ugarienak, eta dentsitate handiak dituzte. Gainerako espezieek, berriz, dentsitate txikiak edo oso txikiak dituzte.

7.1.5.8. SINTESIA (UROLA)

Urola ibaian lortutako datu fisiko-kimikoek egoera fisiko-kimiko onak adierazten dituzte oro har. Estazio denak egokitzat jo dira salmonidoentzat, Urretxuko HUAtik gorako uretan izan ezik; izan ere, urak dituen tenperatura altuak direla medio, egokitzat jo da ziprinidoentzat, bai eta Azpeitikoa izan ezik ere, amonioak sortutako kutsadura handia dela medio, ez da egokia

arrainak bizitzeko. Gainera, oxigeno-defizit apur bat dago, nagusiki uda-garaian. Halaber, fosfatoek eragindako eutrofizazioa dago, batez ere, ibaiaren Erdiko zatian.

Kalitate biologikoari dagokionez, oro har esan daiteke 2016ko agorraldi-egoera udaberrikoa baino hobea izan dela. Udaberrian, Brinkolak uren kalitate bikaina du, ibaian gora; halaber, Legazpin (uretan behera), Azkoitian (uretan gora), Lasaon eta Aizarnazabalen ere emaitza onak lortu dira, kalitate onekoak. Gainerakoek ez dituzte ezarritako helburuak lortu. Urretxuko HUAtik gorako uren egoera txarra da, eta Urretxun, Aizpurutxo Azpeitian, HUAtik ibaian behera, Zestoatik uretan behera eta Oikinan kalitate moderatua dago. Agorraldian, berriz, bakarrik Legazpin ibaian beherako, Urretxuko HUAtik ibaian gorako, Aizpurutxuko eta Oikinako estazioek egoera irregularra dute. Gainerakoek egoera ona edo oso ona dute.

Diatomeo bentikoen analisia egin da Azpeitian eta Badiologiko HUAtik beherako uretan. Alga motaren arabera, Azpeitian egoera ona da udaberrian zein agorraldian. HUAN, ordea, kalitatea moderatua izan da bi kanpainen.

Bestalde, ekoizpen primario bentikoaren emaitzek eutrofia orokortua adierazi dute ibai-ibilera osoan zehar, goi-ibarrean eta beheko aldean izan ezik; bertan egoera oligotrofikoa da. Klorofila-kontzentrazioa aldatuz doa estazioetan (eutrofia-mesotrofia), eta Aizpurutxon hipereutrofia adierazi du. Bestalde, klorofila planktonikoko emaitzek oligotrofia adierazi dute beti, Badiologiko HUAtik beherako uretan izan ezik. Bertan eutrofia-aztarnak detektatu dira.

Brinkolako goi-ibarreko arrain-faunari dagokionez, arrain-komunitatea espezie bakarrekoa da, eta amuarrain-populazio ugari batez osatzen da. Oso datu ona da hori. LEGAZPitik beherako uretan, arrain-komunitatea amuarrainaz, ezkailuz, mazkarrez eta aingiraz osatuta dago. Ezkailua da espezierik ugariena, eta dentsitate handia lortu du. Amuarrainak dentsitate txikia du. Mazkarrari eta aingirari dagokienez, ale solteak baino ez dira harrapatu. Datu horien arabera, egoera txarra da zatian. Badiologiko HUAtik beherako uretan, 6 arrain-espezietako aleak ageri dira: amuarraina, barboa, loina, ezkailua, mazkarra eta aingira. Loina oso ugaria da. Ezkailuak ere dentsitate ugaria du, mazkarrak, osterak, txikia. Gainerako espezieak urriak dira. Azkenik, Aizarnazabalen 6 arrain-espezie daude: amuarraina, barboa, loina, ezkailua, mazkarra eta aingira. Loina da espezie nagusia eta oso dentsitate handia du. Ezkailu-populazioa urria da. Gainerako espezieak urriak dira. Horrek guztiak egoera erlatiboki ona dela adierazten du.

Ibaidarrei dagokienez, **Barrendiola** erreka oxigeno-defizit txiki bat du, beraz, ez da egokia salmonidoentzat, ziprinidoentzat baizik. Egoera biologikoaren inguruan, egoera ona antzeman da bi kanpainen. Arrain-faunari dagokionez, ikusi da amuarrain-populazioa txikitu egin dela aurreko kanpainekin alderatuta, eta dentsitate pixka bat ahula du. Ezkailuak eta mazkarrak ere dentsitate pixka bat ahula dute.

Bestalde, **Ibaieder** ibaia egokia da salmonidoentzat, luzera osoan. Emaizta biologikoei dagokienez, oso egoera ona antzeman da ere bai, eta bi kanpainen oso kalitate biologiko ona lortu da Ibaieder presatik ibaian behera; Landetan, berriz, kalitate ona lortu da. Gainera, ibai horretan zenbait alga-lagin hartu dira egoera trofikoa xedatzeko. Presatik beherako uretan alga betikoak aztertu dira, eta mesotrofia-egoera adierazi da. Landetako amaierako zatian, alga bentikoez gain, planktonikoak ere aztertu dira. Lehenengoek hipereutrofia adierazi dute, bigarrenek, ordea, mesotrofia. Arrain-faunaren osaerari dagokionez, amuarrain-, barbo-, loina-, ezkailu-, mazkar- eta aingira-aleak harrapatu dira. Ezkailua, mazkarra eta loina dira espezierik ugarienak, eta dentsitate handiak dituzte. Gainerako espezieek, berriz, dentsitate txikiak edo oso txikiak dituzte.

Errezil errekan ere laginak hartu dira, eta emaitzak oso onak izan dira, maila fisiko-kimikoari zein maila biologikoari dagokienez.

7.1.6. DEBA IBAIAREN ARROA

7.1.6.1. DESKRIBAPEN GEOGRAFIKOA (DEBA)

Deba ibaiaren arroak 530 km²-ko eremua hartzen du eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko mendebaldean kokatzen da. Arro ia guztia Gipuzkoan dago; Aramaio eta Ego ibaien buruak soilik daude Gipuzkoatik kanpo, Arabako eta Bizkaiko lurralde historikoetan, hurrenez hurren. Deba ibaia Leintz Gatzagan sortzen da eta Deba herrian itsasoratzen da. Kareharri motako materialak dira nagusi, eta, ondorioz, uretan mineralizazio handi bat sortzen da. Deba ibaiaren ardatzean, herri garrantzitsu asko kokatzen dira, hala nola Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Elgoibar eta Mendaro. Ibaiadarretan, berriz, Oñati herria nabarmentzen da Oñati Ibaian, eta Eibar-Ermua Egon. Ibaiadar nagusiak, ezkerrean, Aramaio, Angiozar, Ubera eta Ego dira; eskuinaldean, berriz, Oñati, Antzuola, Sallobente eta Kilimoi.

Urkuluko urtegiak 10 Hm³ har ditzake eta goiko aldea hornitzen du. Aixolako urtegiak, berriz, 2,6 Hm³ har ditzake eta erdialdeko gunea hornitzen du. Beste alde batetik, Kilimoiko akuiferoak Elgoibar eta Mendaro herriguneei ematen die ura. Saneamendua amaitzean dago. 2012. urtean, Epeleko HUA martxan jarri zen, eta han tratatzen dira Oñati, Eskoriatza, Aretxabaleta eta Arrasateko ur zikinak. Gainera, Mekolaldeko HUA dago, Bergarako, Antzuolako eta Elgetako (konektatu gabe oraindik) urak hartzen dituen araztegia, bai eta Apraizko HUA ere, Elgoibarko, Eibarko, Soralezeko, Mendaroko, Ermua (konektatu gabe oraindik) eta Mallabia (konektatu gabe oraindik) isurkinak tratatzen dituen araztegia. Beste alde batetik, aipatu behar da azken urte hauetan industria jakin batzuetan hobetu egin dela hondakin toxikoen tratamendua.

Deba ibaiaren eta ibaiadarren buruak oso ondo kontserbatzen dira. Alde horietan, basogintza eta nekazaritza dira nagusi, batez ere. Aldiz, haran barruan, gizakiaren presentzia handia dago, eta hirigune eta industrialde garrantzitsuak eta azpiegitura handiak daude. Horrez gain, ibai-bideratzeak ugari dira, eta, horren ondorioz, ibaiko habitata izugarri narriatu da. Bestalde, ur-baliabideak oso ustiatuta daude; 11 jauzi hidroelektriko daude, eta ur-hargune ugari erabilera industrialetarako eta errotetarako. Erabiltzen ez diren presa txiki asko daude.


7.1.6.2. URAREN KALITATE FISIKO-KIMIKOA (DEBA)

Ondorengo taulan, Deba arroko ibaietan eginiko laginketetan lortu diren emaitza fisiko-kimiko nagusiak azaltzen dira:

KODEA	ESTAZIOA	IBAIA	Lagink. Kop.	T ^a (°C)	pH-a	Eroan. (µS/cm)	Ox.Dis. (mg/l)	PO ₄ (mg/l)	DOO (mg/l)	NH ₄ (mg/l)	Arrain gaitasuna
DEB03100	Leintz	Deba	14	7,2 – 16,8	7,6 – 8,5	114 – 1.125	9,16 – 11,68	<L.C	<L.C	<L.C	Izokin
DEB12750	Aretxab Ib. gora	Deba	2	13,9 – 17,1	8,3 – 8,4	1.218 – 1.719	9,52 – 9,68	0,07 – 0,1	-	0,06 – 0,09	Izokin
DEB14000	Arrasate	Deba	14	8,1 – 19,8	7,8 – 8,6	365 – 2.130	9,03 – 12,03	<L.C – 0,07	<L.C – 23	<L.C – 0,15	Izokin
DEB20300	San Prudentzio	Deba	14	9,1 – 20,1	8,0 – 8,6	339 – 1.137	9,15 – 11,80	<L.C – 2,40	<L.C – 19	<L.C – 0,15	Izokin
DEB27290	Matxiategi	Deba	2	14,4 – 18,3	8,3 – 8,6	449 – 514	9,93 – 10,54	0,07 – 0,16	-	<L.C – 0,06	Izokin
DEB28700	Bergara Ib. Beh.	Deba	14	8,8 – 20,7	8,0 – 8,5	245 – 705	8,15 – 12,08	<L.C – 1,57	<L.C – 15	<L.C – 0,22	Izokin
DEB34800	Soraluze	Deba	14	8,9 – 21,4	8,1 – 8,9	244 – 703	9,21 – 12,68	<L.C – 1,38	<L.C – 16	<L.C – 0,11	Izokin
DEB38000	Maltzag Ib. Beh.	Deba	14	9,0 – 21,0	8,1 – 8,6	248 – 638	8,39 – 12,45	0,06 – 1,11	<L.C	<L.C – 0,27	Izokin
DEB44300	Elgoiba Ib. Beh.	Deba	14	9,0 – 23,1	8,1 – 9,0	255 – 626	9,05 – 12,78	0,05 – 1,02	<L.C	<L.C – 0,19	Zipri
DEB48100	Mendaro	Deba	14	9,5 – 22,2	7,9 – 8,5	243 – 647	7,65 – 11,94	0,07 – 1,26	<L.C – 18	<L.C – 0,84	Zipri
ARM07700	Aramaio	Aramaio	7	10,1 – 17,9	8,3 – 9,0	435 – 643	9,69 – 12,95	<L.C – 0,30	<L.C	<L.C – 0,06	Izokin
OIN06700	Arantza Ib. gora	Oñati	2	18,0 – 19,9	8,2 – 8,3	295 – 347	8,21 – 8,83	0,09 – 0,10	-	<L.C – 0,07	Zipri
OIN09500	Zubillaga	Oñati	7	8,5 – 18,2	7,9 – 8,5	166 – 379	8,95 – 12,50	<L.C	<L.C	<L.C	Izokin
OIN12500	Tabesa Zubia	Oñati	14	8,6 – 18,4	8,0 – 8,5	165 – 353	9,24 – 11,97	<L.C	<L.C	<L.C	Izokin
URK05300	Urkulu Ib. Beh.	Urkulu	2	12,4 – 13,3	8,3	258 – 304	10,02 – 10,21	<L.C	<L.C	<L.C	Izokin

KODEA	ESTAZIOA	IBAIA	Lagink. Kop.	T ^a (°C)	pH-a	Eroan. (µS/cm)	Ox.Dis. (mg/l)	PO ₄ (mg/l)	DQO (mg/l)	NH ₄ (mg/l)	Arrain gaitasuna
URK09800	Urkulu bokalea.	Urkulu	2	18,1 – 18,3	8,4	264 - 294	9,13 – 9,14	<L.C	-	<L.C	Izokin
ANL05500	Antzuola	Antzuola	7	9,3 – 17,2	8,1 – 8,6	349 - 453	8,89 – 11,37	0,18 – 1,21	<L.C – 19	<L.C – 4,71	Ez gai
UBE04200	Elgeta Ib. Beh.	Ubera	7	9,5 – 16,0	8,3 – 8,8	452 - 503	9,83 – 11,27	0,05 – 0,36	<L.C	<L.C – 0,48	Izokin
AIX01100	Aixola Ib. Beh.	Aixola	2	14,7 – 14,9	8,4	317 - 343	9,77	<L.C	-	<L.C	Izokin
EGO03700	Ermua Ib. Beh.	Ego	2	15,4 – 16,1	8,2	413 - 456	8,80 – 9,34	0,57 – 0,63	-	1,12 – 2,28	Ez gai
EGO08800	Ego	Ego	7	9,6 – 20,5	8,0 – 8,4	315 - 506	8,14 – 11,46	0,11 – 2,03	<L.C – 33	0,17 – 5,34	Ez gai
SLO05000	San Lorenzo	San Lorenzo	3	9,5 – 16,9	8,3 – 8,6	303 – 342	10,01 – 11,38	<L.C – 0,06	<L.C	<L.C – 0,15	Izokin
MIJ02400	Mijoa bokalea	Mijoa	2	18,3 – 23,4	8,0	487 – 1.657	4,08 – 7,80	0,17 – 0,32	-	0,71 – 8,00	Ez gai

64. taula. Deba arroko ibaietako datu fisiko-kimikoak – 2015-2016. urte hidrologikoa (balio minimo eta maximoak)



35. irudia. Deba ibaiko kalitate fisiko-kimikoa – 2015-2016. urte hidrologikoa.

Emaizak interpretatzean, kontuan hartu behar da Deba ibaiak Aretxabaletatik gorako uretan eta Matxiategi bi laginketa baino ez dituela. Gainerako aldietan, 14 laginketa egin dira.

Orokorrean, esan daiteke **Deba** ibaiak kalitate fisiko-kimiko ona duela. Azkeneko urteetan egindako saneamendua oso positiboa izan da, eta, kalitateari dagokionez, hobekuntza egon da urtez urte. Araudiaren arabera, ibai-ibilera osoa egokitzen saiatu da salmonidoentzat, azkeneko zatia izan ezik, Elgoibar eta Mendaro beheko estazioen artean. Izan ere, uda-garaietan bertako urak lortzen dituen temperaturek espezie horiek eragin ditzakete, ez berriz, ziprinidoak. Azken estazio horretan ere oxigeno-defizit pixka bat antzeman da. Baldintzak nahiko onak badira ere, kutsadura organikoko aldiak antzeman dira, fosfatoak nagusiki; eta horiek eutrofizazio-prozesuak agerian uzten dituzte ia ibai osoan, goi-ibarrean izan ezik. Ez da metal kantitate handirik aurkitu. Nabaria da Aretxabaletatik ibaiaren gorako zatiko mineralizazioa.

Ibaigarreari dagokienez, aintzat hartu behar da bi laginketa bakarrik daudela Arantzazutik gorako eta Urkulutik beherako estazioetan eta bokaletan, Aixolatik beherako uretan, Ermuatik beherako uretan eta Mijoa bokalean; San Lorenzon 3, eta gainerako estazioetan berriz, 7 laginketa egin dira, Tabesa zubian izan ezik; bertan 14 egin dira.

Aramaio ibaiaren egokia da salmonidoentzat. 3 estazio aztertu dira **Oñati** ibaian. Arantzazuko ibaiaren gorako estazioa, salmonidoentzako oxigeno-defizita duena (ez berriz, ziprinidoentzat) izan ezik, ibaiaren gainerako zatian, hau da, Zubillagan eta Tabesa zubian egoera ona da, egokia salmonidoentzat. **Urkulu** erreka, bestalde, egokia da salmonidoentzat, edateko uren araztegitik beherako uretan nahiz bokalean. **Antzuolako** errekek arrainen bizitzarekin bateragarriak ez diren amonio-mailak ditu, eta maximoa 5 mg/l ingurukoa da. Halaber, fosfatoek sortutako eutrofizazioa ere aurkitu da. Ubera, San Lorenzo eta Aixola errekek kalitate fisiko-kimiko ona dute, eta salmonidoentzako balio egokiak dituzte. Kutsadura organiko apur bat dago Ubera errekan. Saneamenduari esker azkeneko urteetan kalitatea hobetu badu ere, **Ego** ibaiak

arazo larriak ditu oraindik, nagusiki kutsadura organikoarekin lotuak. Ermutik beherako uretan egindako bi neurketek, oso kontzentrazio handiak ageri dituzte, 1,12 eta 2,28 mg/l, alegia. Bokalean, kontzentrazioa 5,34 mg/l-koa da. Gainera, fosfatoek sortutako eutrofizazio-prozesuak aurkitu dira. DQOak ere urteko maximo handiak ditu, nagusiki bokalean. Horren guztiaren ondorioz, bi zati horiek ez dira egokiak arrainak bizitzeko. Azkenik, laginketa espezifikoak egin dira **Mijoa** errekan, eta emaitzak negatiboak izan dira. Zati hori arrainen bizitzarako desegokizat jo da, detektatutako amonioa dela medio, kutsadura organiko handia du eta, 8 mg/l-ko maximoarekin. Gainera, oxigenatze-arazoak eta ur-tenperatura altuak detektatu dira.


7.1.6.3. KALITATE FISIKO-KIMIKOAREN JARRAIKO AZTERKETA (DEBA)

Deba ibaiaren arroan 3 estazio iraunkor daude, zeintzuek etengabe ematen baitituzte uraren kalitateari buruzko datuak: San Prudentzio eta Altzola, Deba ibaian; eta Zubillaga, Oñati ibaian.

SAN PRUDENTZIOko kalitate estazio automatikoan % 60 eta 98 arteko datuak daude. Hona hemen datuak:

	pH-a	Uraren T ^a (° C)	Eroankor. (µS/cm)	Ox Dis (mg/l)	Uhert. (UNF)	Mat Org (m ⁻¹)	NH ₄ + (mg/l)	Ortof (mg/l P)	Sol.esek. (mg/l)
BATEZ BES.	7,9	14,1	811	10,56	20	6,8	0,12	0,19	42
DESB.TIP.	0,2	4,3	243	1,27	37	3,3	0,13	0,21	131
MAX.	8,4	22,1	1.230	13,56	345	20,0	0,86	1,01	1.142
MIN.	7,3	7,3	244	8,12	2	0,2	0,00	0,01	3
N	359	359	359	352	359	308	334	351	219
URRI. B.B.	7,9	14,9	996	9,84	13	7,1	0,11	0,23	-
AZA. B.B.	7,8	12,9	936	10,28	26	8,3	0,13	0,57	-
ABE. B.B.	8,0	10,0	863	11,31	5	4,4	0,06	0,41	-
URT. B.B.	7,9	9,6	652	12,21	21	7,0	0,09	0,31	-
OTSA. B.B.	7,8	9,3	534	12,88	37	5,4	0,11	0,13	121
MAR. B.B.	7,8	9,3	422	11,86	64	3,5	0,39	0,04	118
API. B.B.	8,0	11,0	531	11,36	21	3,9	0,07	0,04	22
MAI. B.B.	7,7	14,7	748	10,34	11	4,6	0,10	0,09	11
EKA. B.B.	7,8	17,7	881	9,61	9	7,0	0,11	0,14	16
UZT. B.B.	8,1	19,6	975	9,64	10	11,4	0,10	0,06	15
ABU. B.B.	8,3	20,2	1040	9,13	16	12,5	0,11	0,15	10
IRA. B.B.	8,1	18,8	1074	9,07	14	8,7	0,18	0,07	16

65. taula. San Prudentzio neurketa jarraituko estazioaren estatistikak, Deba ibaian. 2015-2016. Urte hidrologikoa (eguneko batez bestekoetan oinarritua).



36. irudia. Kalitate fisiko-kimiko jarraitua San Prudentzian – 2015-2016. urte hidrologikoa.

Estazio horrek erregistratu ohi duen temperatura txikia da oro har. Hala ere, uda-garaian pixka bat igotzen da, eta egun batzuez salmonidoentzako temperatura egokia den 21,5° C-eko muga gainditzen da. Baina egunen % 2n bakarrik gertatzen da hori, beraz, zatia egokia da salmonidoentzat. Antzeko zerbait gertatzen da oxigenatzearekin. Temperatura pixka bat jaisten den aldiren bat badago ere (batez ere udan), egun gehienetan espezie salmonikolentzako egokia den kontzentrazioa dago. Aipatu behar da oxigenatze-baldintzak ikaragarri berreskuratu direla Epeleko HUA abiarazi zenetik.


Uhertasun handiko zenbait gertaera detektatu dira, baina nagusiki, ur-goraldiekin lotuta daude. Edonola ere, isuriek eta obrek eragin dute ere bai.

Kutsadura organikoari dagokionez, amonioak sortutako kutsadura handiko aldiak detektatu dira. Nolanahi ere, kontzentrazioek ez diote arrainen bizitzari eragin. Antzeko zerbait gertatzen da ortofosfatoekin. Neurtutako maximoek kutsadura-arazo puntualak adierazi dituzte, eta agerian utzi dira eutrofizazio-prozedurak. Hala ere, urteko denbora gehienean, antza denez, mota horretako prozesuak ez dira asko luzatzen.

ALTZOLAKo neurketa jarraituko estazioan bederatzi aldagai fisiko-kimikoren datuak biltzen dira: pH-a, uraren tenperatura, eroankortasuna, oxigeno disolbatua, uhertasuna, materia organikoa, amonioa, solido esekiak eta ortofosfatoak. Eskuragarri dauden datuak asko dira, egunen % 87 eta 98 bitartekoak. Ondoko taulan azaltzen dira emaitzak:

	pH-a	Uraren T ^a	Eroankor. (µS/cm)	Ox Dis (mg/l)	Uhert. (UNF)	Mat Org (m-1)	NH ₄ + (mg/l)	Solid. esek. (mg/l)	Ortof (mg/l P)
BATEZ BEST.	7,9	15,9	518	9,39	16	4,9	0,16	48	0,16
DESB.TIP.	0,2	4,9	116	1,29	34	1,9	0,11	295	0,15
MAX.	8,4	25,8	779	12,16	334	10,7	0,63	4873	1,23
MIN.	7,4	8,7	278	5,96	3	0,2	0,00	2	0,02
N	359	359	359	359	359	345	359	317	359
URRI. B.B.	7,7	16,0	618	8,77	11	6,0	0,09	9	0,46
AZA. B.B.	7,7	14,2	650	9,70	32	5,8	0,14	54	0,31
ABE. B.B.	7,9	11,4	594	10,36	5	3,7	0,16	225	0,26
URT. B.B.	7,9	10,8	472	10,69	15	5,2	0,15	18	0,17
OTSA. B.B.	7,9	10,5	396	10,52	40	5,3	0,25	137	0,08
MAR. B.B.	7,9	10,6	367	10,94	47	4,7	0,09	90	0,04
API. B.B.	8,1	12,8	381	10,64	12	3,1	0,17	13	0,04
MAI. B.B.	7,9	17,4	464	8,51	6	2,4	0,22	4	0,11
EKA. B.B.	7,8	20,5	535	7,88	5	5,7	0,14	7	0,15
UZT. B.B.	8,0	22,4	567	7,73	4	5,9	0,12	2	0,12
ABU. B.B.	7,9	23,2	583	8,33	5	6,3	0,19	3	0,12
IRA. B.B.	8,0	21,1	596	8,58	10	4,9	0,23	10	0,12

66. taula. Altzolako neurketa jarraituko estazioaren estatistika, Deba ibaia. 2015-2016. urte hidrologikoa (eguneko batez bestekoetan oinarrituta).



37. irudia. Kalitate fisiko-kimiko jarraitua Altzolan – 2015-2016. urte hidrologikoa.

2016ko uztaila eta abuztua berotsuak izan dira, eta tenperatura zati horretako uretan islatu da. Urteko egunen % 21n, salmonidoentzat egokitzat jotako 21,5° C-eko muga gainditzen da. Hortaz, ibaiko zati horretako urak ez dira egokiak salmonidoentzat, bai berriz, ziprinidoentzat. Oxigenatzea ere mugatzailea izan daiteke salmonidoen espezieentzat. Ez berriz ziprinidoentzat, oxigenazio txikiagoko uretarako hobeto moldatzeko gai dira eta. Egunen erdiak baino pixka bat gehiagok oxigenatze altua badute ere, urteko parte handi batean ur ziprinikolek izan ohi duten oxigeno-kontzentrazioak daude. Oxigeno-defizit garrantzitsua duten egunak detektatu dira ere bai, 7 mg/l baino balio txikiagoekin, nagusiki uda-garaian.


Halaber, uhertasun handikoaldiak antzeman dira. Hala ere, aldi horiek euri-aldiekin lotuta daude normalean, baina ustezko isuriek eta obrek ere eragin dezakete.

Kutsadura organikokoaldiak antzeman dira. Alde batetik, amonioak kutsadura adierazten duten maximoak eragin ditu. Nolanahi ere, balio horiek ez dute arrainak normaltasunez bizitzea baldintzatzen. Antzeko zerbait gertatzen da ortofosfatoekin. Neurtutako maximoek eutrofizazioaldiak agerian utzi dituzte, baina urteko zatirik handienean kontzentrazioa txikia da.

Ekainaren 22tik 26ra bitarteko aldiko datuak aztertu dira. Erregistratutako batez besteko giro-tenperatura 19,10° C da, eta 12,5° C eta 34,6° C artean aldatzen da. Disolbatutako oxigenoaren gutxieneko datua oso txikia da, 4,75 mg/l; gehienekoa, berriz, 9,61 mg/l. Alde handia dago egunaren eta gauaren artean, 4,86 mg/l; eta batez bestekoa 6,83 mg/l da. Erregistroen % 61 7 mg/l-ren azpitik dago, eta horrek arrain-faunaren garapen normala galaraz dezake. Ur-tenperaturari dagokionez, 19,20 eta 25,30° C bitarteko balioak izan ditu, eta batez besteko altua izan du, 22,22° C. Balioen % 61k salmonidoentzako 21,5° C-ko balio mugatzailea gainditu dute. Laburbilduz, oxigenatze- eta tenperatura-baldintza desegokiak antzeman dira.

	Ox. Dis. (mg/l)	Uraren T ^a (° C)	Giro T ^a (° C)
Batez best.	6,83	22,22	19,10
Desb. tip.	1,27	1,84	4,37
Max.	9,61	25,30	34,60
Min.	4,75	19,20	12,50
N	718	718	720
Diferentzia	4,86	6,10	22,10

67. taula. Estatistika niktimerala Altzolan (Deba ibaian). 2016eko ekaina




38. irudia. Deba ibaiko ur-kalitatearen eboluzioa Altzolan.

Azkenik, ZUBILLAGAKo neurketa jarraituko estazioak Oñati ibaiaren datuak ematen ditu, parametro hauenak hain zuzen: pH-a, uraren temperatura, eroankortasuna, oxigeno disolbatua, uhertasuna eta solido esekiak. Erregistro-kopurua egunen % 66 eta 99 bitartekoa da. Hona hemen lortutako emaitzak:

	pH-a	Uraren T ^a (° C)	Eroan. (µS/cm)	Ox. Dis. (mg/l)	Uhert. (UNF)	Solid. esek. (mg/l)
BATEZ BEST.	7,7	13,1	273	10,27	8	13
DESB.TIP.	0,2	3,9	61	0,92	16	34
MAX.	8,1	21,8	428	12,16	159	438
MIN.	7,3	7,4	149	7,94	1	2
N	363	363	363	363	349	240
URRI. B.B	7,8	13,5	344	9,92	3	-
AZA. B.B.	7,8	12,2	327	10,15	15	-
ABE. B.B.	7,9	9,2	303	11,36	2	-
URT. B.B.	7,8	9,4	240	10,75	7	-
OTSA. B.B.	7,8	9,1	216	10,94	19	40
MAR. B.B.	7,7	8,8	186	11,14	19	26
API. B.B.	7,9	10,3	193	11,16	7	11
MAI. B.B.	7,8	13,2	222	10,56	4	6
EKA. B.B.	7,6	16,1	268	9,73	5	8
UZT. B.B.	7,5	17,8	305	9,38	3	5
ABU. B.B.	7,5	19,7	344	8,76	1	3
IRA. B.B.	7,6	16,9	316	9,45	8	9

68. taula. Zubillagako neurketa jarraituko estazioaren estatistika (Oñati ibaian). 2015-2016. urte hidroklogoa (eguneko batez bestekoa).



39. irudia. Kalitate fisiko-kimiko jarraitua Zubillagan – 2015-2016. urte hidrologikoa.


Datu fisiko-kimikoek adierazten dutenez, salmonidoentzako ur egokiak dira araudiaren arabera, baina oxigenatze-urritasuna antzeman da uda-garaian.

7.1.6.4. URAREN KALITATE BIOLOGIKOA (DEBA)

Ondoko taulan, Deba ibaian egindako bi laginketa-kanpainetan lortutako emaitzak azaltzen dira:

Estazioa	Kodea	Ibaia	Estazioa	UDABERRIA			AGORRALDIA		
				Kodea	Ibaia	Estazioa	Kodea	Ibaia	Estazioa
Leintz	DEB03100	Deba	23	210	1,08	Oso ona	145	0,74	Ona
Aretxab Ib. gora	DEB12750	Deba	23	106	0,54	Ona	57	0,29	Moderatua
Arrasate	DEB14000	Deba	23	98	0,50	Ona	97	0,50	Ona
San Prudentzio	DEB20300	Deba	23	96	0,49	Ona	90	0,46	Moderatua
Matxiategi	DEB27290	Deba	32	85	0,44	Moderatua	90	0,46	Moderatua
Bergara Ib. Beh.	DEB28700	Deba	32	101	0,52	Moderatua	88	0,45	Moderatua
Soraluze	DEB34800	Deba	32	124	0,64	Ona	93	0,48	Moderatua
Maltzag Ib. Beh.	DEB38000	Deba	29	126	0,70	Ona	129	0,72	Ona
Elgoibar Ib. Beh.	DEB44300	Deba	29	98	0,54	Ona	139	0,77	Ona
Mendaro	DEB48100	Deba	29	103	0,57	Ona	107	0,59	Ona
Aramaio	ARM07700	Aramaio	23	158	0,81	Oso ona	102	0,52	Ona
Arantza Ib. gora	OIN06700	Oñati	23	98	0,50	Ona	98	0,50	Ona
Zubillaga	OIN09500	Oñati	23	134	0,69	Ona	125	0,64	Ona
Tabesa Zubia	OIN12500	Oñati	23	55	0,28	Moderatua	98	0,50	Ona
Urkulu Ib. Beh.	URK05300	Urkulu	23	104	0,53	Ona	77	0,39	Moderatua
Urkulu bokalea.	URK09800	Urkulu	23	193	0,99	Oso ona	150	0,77	Oso ona
Antzuola	ANL05500	Antzuola	22	82	0,41	Moderatua	68	0,34	Moderatua
Elgeta Ib. Beh.	UBE04200	Ubera	22	123	0,61	Ona	62	0,31	Eskasa
Aixola Ib. Beh.	AIX01100	Aixola	22	199	0,99	Oso ona	195	0,97	Oso ona
Ermua Ib. Beh.	EGO03700	Ego	22	65	0,32	Moderatua	68	0,34	Moderatua
Ego	EGO08800	Ego	22	53	0,26	Eskasa	44	0,22	Eskasa
Mijoa bokalea	MIJ02400	Mijoa	30	22	0,10	Txarra	38	0,17	Eskasa

69. taula. Kalitate biologikoa Deba arroan - 2016. urtea.



40. irudia. Kalitate biologikoaren eboluzio longitudinala Deba ibaian - 2016. urtea.

Deba ibaiak egoera ona du, oro har, udaberriko kanpainen. Matxiategin eta Bergaratik beherako uretan izan ezik, estazio guztiek UEZren helburuak lortu dituzte; gutxienez, uren kalitate biologiko ona dute. Baita Leintzek ere, kalifikaziorik onena (oso kalitate ona) lortu du, indizio biotikoan oso balio altua lortu baitu. Matxiategitik eta Bergaratik beherako uretan kalitatea moderatua da.

Agorraldian egoera pixka bat txartu da. Aretxabaletatik beherako uretako, San Prudentzioko eta Soraluzeko estazioek oraingo honetan ez dituzte ezarritako helburuak lortu, uraren kalitatea moderatu da eta. Matxiategitik eta Bergaratik beherako uretan kalitatea moderatu mantendu da. Gainerako zatiak egoera onean daude.

Ibaiadarrei dagokienez, Aramaio ibaiak, hurrenez hurren, egoera ona eta oso ona du uren kalitatearekin lotuta.

Oñati ibaian, Arantzazun ibaian gora eta Zubillagan ur-kalitatea ona izan da bi kanpainen. Hala ere, Tabesa zubian, moderatua izan da udaberrian, agorraldian, ostera, ona.

Urkulu erreka aldatzen da zatirik gorenean. Udaberrian kalitatea ona den bitartean, agorraldian moderatua da, eta horrek arazo motaren bat adierazten du. Hala ere, bokalean egoera bikaina da udaberrian zein agorraldian.

Antzuola erreka kutsadura-arazoak izan ditu bi kanpainen (kalitate moderatua).

Arro osoko kalitate biologikoari dagokionez, alderik handiena Ubera errekan dago, Elgetatik beherako uretan. Udaberrian ona da uraren kalitatea. Baina agorraldian zehar ia ez dago fauna bentikorik, eta horrek egoera desegokia agerian uzten du.

Aixola errekarri dagokionez, Aixolatik beherako uretan, egoera oso ona da udaberrian nahiz agorraldian.

Ego ibaiak arazoak ditu oraindik. Ermutik beherako uren kalitatea moderatua da. Amaierako zatian txarragoa da egoera, bi kanpainen kalitate biologiko txarra ageri da eta.

Azkenik, Mijoa erreka bokalean arro osoko indize biotikoko baliorik baxuenak daude, eta horrek adierazten du kalitate txarreko eta urriko urak, hurrenez hurren.

7.1.6.5. EKOIZPEN PRIMARIOA (DEBA)

Ondoren, Deba arroko ibaietako egoera trofikoaren emaitzak azaltzen dira:

ESTAZIOAK	IBAIA	BENTOSA			PLANKTONA		
		Klorofila (mg/l)	Margalef indizea	Klorofila (mg/l)	Margalef indizea	Klorofila (mg/l)	Margalef indizea
Leintz	Deba	30,28	2,30	Mesotrofia			
Aretxabalet Ib. gora	Deba	47,41	2,13	Mesotrofia			
Arrasate	Deba	21,83	2,00	Mesotrofia			
San Prudentzio	Deba	183,34	2,22	Hipereutrofia			
Matxiategi	Deba	160,90	1,71	Hipereutrofia			
Bergara Ib. Beh.	Deba	78,03	1,83	Eutrofia	1,92	2,85	Oligotrofia
Soraluze	Deba	79,71	2,10	Eutrofia			
Maltzaga Ib. Beh.	Deba	52,33	2,26	Mesotrofia			
Elgoibar Ib. Beh.	Deba	32,24	2,33	Mesotrofia			
Mendaro	Deba	293,21	2,20	Hipereutrofia	3,41	2,59	Oligotrofia
Aramaio	Aramaio	65,13	2,22	Mesotrofia			
Arantzazu Ib. gora	Oñati	22,23	1,80	Mesotrofia			
Zubillaga	Oñati	24,98	2,22	Mesotrofia	0,98	2,59	Oligotrofia
Tabesa Zubia	Oñati	46,75	2,29	Mesotrofia			
Urkulu Ib. Beh.	Urkulu	--	--	--			
Antzuola	Antzuola	173,00	1,75	Hipereutrofia	2,35	2,34	Oligotrofia
Elgeta Ib. Beh.	Ubera	72,42	2,07	Eutrofia			
Aixola Ib. Beh.	Aixola	96,89	1,80	Eutrofia			
Ermua Ib. Beh.	Ego	43,67	2,08	Mesotrofia			
Ego	Ego	45,91	2,13	Mesotrofia			

70. taula. Deba ibaiko ekoizpen primarioa - 2016. urtea.

Deba ibaiko arroko ibai-ibilerako klorofila bentikoaren analisisiek eutrofizazio pixka bat adierazten dute orokorrean, eta nabarmentzekoak dira Deba ibaiko zein ibaiadarretako zati batzuk, bertan oso bizia baita eutrofizazioa. Ardatz nagusian, San Prudentzio, Matxiategi eta Mendaroko zatiak hipereutrofia-egoeran daude. Bergararik beherako uretan eta Soraluzen klorofila-kontzentrazioa pixka bat txikiagoa da, baina eutrofia adierazten du. Ibaiak eutrofia moderatua edo mesotrofia du. Ibaiadarrei dagokienez, Antzuola, Ubera eta Aixola errekek dute eutrofizaziorik handiena, eta Antzuolako zatia nabarmengarria da. Aztertutako gainerako estazioek mesotrofia ageri dute. Bertako algak heldze-fasean daude estazio gehienetan, eta Arantzazutik gorako urak eta Aixolatik beherako urak dira gazteenak.

Bestalde, klorofila planktonikoa aztertu da zenbait lekutan. Hain zuzen, Bergararik eta Mendarotik beherako uretan, Deban, Oñatin eta Antzuolako tartean. Oraingo honetan, uraren analisi denek emankortasun txikia adierazi dute, hau da, oligotrofia. Kasu honetan, bertako algak heldze-fasean daude.

Mendaroko planktonaren osaera ere aztertu da. Fitoplanktonari dagokionez, diatomeoz, klorofizeoz, zianofizeoz eta euglenofizeoz osatuta dago. Diatomeoak izan dira talderik garrantzitsuena, klorofitoekin batera, bai kopuru aldetik, bai genero-aniztasunaren ikuspegitik. 10 genero ezberdin identifikatu dira, eta horien artean, oso ugariak izateagatik nabarmengarriak dira *Cycotella sp.*, *Navicula sp.* eta *Nitzschia*. Identifikatutako zenbait espeziek uraren kalitate ekologikoaren adierazle dira, hala nola *Nitzschia acicularis* eta *Melosira varians* (eutrofiloak eta α -mesosaprobikoak), *Rhoicosphenia curvata* (espezie eutrofiloa eta β -mesosaprobikoa) eta *N. linearis* eta *Diatoma vulgare* (β -mesosaprobikoak, metrotrofiloak eta mesoeutrofiloak, hurrenez

hurren). Klorofitoak gehiago izan dira kopuru aldetik diatomeoak baino. Hala ere, 4 genero ezberdin bakarrik identifikatu dira. Ugarietak *Scenedesmus armatus* eta *Pediastrum boryanum* izan dira. *S.armatus* espezie eutrofiloa eta β -mesosaprobikoa da, *P. boryanum* espezieak, berriz, ingurune mesotik mesoeutrofitoetarakoak nahiago ditu. Ia ez da zianobakteriorik egon, *Oscillatoria* generoa oso dentsitate txikietan identifikatu da eta. Halaber, zenbait euglenofizeo aurkitu dira kontzentrazio txikietan.

Zooplanktona kladozeroz, errotiferoz eta protozooz osatuta egon da zati horretan. Errotiferoak izan dira talderik desberdinena, eta *Zoothamnium ramossissimum* espezieko protozooak izan dira espezierik ugariena. Horiek nutrizio-substantzia ugari inguruetan garatzen dira (H.Streble).

Deba ibaiaren ardatz nagusiko eta hainbat ibaiadarretako estazioetan intsolazio handia dago, ibaiertzeko landaretzarik ia batere ez dagoelako, bideratze-lan orokortuak egin dira-eta. Ardatz nagusian, Leintzen, Aretxabaletan ibaian beheara, Arrasaten eta Elgoibarren ibaian beheara itzal asko dago, baina gainerako estazioetan, intsolazio handia. Ibaiadarrei dagokienez, Urkulun eta Aixolan, itzal asko dago, eta Aramaion, Arantzazun ibaian beheara, Zubillagan eta Elgetan ibaian beheara gutxiago. Tabesa zubian, Antzuolan eta Egon, intsolazioa ia erabatekoa da.

DEBA IBAIKO ESTAZIOAK		IBAIADARRETAKO ESTAZIOAK	
Leintz	0,40	Aramaio	0,37
Aretxabaleta lb. gora	0,41	Arantzazu lb. gora	0,66
Arrasate	0,38	Zubillaga	0,82
San Prudentzio	0,00	Tabesa Zubia	0,45
Matxiategi	0,07	Urkulu lb. Beh.	0,89
Bergara lb. Beh.	0,03	Antzuola	0,03
Soraluze	0,31	Elgeta lb. Beh.	0,47
Maltzaga lb. Beh.	0,01	Aixola lb. Beh.	0,78
Elgoibar lb. Beh.	0,54	Ego	0,16
Mendaro	0,13	Ermua lb. Beh.	0,00

71. taula. Argi-xurgatzearen koefiziente. Deba arroa.


7.1.6.6. ARRAIN FAUNA (DEBA)

Jarraian, Deba ibaiaren arroan 2016an egindako arrain-laginketetan lortutako emaitzak adieraziko dira. Ardatz nagusian ohiko laginketa-sareak barne hartzen ditu Leintz (laginketa semikuantitatiboa egin da), eta San Prudentzio, Matxiategi eta Elgoibartik beherako estazioetan egindako laginketak (laginketa kualitatiboa egin da horietan). Ibaiadarrei dagokienez, laginketa kualitatiboak egin dira Aramaion (Aramaio ibaia), Tabesa zubian (Oñati ibaia) eta Elgetatik beherako uretan (Ubera erreka).

IV. eranskinean, espezieen araberrako neurri banaketen grafikoak kontsulta daitezke.

Ale-kopurua/Ha							
ESTAZIOA	LAGINKETA MOTA	IBAIA	AMUARRAINA	LOINA	EZKAILUA	MAZKARRA	ANGIRA
Leintz	Semikuantitatiboa	Deba	4.541		130		
San Prudentzio	Kualitatiboa	Deba	109		9.709	6.370	54
Matxiategi	Kualitatiboa	Deba	26	7.303	12.284	13.213	103
Elgoibar lb. Beh.	Kualitatiboa	Deba	31	2.109	3.3110	477	554
Aramaio	Kualitatiboa	Aramaio	52		4.318	1.448	
Tabesa Zubia	Kualitatiboa	Oñati	213		3.213		
Elgeta lb. Beh.	Kualitatiboa	Ubera	361		4.440	2.272	

72. taula. Deba ibaiko arrain-faunaren egoera. 2016 urtea.



41. irudia. Arrain-komunitatearen osaera Deba arroan - 2016. urtea.

Deba ibaiaren goi-ibarrean, LEINTZen amuarrain-populazioak dentsitate altua du. Gainera, ezkailu-ale gutxi batzuk harrapatu dira. Egoera ona da, goi-ibarreko zati batek beharko lukeena.

Bestalde, SAN PRUDENTZIOOn 2012. urtetik Epeleko HUA abiarazi zenetik antzemandako hobekuntza aurrera doa. Hala, aurten oso dentsitate altuak lortu dituzte mazkarrak eta ezkailuak. Halaber, amuarrain-ale batzuk harrapatu dira, eta hori oso positiboa da. Aingira-ale batzuk harrapatu dira ere bai. Aintzat hartu behar da aurretik fauna iktikorik ez zegoela zati horretan.

MATXIATEGIN, Deba ibaiak Bergaratik igarotzean, aurrera darama azkeneko laginketetan antzemandako hobekuntza.

Arrain-komunitatea 5 espeziez osatuta dago: amuarrainaz, loinaz, ezkailuz, mazkarrez eta aingiraz. Oso dentsitate altuak lortu dituzte loinek, ezkailuek eta mazkarrek. Gainera, zenbait amuarrain- eta aingira-ale harrapatu dira, eta hori oso datu positiboa da.

ELGOIBARTik beherako uretan pixka bat hobetu da arrain-faunaren egoera azkeneko urteetan, uraren kalitatea berreskuratzeari esker. 2016an, arrain-komunitateak honako espezie hauek barne hartu ditu: ezkailua, loina, mazkarra, amuarraina eta aingira. Loinak eta ezkailuak dentsitate altuak izan dituzte, mazkarrak eta aingirak, berriz, baxuak. Gainera, amuarrain-ale batzuk harrapatu dira.

Debaren ibaiadarrei dagokienez, laginketak egin dira honako ibai hauetan: Aramaio, Oñati (Tabesa zubia) eta Ubera (Elgetatik beherako urak). Horietan guztietan arrain-laginketa kualitatiboak egin dira:

ARAMAIOOn arrain-komunitatea ezkailu-populazio handi batez osatzen da. Halaber, mazkarrak dentsitate handia du. Gainera, amuarrain-ale batzuk harrapatu dira. Aurreko laginketetan antzemandako egoeraren nahiko antzekoa da orainkoa.

Oñati ibaiko bokalean, TABESA zubian, arrain-faunaren berreskurapen ikaragarria egon da 2013tik, saneamendua egin zenetik. Aurten ezkailu-populazio handia antzeman da. Gainera, amuarrain-ale batzuk harrapatu dira dentsitate txikian. Egoerak hobetzen jarraitzea espero da.

Azkenik, ELGETAn, uretan beherako estazioan, Ubera errekan kokatutakoan, ezkailu- eta mazkar-populazioek dentsitate handiak dituzte. Gainera, amuarrain-ale batzuk harrapatu dira. Egoera ez da erabat egokia.

7.1.6.7. SINTESIA (DEBA)

Deba ibaian lortutako emaitza fisiko-kimikoek adierazten dute azken urteetan uraren kalitatea nabarmen hobetu dela. Saneamenduak ondo funtzionatzen duenez, Deba ibaia salmonidoentzako egokia da ia zati guztian, amaieran izan ezik; izan ere, udako tenperatura altuen eraginez, erregistratutako maximoek Elgoibar eta Mendaroko beheko zatiak jotzen dituzte egokitzat ziprinidoentzat.

Egoera biologikoari dagokionez, goi-ibarreko zatia, Leintz, ondo kontserbatzen da, eta kalitatea oso ona eta ona da, hurrenez hurren. Aretxabaletatik gorako uretan egoera hobetu dela antzeman da aurreko urtekoekin alderatuta, eta egoera ona/moderatu erregistratu da. Arrasateko emaitzak onak dira, bi kanpainetan kalitate ona mantendu da eta. San Prudentzian, udaberrian, kalitatea mantendu egin da, baina agorraldian okerrera egin du kalitateak, moderatu izatera iritsi arte. Halere, Matxiategitik eta Bergaratik beherako uren kalitatea ez da berreskuratu. Kanpaina biek uraren kalitate Moderatu adierazi dute. Ibaiaren gainerakoa

egoera onean egon da 2016an, Soraluzen agorraldian izan ezik, bertan kalitatea moderatua izan baita. Aurtengo emaitzek Deba ibaiak aurreko urtetan izandako hobekuntza berretsi dute.

Bentos komunitateetako ekoizpen primarioari dagokionez, ibaiaren ibilera guztiak eutrofizazio-sintomak ditu neurri handiago edo txikiagoan, eta eutrofia arineko edo hiperutrofiako egoerak daude. Neurtutako klorofila planktonikoak oligotrofia adierazi du.

Arrain-faunari dagokionez, Leintzen amuarrain populazioak dentsitate altua du. Gainera, ezkailu-ale gutxi batzuk harrapatu dira. Egoera ona da, goi-ibarreko zati batek beharko lukeena. Bestalde, San Prudentzian Epeleko HUA abiarazi zenetik antzemandako hobekuntza aurrera doa. Hala, aurten oso dentsitate altuak lortu dituzte mazkarrak eta ezkailuak. Halaber, amuarrain- eta aingira-ale batzuk harrapatu dira, eta hori oso positiboa da. Matxiategin, Deba ibaiaren Bergaratik igarotzean, hobekuntza nabaritzen da. Arrain-komunitatea honako espezie huez osatuta dago: amuarrainaz, loinaz, ezkailuz, mazkarrez eta aingiraz. Oso dentsitate altuak lortu dituzte loinek, ezkailuek eta mazkarrek. Eta hobekuntzarekin jarraitzeko, Elgoibartik beherako uretan mazkarrak, amuarrainak eta aingirak aurkitu dira, baita loinak eta ezkailuak ere dentsitate-maila altuagoan. Gainerako espezieek dentsitate baxua dute.

Ibaiadarrei dagokienez, **Aramaio** ibaiak salmonidoentzako ur egokiak ditu. Kalitate biologikoari dagokionez, udaberrian oso kalitate ona antzeman da, eta agorraldian, berriz, ona; asko hobetu da aurreko urteko egoerekin alderatuz. Bestalde, klorofila bentikoak mesotrofia adierazten du. Arrain-komunitatea ezkailu-populazio handi batez osatzen da. Halaber, mazkarrak dentsitate handia du. Gainera, amuarrain-ale batzuk harrapatu dira.

Oñati ibaiak, Arantzazuko estaziotik gorako uretan, oxigeno-defizita du, ondorioz, urak egokiak dira ziprinidoentzat. Hala eta guztiz ere, Zubillagan eta Tabesa zubian baldintza hobekak antzeman dira, salmonidoentzako egokiak. Horrez gain, emaitza biologikoen adierazi dute Oñati ibaian zehar egoera oso antzekoa dela udaberrian nahiz agorraldian. Udaberrian Tabesa zubiko uraren kalitate moderatua salbu, gainerako laginketek egoera ona adierazi dute. Ekoizpen primarioaren emaitzek, berriz, ibaiaren guztian zehar mesotrofia dagoela adierazi dute, bentosaren arabera. Zubillagako klorofila planktonikoaren arabera, zati horretan oligotrofia-egoera dago. Arrain-faunari dagokionez, aurten Tabesa zubian laginketak egin dira, eta ezkailu-populazio handia aurkitu da. Gainera, amuarrain-ale batzuk harrapatu dira dentsitate txikian. Ondorioz, aurreko urteetan egon den hobekuntza berretsi da, eta, hori gutxi balitz, egoerak hobera egingo duela espero da.

Urkulu errekan, ur-araztegitik beherako uretan edo bokalean, salmonidoentzako baldintza fisiko-kimiko egokiak ditu. Emaitza biologikoen dagokienez, goi-ibarrean udaberrian kalitate ona erregistratu da, agorraldian, aldiz, okerrera egin duela nabari da, uraren kalitatea moderatua baita. Beheko zatian, berriz, uraren kalitate biologikoa ezin hobea izan da bi kanpainetan.

Antzuola errekan, kutsadura organiko altua bateraezina da arrainen bizitzarekin. Emaitza biologikoen kalitate moderatua aditzera eman dute. Klorofila bentonikoaren eta planktonikoaren analisiak hipereutrofia eta oligotrofia adierazi ditu, hurrenez hurren.

Bestalde, **Ubera** errekan datu fisiko-kimikoen adierazi dute bertako urak egokiak direla salmonidoentzat. IBMWPren emaitzek bi kontrako egoera agertzen dituzte. Udaberrian uraren kalitatea ona da, agorraldian, berriz, eskasa. Klorofila bentonikoaren analisiak eutrofia adierazi du. Arrain-faunari dagokionez, Elgetatik beherako uretan ezkailu- eta mazkar-populazioak oso dentsitate altua dute. Gainera, amuarrain-ale batzuk harrapatu dira.

Aixola errekan urak kalitate fisiko-kimiko ona du, eta egokia da salmonidoentzat. Emaitza biologikoen arabera, egoera oso onuragarria da, eta bi kanpainetan oso kalitate biologiko ona

erregistratu da. Klorofila bentikoaren analisiak eutrofia adieraz du. Klorofila bentikoaren analisiak eutrofia adierazi du.

Ego ibaian, azken urteetan kutsadura-maila jaitsi egin da, hala eta guztiz ere, oraindik ere maila altua du. Beraz, bateraezina da arrainen bizitzarekin zati altuenean (Ermuan ibaian behera) edota bokalean. Era berean, emaitza biologikoak desegokiak dira, Ermuko estaziotik beherako uren kalitate biologikoa moderatua da, eta bokalean eskasa. Beheko zati horretan, klorofila bentikoko datuek eutrofia moderatua adierazi dute.


Mijoa ibaiadarrean, amonioa nabaria da, beraz, bateraezina da arrainen bizitzarekin. Emaidak biologikoak egoera problematiko bat dakarte, ur-kalitate txar eta eskasa, hurrenez hurren.

7.2. URTEZ URTEKO BILAKAERA

Atal honetan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laginketa-sareko 18 estaziok urtez urte izan duten bilakaera aztertzen da. Estazio horiek unitate hidrologiko desberdinetan banaturik daude. Estazio horiek hautatzeko arrazoia izan da nahiko datu osatuak dituztela (25 urte); izan ere, horri esker, urte guztien konparazioa egin liteke. Horrez gain, guneak hautatzeko orduan, kontuan hartu da non dauden, ur zikinak saneatzeko eta arazteko planen emaitzen jarraipena egin ahal izateko.


7.2.1. BIDASOA IBAIAREN ARROA

Bidasoa ibaian, Endarlatsako tartean, uraren kalitate fisiko-kimikoa handia da serie historikoko ia laginketa guztietan. Ez da detektatu kutsadura organikorik, ez eta metalek eragindakorik ere. Temperatura- eta oxigenazio-baldintzak egokiak dira oro har; beraz, ur egokiak dira salmonidoentzat ia kasu guzti-guztietan, 2016an bezala.



42. irudia. Kalitate fisiko-kimikoaren denborarekiko eboluzioa (urteko batez bestekoak). Endarlatsa (Bidasoa ibaia).


Uraren kalitate biologikoari dagokionez, serieko laginketetan lortutako IBMWParen puntuazioak handiak dira oro har, eta egoera biologikoa ona edo oso ona dela adierazten dute gehienetan. Edonola ere, inoiz jaso dira datu ezohikoki baxuak, batez ere seriearen lehenengo erdialdean; datu horiek egoera biologiko Moderatuari edo eskasari dagozkie. Hala, 1989an eta 1997an, 44ko eta 45eko balioak lortu ziren agorraldian, hurrenez hurren; 2001. urtean 66ko datua erregistratu zen udaberrian. Azken urteetan halako goranzko joera ikusi da. Azkeneko urteetan gorako joera nabaritu da. 2016an, serie osoan izan diren IBMWPren puntuaziorik altuenak erregistratu dira: 187 udaberrian eta 197 agorraldian. Horiek oso egoera ona agerian utzi dute.



43. irudia. Kalitate biologikoaren denborarekiko eboluzioa. IBMWP indizea – Endarlatsa (Bidasoa)

7.2.2. OIARTZUN IBAIAREN ARROA

UGALDETXOn, uraren kalitate fisiko-kimikoak hobera egin du 1999. urtetik, orduan nabarmen gutxitu baitzen kutsadura organikoa; hala, egokia da salmonidoentzat.




44. irudia. Kalitate fisiko-kimikoaren denborarekiko eboluzioa (urteko batez bestekoak). Ugaldetxo (Oiartzun ibaia).

Alderdi fisiko-kimikoa bezalaxe, biologikoa ere nabarmen hobetu da 1999. urteaz geroztik. Izan ere, urte horretan jarri zuten abian kolektore orokorra, Oiartzungo eta Errenteriako isurketa handienak biltzen dituenak. Hala, 1998. urtean, IBMWP indizeak balio apal samarrak lortu zituen, 54 eta 65, udaberrian eta agorraldian, hurrenez hurren. Balio horiek egoera biologiko eskasa adierazten dute. 1999. urtean, berriz, indizeak gora egin zuen: 117 puntu lortu zituen udaberrian


eta 75 agorraldian, egoera onari eta Moderatuari dagozkionak, hurrenez hurren. Ondorengo urteetan, egoerak hobetzen jarraitu zuen eta puntuazioak geroz eta altuagoak ziren, nahiz eta batzuetan ohiz kanpoko datu baxuagoak atzeman diren. 2016an, aurreko urtean bezala, egoera ona egon da; izan ere, IBMWPren puntuazioek kalitate ona adierazi dute, 130 udaberrian, eta 108 agorraldian.

Oiartzun ibaiaren arroko behealdean, saneamendua ia amaituta dago. Isurketa gehienak jasota daude. Azken urteetan, Lintzirin ibarreko isurketa batzuk jaso dira; horrela, gutxitu egin dira Lintzirin errekaen kutsatzaileak Oiartzun ibaiaren beheko aldean.




45. irudia. Kalitate biologikoaren denborarekiko eboluzioa. IBMWP indizea – Ugaldetxo (Oiartzun ibaia).

FANDERIAN, kutsadura organikoa pixkanaka gutxitu da, saneamendu aldetik egin diren aurrerapenei esker. Grafikoan ikusten den bezala, 1999. urtean gutxitu zen gehien, kolektore orokorra abian jarri izanaren ondorioz. Horri esker, gune horretako ura salmonidoentzat egokitzat hartzen da; lehen, kutsadura organiko handia zegoenez, ezin zen halakotzat jo. 2016an lortutako emaitzek adierazi dute ur egokiak direla salmonidoentzat, aurreko urteetan legez.




46. irudia. Kalitate fisiko-kimikoaren denborarekiko eboluzioa (urteko batez bestekoak). Fanderia (Oiartzun ibaia).

Kalitate biologikoak antzeko portaera du. 1999. urtea baino lehen egindako laginketetan, IBMWP indizeak oso balio txikiak lortzen zituen, 40tik beherakoak ia beti. Egoera biologiko txarraren adierazle zen hori. 2000-2004ko epealdian, onbideratze bat ikusi da, eta indize biotikoaren balioak 70 eta 80 artean ibili dira nagusiki –egoera Moderatua edo eskasa adierazten dute–, 2003. urtean izan ezik. Orduan, puntuazio txikixeagoak izan ziren, beharbada lehorte bortitza eta tenperatura handiak izan zirelako urte hartako agorraldian, eta, gainera, Lintzirin errekatik ur kutsatuak zetozelako eta ibaiko habitata eraldatuta zegoelako. 2004. urtetik aurrera, egoera hobea atzeman zen, eta balioak 80-100 artean zebiltzan gutxi gorabehera; hau da egoera Moderatua zen gehienetan. Azken urteetan nolabaiteko hobekuntza nabaritu da, Lintzirin errekan egin diren isurketen bilketa dela eta. 2014 urtean IBMWP indizearen balioak gorakada nabarmena eman zen udaberrian aurreko urteekin alderatuta, honek egoera oso ona adierazten zuelarik; aldiz, agorraldiko egoera Moderatua zen. 2015 urtean egoera berdintsua da, egoera ona lortuz udaberrian eta Moderatua agorraldian. 2016an, berriz, zatiaren kalitatea moderatua izan da bi kanpainetan.



47. irudia. Kalitate biologikoaren denborarekiko eboluzioa. IBMWP indizea – Fanderia (Oiartzun ibaia).


Seriean zehar ur-kalitatearen hobekuntza arrain-faunaren egoeran islatu da ere bai. 1989an egindako lehenengo laginketan espezie bakarra agertzen da: aingira. 1992tik aurrera, espezie kopuruak gora nabarmen egiten duela antzeman da, bai eta haietako batzuen dentsitatearen gorakada progresiboa ere. Hala, 1993an, aingiraz gain, amuarraina, ezkailua, platuxa eta korrokoa agertu ziren. Gerora, mazkarra eta izokina gehitu ziren. Behin zamo txikiko ale bakarra harrapatu zen. 2016an, arrain-komunitatea 7 espeziek osatu dute: izokinak, amuarrainak, ezkailuak, mazkarrak, aingirak, platuxak eta korrokoiak. Ezkailua izan da espezie nagusia, eta dentsitate handia lortu du. Amuarrainaren presentzia nabarmen jaitsi da azken bi laginketetan, 2010. urtearekin alderatuta. Mazkarrak dentsitatea handitu du aurreko laginketarekin alderatuta, baina dentsitate txikia izaten jarraitzen du. Aingiraren populazioa, berriz, txikitzen ari da oraindik, eta dentsitate txikia erregistratu du. Horrez gain, platuxa- eta korrokoia-ale solteak harrapatu dira. Izokin basatiko ale bat harrapatu da, eta horrek esan nahi du espeziea ugaltu egin dela.



48. irudia. Arrain-faunaren bilakaera. Fanderia (Oartzun ibaia)


7.2.3. URUMEA IBAIAREN ARROA

KARABELgo estazioan ikusten da kutsadurak behera egin duela serie historikoan zehar, batik bat lehen erdialdean. Kutsadura organikoaren adierazleen kontzentrazioak gutxitu egin dira, eta gaur egun betetzen dira salmonidoan bizitzeko gaitasunari dagozkion betekizunak. Seriearen hasieran erregistratutako pH-aren balio txikiak nabarmentzen dira; izan ere, 6tik beherakoak izan dira, eta 2-3 ingurukoak ere neurtu dira, industrietako isurketen ondorioz. Azken urteetan, parametro guztiek izan dituzte ur garbiei dagozkien balioak, eta 2016. urtean ere bai.




49. irudia. Kalitate fisiko-kimikoaren denborarekiko eboluzioa (urteko batez bestekoak). Karabel (Urumea ibaia).

Kalitate biologikoa ere modu positiboan bilakatu da. Seriearen hasieran, IBMWPak oso balio txikiak lortu zituen, ur oso kutsatuei zegozkienak. Geroago, ikusi zen pixkanaka hobera egiten ari zela, eta 1994. urtean egoera ona zen. Urte horretatik aurrera, hobetzen jarraitu da eta indizeko puntuazio gero eta altuagoak lortu dira; hala, geroz eta ohikoagoa da egoera ona/oso ona izatea. Hala ere, 2016ko udaberrian egoera ona izan bada ere (kalitate ona), indize biotikoak arazoak agerian utzi ditu agorraldian, uraren kalitatea Moderatua dela adierazi du eta. Hori izan da zatiak izan duen egoerarik txarrena 2012ko udaberritik.




50. irudia. Kalitate biologikoaren denborarekiko eboluzioa. IBMWP indizea – Karabel (Urumea ibaia).

Ur-kalitatearekin batera arrain-faunaren egoerak eboluzionatu du. Puntu horretan arrain-laginketak egin dira 1990. urtetik, 1992an izan ezik, bi urtean behin egin baitzen orduan. Gure lehenengo laginketan 4 espezie ageri dira: ezkailua, mazkarra, zamo txikia eta aingira; azken hori da nagusi. 1994an, horiez gain izokin- eta amuarrain-aleak harrapatu ziren, eta horrek adierazten du saneamendu-obren ostean uraren kalitatea hobea zela. Bestalde, platuxa eta zamo txikia ez dira agertzen. Geroago korrokoa gehitu zen, eta itsas amuarraineko ale bat harrapatu zen 2004an. Urte berean, arrain asko hil zituen isuri toxiko bat egon zen. Arrain-komunitatearen barruan, ezkailuak eta aingirak ugari dira oro har, eta izokin kopurua handitzen ari da azkeneko urteetan. Gainerako espezieak urriak dira. Bada, 2016an 6 arrain-espezie harrapatu dira: izokina, amuarraina, ezkailua, aingira, korrokoa eta platuxa. Nabarmengarria da izokin basatiko populazioaren hazkuntza, aurreko kanpainarekin alderatuta. Dentsitate handia lortu du, eta hori datu positiboa da. Aingirek eta ezkailuek ere aipatzeko moduko dentsitateak dituzte. Amuarrain-populazioa, ordea, oso txikia da. Halaber, korrokoi- eta platuxa-ale batzuk harrapatu dira.



51. irudia. Arrain-faunaren bilakaera. Karabel (Urumea ibaia)


ERGOBIAN, beherazko joera ikusi da kutsadura-mailetan, saneamendu-proiektuak egin izanari esker. Kutsadura organikoaren adierazleak ere asko jaitsi dira seriean. pH-a ere egonkortu egin da; izan ere, seriearen hasieran oso datu txikiak lortu dira, jadanik itxita dagoen enpresa batek papera isurtzen zuelako. Horiek hala, uraren kalitateak hobera egin du pixkanaka, eta azken urteetan egokitzat jo dira salmonidoentzat, 2016an ere bai.



52. irudia. Kalitate fisiko-kimikoaren denborarekiko eboluzioa (urteko batez bestekoak). Ergobia (Urumea ibaia).

Uraren kalitate biologiko aldetik ere joera positiboa ikusten da serieak aurrera egin ahala. Seriearen lehenengo urteetan, oso puntuazio txikiak lortu ziren, 5 eta 50 bitartean gutxi gorabehera (balio horiek egoera eskasa/txarra adierazten dute). 90eko hamarkadaren amaieran, hobekuntza txikia izan zen; indizeak geroz eta balio altuagoak lortzen ditu, egoera ertain/eskasari dagozkionak. 2010. urtetik aurrera hobekuntza nabarmena igarri da aurreko urteekin alderatuta, honela, kasu gehienetan egoera ona edo oso ona izan zen. 2016an egoera


aldatu egin da kanpaina batetik bestera. Udaberrian zenbait arazo antzeman dira, eta indize biotikoak adierazi duenez, ur-kalitatea moderatua da (IBMWP=97). Agorraldian, ostera, egoerak hobera egin du. Kasu honetan, IBMWPren balioa 119ra igo da, kalitate ona.



53. irudia. Kalitate biologikoaren denborarekiko eboluzioa. IBMWP indizea – Ergobia (Urumea ibaia).


7.2.4. ORIA IBAIAREN ARROA

ORDIZIAN, emaitza fisiko-kimikoek adierazten dute kutsadura organiko jarraitu bat izan dela seriean zehar; dena dela, kutsadura hori asko gutxitu da azken urteetan, 2003. urtean Legorretan Gaikaoko HUA abian jarri zutenetik, han Oria Garaiko ur zikinak arazten baitira. Hala, saneamendua egin aurreko urteetan, kutsadura organikoaren adierazle diren parametroek (DBO, DQO eta amonio) kontzentrazio handiak zeudela agertu zuten. Amonioaren urteko batez bestekoak 1 mg/l-ko muga gainditu du ia beti, eta lortutako balio maximoa 4,6 mg/l izan da. Era berean, DQO eta DBO₅aren balioak ere handiak izan dira, 70 mg/l eta 12 mg/l urteko batez besteko maximoekin, hurrenez hurren. Ondoren, kutsatzaileen karga gutxitu egin zen leunki puntu honetan, kutsadura organikoa kontzentrazio baxuetan mantenduz orokorrean. Baita 2016. Urtean ere.




54. irudia. Kalitate fisiko-kimikoaren denborarekiko eboluzioa (urteko batez bestekoak). Ordizia (Oria ibaia).

Kalitate biologikoari dagokionez, IBMWP indizeak oso balio txikiak lortu ditu oro har saneamendua egin aurreko urteetan, gehienak 20tik beherakoak; horrek egoera txarra adierazten du. 2003. urtetik aurrera, hau da, Gaikaoko HUA abian jarri zenetik, joera positibo bat ikusi da, eta puntuazio handixeagoak lortu dira. Horrek adierazten du egoera eskasa dela gehienetan, eta Moderatua kasurik onenetan. 2010etik aurrera halako hobekuntza atzeman da, baina oraindik ere maila apalaren barruan; hortaz, laginketa gehienen arabera, egoera Moderatua da. 2014. eta 2015. urteetan nolabaiteko hobekuntza nabaritu zen, udaberrian egoera ona lortuz, eta Moderatua agorraldian. 2016an, berriz, egoera ona izan da bi kanpainetan (kalitate ona).




55. irudia. Kalitate biologikoaren denborarekiko eboluzioa. IBMWP indizea – Ordizia (Oria ibaia).

Puntu horretan arrain-laginketak egin ziren 1991n eta 1993an, eta bi urtean behin 1996tik gaur egunera arte. Seriearen lehenengo urteetan arrain-fauna eskasa zen, batzuetan ez zegoen faunarik, hala nola 1991n eta 1996an. Hala, oso populazio eskasak antzeman ziren oro har, barboari, loinari, ezkailuari, mazkarrari, zamo txikiari eta aingirari dagokienez. Espezie denak ez ziren laginketetan agertu. 2004an barboen eta loinaren hazkunde handia antzeman zen, eta ordutik aurrera ugariak dira espezie horiek. Ezkailuak eta mazkarrak presentzia garrantzitsua dute oro har, eta aingirak, berriz, oso eskasa izaten jarraitzen du. Gainera, 2010ean amuarrain-ale batzuk harrapatu ziren lehen aldiz. Amuarrain ostadarreko ale bat harrapatu zen behin. 2016an arrain-komunitatea 4 espeziez osatuta egon da: barboaz, loinaz, ezkailuz eta mazkarrak. Barbo- eta loina-populazioak nabarmen berreskuratu dira aurreko laginketarekin alderatuta, eta dentsitate altuak lortu dituzte. Ezkailu-populazioa ere pixka bat hazi da aurreko laginketarekin alderatuta. Bestalde, mazkar-populazioa oso ugaria izan da, behintzat aurreko laginketetan. Ez dira amuarrain- eta aingira-alerik harrapatu. Espezie horiek aurreko laginketetan agertu dira, baina dentsitate txikiarekin. Egoera ona da erlatiboki.




56. irudia. Arrain-faunaren bilakaera. Ordizia (Oria ibaia)

ARAXEStik gorako uretan dagoen estazioan, Araxesekin bat egiten duen lekutik gora, 1990. urtetik uraren kalitateak hobera egin duela detektatu da. Urte hartan, nabarmen hobetu ziren papergintzako isurketak, paper-industria bat itxi zutela-eta. Horren ondorioz, jaitsiera detektatu zen kutsadura organikoaren adierazle diren parametroen kontzentrazioetan, hala nola DQOan, DBOan, eroankortasunean eta solido esekietan. Horrez gain, 2003an Gaikaoko HUA (Oria Garaia) hasi zen martxan, eta berrikiago, 2011n, Adunako HUA jarri dute abian (Oria erdialde-behealdea). Horren emaitza gisa, ikusi da kutsadurak zertxobait behera egin duela, baina oraindik ere bada halako karga organikoa. Hala, 2016an, amonio, DQO eta DBO₅ kontzentrazio txikietan aurkitu dira oro har. Hala ere, salbuespen puntualen bat egon da, baina ez dute arazo larririk adierazi.




57. irudia. Kalitate fisiko-kimikoaren denborarekiko eboluzioa (urteko batez bestekoak). Araxes Goian (Oria ibaia).

Indize biotikoen emaitzek antzeko egoera agertzen dute. 1990a baino lehenagoko urteetan, IBMWP indizeak oso balio txikiak lortu zituen, 6 eta 39 bitartean, hau da, egoera txarra zen. Urte hartatik aurrera, puntuazioek neurritz egin zuten gora, eta nagusiki 40-70 tartearen barruan zeuden; horrek esan nahi du egoera eskasa zela gehienetan. Ibaian gora isurketak zeudenez, uraren kalitatea ezin zen gehiago onbideratu. Horrez gain, litekeena da azken urteetan AHTaren lanek tarte hori gehiago onbideratzeko aukera zaildu izana. 2013. urtean, puntuazio altuxegoak erregistratu ziren (egoera Moderatua). 2014. urtean, egoerak hobera egiten du, lehenengo aldiz egoera ona lortuz, bai udaberrian baita agorraldian ere. Aurten, 2015. urtean, IBMWP balio baxuagoak lortu dira, egoera Moderatuari dagozkionak. 2016an, udaberrian, kalitatea moderatua izan da oraindik. Agorraldian, berriz, indize biotikoak serie osoaren maximoa lortu du (IBMWP=136), eta zatia egoera onean dagoela adierazi du.




58. irudia. Kalitate biologikoaren denborarekiko eboluzioa. IBMWP indizea – Araxes Goian (Oria ibaia).

IRURAn, aurreko gunearen antzeko egoera dago. 1992. urtetik aurrera, uraren kalitatea hobetu egin zen, Amaroako paper-orea fabrikatzeko lerroa itxi zutela-eta. Seriearen hasieran, emaitza fisiko-kimikoak kutsadura handiko egoerari zegozkion. Ordutik aurrera, nabarmen egin dute behera kutsaduraren adierazle diren parametroen kontzentrazioek, hala nola DQOak, DBOak eta solido esekiek; gainera, oxigenazio-baldintzak ere hobetu egin dira. Berriki, beste paper-industria batzuek utzi dute bertan behera beren jarduera; gainera, 2011ko amaieran, Adunako HUA jarri zen abian, eta, horren ondorioz, kutsadura nabarmen gutxitu da, nahiz eta oraindik ere baden zerbait. Hala, urte horretara bitartean, amonio ugari zegoen, eta hori mugatzailea zen arrainak bizitzeko; alabaina, 2012an, parametro hori kontzentrazio txikietan edo detekzio-mailaren azpitik atzeman da, eta, beraz, ziprinidoentzako ur egokitzen har daitezke; temperatura altua denez, ez dira ur egokiak salmonidoentzat. 2013. urtean, lehenengoz jo dira salmonidoentzako egokitzen; izan ere, parametro guztiek bete dituzte arrain-gaitasunari buruzko 2006/44/EE Zuzentarauan ezartzen diren baldintzak. Azken urteetan egoera mantendu egiten da. 2016an, kutsadura organikoko adierazleak kontzentrazio txikietan egon dira.




59. irudia. Kalitate fisiko-kimikoaren denborarekiko eboluzioa (urteko batez bestekoak). Irura (Oria ibaia).

Kalitate biologikoak kalitate fisiko-kimikoaren antzera eboluzionatu du. 1992. urtea baino lehen egindako laginketetan, IBMWP indizeak oso balio txikiak lortzen zituen, 20tik beherakoak kasurik gehienetan; hau da, egoera txarra zen. Geroago, puntuazioak zertxobait handiagoak izan dira, 40 eta 60 bitartekoak oro har; egoera eskasa izan da, beraz. 2007tik aurrera, nolabaiteko hobekuntza ikusi da, eta indizearen balioak nagusiki 60-90 bitartean ibili dira. 2014. urtean lehenengo aldiz, egoera ona lortu zen udaberrian, agorraldian egoera Moderatua mantendu zelarik. 2015. urtean egoera antzekoa da, egoera ona udaberrian eta Moderatua agorraldian, baina IBMWP balio altuagoekin. Hobekuntza hori 2016. urtean islatu da; izan ere, bi kanpainen zatiko uren egoera ona izan da, eta agorraldian indize biotikoaren maximo historikoa lortu da.




60. irudia. Kalitate biologikoaren denborarekiko eboluzioa. IBMWP indizea – Irura (Oria ibaia).

Lehenengo arrain-laginketa 1982an egin zen. Aurrerantzean, ez zen inbentariarik egin 1989ra arte. Laginketa bietan ez zen arrain-faunarik agertu. 1992tik aurrera, eta egunera arte, laginketak bi urtean behin egin dira. Urte horretan amuarrain-, ezkailu-, mazkar-, aingira- eta zamo ale txiki batzuk agertu ziren. 1994an espezie berak mantendu ziren, zamo txikia izan ezik. Gainera, barboa agertu zen, dentsitate txikiarekin edo oso txikiarekin, nolahi ere. Hurrengo urteetan loina kopuruak gora egin zuen eta dentsitate altuak lortu zituen. Barboaren presentzia ere handituz joan zen, eta dentsitate handiak lortu zituen. Halaber, ezkailu-, mazkar- eta aingira-populazioek presentzia garrantzitsua izan dute oro har, urtearen arabera. Gainera, amuarrain-ale gutxi batzuk harrapatu dira. Bestalde, noizbait zamo txikiko eta amuarrain ostadarreko ale batzuk ageri dira. Hala ere, 2014an populazioek behera egin zuten nabarmen, bereziki, loina- eta barbo-populazioek, aurreko laginketekin alderatuta. 2016an, hazkuntza txiki bat egon da. Oraingoan, arrain-komunitatea 6 espeziez osatuta egon da: amuarrainaz, barboz, loinaz, ezkailuz, mazkarrez eta aingiraz. Antzeman da barbo-populazioa berreskuratu dela aurreko urtearekin alderatuta. Loina-ale gutxi harrapatu dira, bestalde. Gainerako espezieek dentsitate txikiak dituzte, aurreko laginketetan bezala.




61. irudia. Arrain-faunaren bilakaera denboran zehar. Irura (Oria ibaia)

ANDOAINGo datu fisiko-kimikoen seriean, ikusten da uraren kalitateak hobera egin duela 1989-1990. urteetatik aurrera, Orian papergintzako isurketak gutxitu dira-eta. Orduetik aurrera, kutsadura organikoak nabarmen egin du behera, nahiz eta oraindik ere materia organikoa detektatzen den. Berriki, beste paper-industria batek utzi du bertan behera bere jardura; gainera, 2011ko amaieran, Adunako HUA jarri zuten abian. Aurreko urteetako egoerari dagokionez, 2012an amonio-maila handiak atzeman dira, baina ez dira arrainak bizitzeko mugatzaileak, araudiaren arabera. 2013. urtean, oster, ikusten da kutsadura organikoak behera egin duela zertxobait; era berean, oxigenazio- eta tenperatura-baldintzak nahiko egokiak dira, eta, beraz, egokitzen dira salmonidoentzat; hori datu positiboa da. 2016. urteak jarraipena eman dio aurreko urteetan detektatutako karga organikoari, eta salmonidoentzako egokitasuna egon da. Amonioak zein DQO-k honako urteko batezbestekoak izan dituzte: 0,13 mg/l eta 8 mg/l, hurrenez hurren.




62. irudia. Kalitate fisiko-kimikoaren denborarekiko eboluzioa (urteko batez bestekoak). Andoaín (Oria ibaia).

Era berean, kalitate biologikoak hobera egin du 1989-1990eko epealditik, eta urte horietan lortu dira IBMWParen baliorik txikienak. Hurrengo urteetan, puntuazio handixeagoak izan dira, baina maila apalekoak oraindik, 40 eta 70 artean nagusiki. Hortaz, egoera eskasa da kasu gehienetan. 2010. urtetik hobekuntza bat ikusi da; hala, 2010eko udaberriko kanpaina lortu da, lehenengoz, egoera biologiko ona. Ondorengo urteetan egoerak hobera egiten jarraitu du, egoera oso ona lortuz 2014ko udaberrian. Aurten, 2015. urtean, emaitzek egoera Moderatua adierazi zuten udaberrian, aldiz, agorraldian, eta lehenengo aldiz, egoera ona lortu da. Egoera hori mantendu egin da 2016an. Aipatu beharra dago agorraldian IBMWPren indizearen balioa serie osoan erregistratutako maximoa dela.




63. irudia. Kalitate biologikoaren denborarekiko eboluzioa. IBMWP indizea – Andoaín (Oria ibaia).

USURBILen, bokaletik gertuen dagoen estazioan, 1990. urtean papergintzako isurketak gutxitu izanaren ondorioz, uraren kalitatea hobetu da. Kutsadura organikoa nabarmen gutxitu da, baina oraindik ere bada karga organikoa. Hala, seriean, hainbatean gainditu du amonioak 1 mg/l-ko muga; beraz, ez dira ur egokiak arrainak bizitzeko. Ondoren, 2011. urtearen amaieran, Adunako HUA abiarazi zen, honek karga organikoaren beherakada ekarri duelarik azkeneko urteotan; hala ere, nolabaiteko kutsadura organikoa dago oraindik. 2011-2014 urteetako tartean amonioak 0,21 mg/l eta 0,38 mg/l arteko urteko batez bestekoa lortu zuen; kontzentrazio maximoei dagokionez, 0,72 mg/l eta 0,45 mg/l artean egon dira. Bestalde, temperatura altuak erregistratu dira, 21,5° C gaindituz, honek ziprinidoentzako urak direla adierazten duelarik, 2014. eta 2015. urteetan salbu, non temperatura baxuagoak bildu ziren, salmonidoentzako gaitasuna adieraziz. 2016an antzeko egoera antzeman da, eta kutsadura organiko pixka bat detektatu da. Nolanahi ere, bateragarria da arrainen bizitzarekin. Amonioaren urteko batezbestekoa 0,22 mg/l izan da, eta erregistratu den gehieneko kontzentrazioa pixka bat altua da, 0,75 mg/l. Zatia egokia da ziprinidoentzat; izan ere, ur-temperatura handitu egiten da udagaraian, eta zenbaitetan, arrainen bizitzarako Zuzentarauak ezarritako muga gainditzen du.




64. irudia. Kalitate fisiko-kimikoaren denborarekiko eboluzioa (urteko batez bestekoak). Usturbil (Oria ibaia).

Kalitate biologikoari dagokionez, ez dago aldakuntza handirik seriean. IBMWParen batez bestekoa 53 izan da udaberrian, eta 47 agorraldian. Balioak, nagusiki, 30-70 artean egon dira, eta egoera eskasari dagozkio gehienetan. 2013an halako hobekuntza atzeman da, eta serieko emaitzarik onenak lortu dira: IBMWPak lortutako puntuazioa egoera Moderatuari dagozkie. 2014. urteko balioak baxuagoak izan dira eta egoera eskasari dagozkie. 2015. urtean emaitzak ere apalak izan ziren, egoera eskasa lortuz udaberrian eta Moderatua agorraldian. 2016an, berriz, antza denez, egoera pixka bat hobetu da, kalitate moderatua egon denez bi kanpainetan. Hala ere, zati horrek oraindik ez ditu lortu UEZk ezarritako helburuak.




65. irudia. Kalitate biologikoaren denborarekiko eboluzioa. IBMWP indizea – Usurbil (Oria ibaia).

ARAXES ibaian, bokalean, paper-industriaren araberakoa izan da, hein handi batean, bilakaera. 1992. urtean, paper-orea fabrikatzeko lerroa itxi zen. Aurreko urteetako emaitza fisiko-kimikoek adierazten dute kutsadura handia dela, eta, urte horretatik aurrera, kutsadura maila nabarmen gutxitu da. Hala ere, oraindik badaude uraren kalitatea gutxitzen duten isurketak, eta inoiz arrainak hil ere egin dira horren eraginez. 2011. urtetik aurrera, kutsadura gutxitze bat detektatu da; beherakada aipagarria ikusi da amonio-kontzentrazioetan, baina oraindik ere kasuren batean gainditu da 1 mg/-ko muga, eta, beraz, ez dira ur egokiak arrainak bizitzeko. Hala, 2012. urtean, lortutako datu maximoa 2 mg/l izan da, eta urteko batez bestekoa, 0,31 mg/l. Alabaina, 2013an parametro horrek behera egiten jarraitu du, eta kasurik gehienetan detekzio-mailaren azpitik dago: datu maximoa 0,05 mg/l da, eta urteko batez bestekoa 0,03 mg/l. Horrenbestez, lehenengo aldiz serie historikoan, tartea egokia da salmonidoak bizitzeko, eta hori oso datu positiboa da. Egoera hori mantendu da egunera arte. Hala, 2016an ia ez da amoniorik detektatu (neurketa guztiak kuantifikazio-mugaren azpitik egon dira). Ondorioz, zatia egokia da salmonidoentzat.



66. irudia. Kalitate fisiko-kimikoaren denborarekiko eboluzioa (urteko batez bestekoak). Araxes ibaia.


Araxes ibaiak, Amaroztik igarotzean, aldaketa bortitza izan du kalitate biologikoan 1992. urtetik. Aurreko urteetan, papergintzako isurketek larri eragiten zioten makroornogabeen bizitzari, eta hori IBMWParen puntuazio txikietan islatu da, laginketa guztietan 10etik beherakoak izan baitira, are zero ere. Horrek egoera biologikoa txarra adierazten du. Paper-orea fabrikatzeari utzi izanari esker, egoera nabarmen onbideratu ahal izan da; baina ez behar beste eta, oraindik ere, egoera Moderatua/eskasa bitartekoa da. Kontuan izan behar da aldameneko industrialdeetan araztu gabeko isurketak egiten direla oraindik ere. 2013an, uraren kalitate biologikoa nabarmen hobetu da, batez ere agorraldian, aurreko urteekin alderatuz. Amaroztik auzoko ur zikinen saneamendu eta arazketarekin lotuta dago hori. Hala, udaberrian egoera Moderatua erregistratu da; agorraldian, berriz, serieko baliorik handiena lortu da alde handiz, alegia, egoera ona. 2014an, 2015ean eta 2016an hobekuntza hori finkatu da, eta urak kalitate ona izan du bi kanpainenetan. 2016an, IBMWPren indize biotikoak maximo historikoa lortu du, agorraldiko kanpainan.



67. irudia. Kalitate biologikoaren denborarekiko eboluzioa. IBMWP indizea – Araxes (Araxes ibaia).


7.2.5. UROLA IBAIAREN ARROA

Baldintza fisiko-kimikoei dagokienez, LEGAZPItik beherako uretan, serie historikoaren lehen erdialdean oso kutsadura-maila handiak ageri dira, eta hori ez da bateragarria arrainen bizitzarekin. 1999. urtetik aurrera, ikusi da kutsadurak nabarmen egin duela behera, saneamendua amaitu izanaren ondorioz. Honela, 2002. urtetik hona, amonioa ez da mugatzailea fauna iktikoarentzat; aldiz, zenbait kasutan salmonidoentzako altuak diren temperaturak erregistratu dira, ez ordea ziprinidoentzat. Azken urteei dagokionez, 2013 eta 2014. urteetan temperatura eta oxigeno baldintza egokiak erregistratu dira, baita karga organiko baxua ere, salmonidoentzako ur egokiak bilakatuz. 2015. urtean temperatura altuak behatu dira, aldiz, oxigenazioa egokia da eta ez dago apenas karga organikorik, hortaz, ur egokiak dira ziprinidoentzako. 2016an, berriz, ibaiaren temperatura orokorra berriz jaitsi da; gainerako ezaugarri fisiko-kimikoak, ostera, mantendu dira. Hori dela eta, zatia egokia da salmonidoentzat.




68. irudia. Kalitate fisiko-kimikoaren denborarekiko eboluzioa (urteko batez bestekoak). Legazpitik beherako urak (Urola ibaia).

LEGAZPIN IBAIAN BEHERA dagoen estazioko IBMWP datuek erakusten dute onbideratze txikia izan dela saneamendu-zerbitzua abian jarri denetik. Lanak 1999. urtean amaitu ziren, eta, beraz, ordutik aurrera hobekuntza nabarmena izan da. Urte hori baino lehen, IBMWParen balioak oso txikiak ziren guneretan, 10etik beherakoak, eta horrek muturreko kutsadura zegoela adierazten zuen. Halere, egoera biologiko txartzat hartu izan da. 2005etik aurrera halako goranzko joera atzeman da, baina beti maila oso apalean: kasu gehienetan, egoera eskasa izan da udaberrian, eta txarra agorraldian (2010eko udaberrian izan ezik; orduan ona izan zen uraren kalitatea). 2016an, bestalde, egoerak nabari egin du hobera, nagusiki, udaberriko kanpainen, eta ur-kalitate ona egon da. Hala ere, agorraldian arazoak ageri dira berriro (moderatua).




69. irudia. Kalitate biologikoaren denborarekiko eboluzioa. IBMWP indizea – Legazpitik beherako urak (Urola ibaia).

Arrain-faunak zati horretan erregistratutako kutsadura-baldintza latzak islatu ditu, eta ez zen faunarik egon 2000. urtera arte. 2002an ezkailu- eta amuarrain-ale batzuk harrapatu ziren lehenbiziz. Egoera hori antzeko mantendu da ondorengo laginketetan. 2008an beherakada antzeman zen; ez zen amuarrain-alerik harrapatu eta ezkailua oso eskasa zen. Gainera, mazkar-ale bat agertu zen. Espezie hori ez zen aurreko laginketetan agertu. 2010ean arrain-komunitatea amuarrain- eta ezkailu-ale gutxi batzuek osatuta egon zen. 2012an hobekuntza nabaria antzeman zen aurreko urteekiko. Amuarrain-populazioa nabarmen hazi zen, eta dentsitate handia lortu zuen. Gainera, ezkailu-populazio ugaria erregistratu zen. Hurrengo kanpaina, berriz, 2014an, amuarrain- eta ezkailu-populazio jaitsiera antzeman zen. 2016an detektatutako egoera pixka bat hobea da. Arrain-komunitatea 4 espeziez osatuta dago: amuarrainaz, ezkailuz, mazkarrez eta aingiraz. Ezkailua da espezierik ugariena, nabarmen, eta dentsitate handia lortu du. Bestalde, amuarrainak dentsitate txikia du. Mazkarrari eta aingirari dagokienez, ale solteak baino ez dira harrapatu.




70. irudia. Arrain-faunaren bilakaera denboran zehar. Legazpi ib. beh (Urola ibaia)

URRETXUn, serieak adierazten du urak oso kutsatuta daudela, Legazpi, Zumarraga eta Urretxu herrietako hiri- eta industria-isurketen ondorioz. 1999. urtean, okerrera egin zuen egoerak, batu egin baitziren laginketa-gunean gora egiten diren isurketak. 2001ean, Zuringoingo HUA jarri zen abian, Urretxun, eta, ordutik, kutsadura organikoa asko gutxitu da, pixkanaka-pixkanaka; hala ere, oraindik badago zerbait. 2009an, ikusi zen amonioak nabarmen egin zuela behera aurreko urteekin alderatuz; izan ere, balioak 1 mg/l-tik oso behera zeuden, eta lehenago muga hori aise gainditzen zen. 2010ean, amonioaren halako presentzia bat ikusi da, baina ez du gainditzen arrainak bizitzeko gaitasun-muga. 2011-2013ko epealdian, maila txikiagoak lortu ziren. Alabaina, 2014. urtean, amonioak behin gainditu du muga, beraz, ez dira ur egokiak arrainen bizitzarako. 2015. urtean amonio kontzentrazio esanguratsuak detektatu dira puntualki; aldiz, arrainen bizitzarako mugaren azpitik mantendu da. 2016an, kutsadura organiko puntuala detektatu arren, maila horiek ez dira arrainen bizitzarako mugatzaitzat jo. Horregatik, eta temperatura freskoei eta oxigenatze orokor onari esker, zati hori egokia da salmonidoentzat.




71. irudia. Kalitate fisiko-kimikoaren denborarekiko eboluzioa (urteko batez bestekoak). Urretxu (Urola ibaia).

Urretxuko estazioak serie okerrenetako bat izan du indize biotikoen puntuazioei dagokienez. 2001era arte, urte hori barne dela, IBMWParen balioak 10etik behera zeuden ia beti; beraz, egoera txarra zen. Gogoan izan behar da tarte horretan isurketa handiak izaten zirela eta horrek muturreko kutsadura sortzen zuela, harik eta 2001ean Urola Garairako Zuringoingo HUA abian jarri zen arte. Ordutik aurrera, uraren kalitateak hobera egin du, baina oraindik oso maila apalean; horrenbestez, egoera biologikoa eskasa da. 2011tik aurrera, nolabaiteko igoera detektatu da indize biotikoaren balioetan; halere, balio horiek egoera biologiko eskasari dagozkio oraindik ere kasurik gehienetan. 2016an egoera aldatu egin da kanpaina batetik bestera. Udaberrian ur-kalitatea moderatua da oraindik ere. Hala ere, agorraldian egoerak hobera egin du nabarmen, eta lortu duen IBMWPren balioak kalitate ona adierazten du; gainera, indize biotikoaren balio maximo historikoa lortu da.




72. irudia. Kalitate biologikoaren denborarekiko eboluzioa. IBMWP indizea – Urretxu (Urola ibaia).

AZKOITITIK IBAIAN GORA dagoen gunean, datu fisiko-kimikoen seriea irregularra da lehen erdialdean. Kutsadura-mailak baldintza hidrologikoen arabera aldatzen dira. 1989-1990eko epealdian, gai kutsatzaileen kontzentrazio handiagoak hauteman ziren, lehorre handi baten ondorioz. 1999. urtetik aurrera, beherakada progresiboa detektatu da kutsadura-mailetan – nabarmenagoak izan dira 2001. urtetik aurrera–, orduan jarri baitzuten martxan Zuringoango HUA. Hala, azken urteetan, emaitzak onak izan dira; eta urak, egokiak salmonidoak bizitzeko. 2016an, emaitza fisiko-kimiko onak lortu dira, eta zatia egokitzen jo da salmonidoentzat, arrain-egokitasuneko Zuzentarauaren arabera.




73. irudia. Kalitate fisiko-kimikoaren denborarekiko eboluzioa (urteko batez bestekoak). Azkoititik gora urak (Urola ibaia).

Indize biotikoen datuen serieak erakusten du hobekuntza argia izan dela 2001. urtetik aurrera, hau da, Zuringoango HUA abian jarri zenetik, eta hobetzen jarraitzen duela gaur egun. 1986. urtetik 2000. urtera arteko egoera biologikoa txarra izan da ia kasu guztietan. IBMWParen balioak 10 eta 42 artean ibili dira, kutsadura-maila handiaren ondorioz. 2001etik aurrera, Zuringoango HUA abiaraztearekin batera, hobekuntza nabarmena detektatu da; halere, egoerak eskasa izaten jarraitu du oro har. 2009. urtetik aurrera, seriearen goranzko joerak jarraitu du, eta indize biotikoaren geroz eta altuagoak dira. Izan ere, 2011ko udaberrian, lehenengoz lortu da egoera ona. 2013 eta 2014. urteetan hobekuntzak jarraitu egiten du, egoera ona edo oso ona lortuz kasu guztietan. Aldiz, 2015. urtean okerrera egin du, egoera Moderatua lortuz, bai udaberrian baita agorraldian ere. 2016an, berriz, kanpaina biek ageri dute kalitate biologiko ona.




74. irudia. Kalitate biologikoaren denborarekiko eboluzioa (urteko batez bestekoak). IBMWP indizea. Azkoititik gorako urak (Urola ibaia).

AZPEITiko estazioan, 1991. urtean Badiologiko HUA abian jarri izanaren ondorioz, aldaketa izugarria gertatu zen. Aurreko urteetan ikusitako kutsadura handia nabarmen gutxitu zen. 1989-1990eko epealdian, egoera okerragoa atzeman zen, lehorreak areagotu egin baitzituen kutsadura-arazoak. 1992. urtetik aurrera, kalitate fisiko-kimikoa ona izan da, eta egonkor eutsi dio. Hala, azken urteetan urak egokia izan dira salmonidoentzat, kasuren batean izan ezik, temperatura altuak mugatzaile izan baitira salmonidoentzat, nahiz eta ez ziprinidoentzat. 2016an, berriz, zatiak arazoak izan ditu amonioa dela eta. Beraz, ez da egokitzen jo arrainen bizitzarako; izan ere, 1 mg/l-ko kontzentrazioa behin gainditu da. Hala ere, urteko batezbestekoa ez da oso altua.




75. irudia. Kalitate fisiko-kimikoaren denborarekiko eboluzioa (urteko batez bestekoak). Azpeitia (Urola ibaia).

Indize biotikoen serieak kalitate fisiko-kimikoaren seriearen antzera eboluzionatu du. 1991. urtera arte (Badiolegiko HUA abian jarri zen urtea), indize biotikoen balioak oso txikiak ziren; egoera txarra zen ia kasu gehienetan. Urte horretatik aurrera, onbideratzen joan da IBMWParen puntuazioa, eta progresiboki egin du gora, nahiz eta beti nahiko maila apalean, egoera biologikoa eskasa izan baita oro har. 2006. urtean lortu dira emaitzarik onenak, egoera ona lortuz udaberrian eta Moderatua agorraldian. 2010. urtetik aurrera halako igoera atzeman da indize biotikoaren puntuazioetan, eta egoera Moderatua izanik nagusi, baina baita ere egoera ona zenbait kasutan. 2015ean eta 2016an, emaitzek kalitate moderatua ageri dute udaberrian eta ona agorraldian. Azken kanpaina horretan lortu da indize biotikoaren puntuazio maximo historikoa.




76. irudia. Kalitate biologikoaren denborarekiko eboluzioa (urteko batez bestekoak). IBMWP indizea. Azpeitia (Urola ibaia).

OIKINAN, papergintzako isurketen ondorioz, materia organiko ugari dago. Hala, DBOa, DQOa eta fosfatoek kontzentrazio handiak dituzte seriean, eta amonioaren presentzia, ostera, txikia da. Hala ere, azken urteetan egoera asko onbideratu da, papergintzako isurketen tratamendua hobetu izanaren ondorioz, nahiz eta oraindik badituen gabezia batzuk. Modu horren, halako karga organikoa detektatu da, bai eta nolabaiteko oxigeno-gabezia ere; eta, zenbaitetan, salmonido-espezieentzako mugatzaileak diren tenperatura altuak. 2013. urtean, amonioaren datua ohi baino altuagoa izan da, araudiak ezarritako 1 mg/l-ko muga gainditu baita; beraz, ez da egokia arrainak bizitzeko. Halaber, tenperaturaren muga gainditu da, 21,5 °C, eta nolabaiteko oxigeno-gabezia detektatu da. Horrez gain, fosfato-kontzentrazio handiak ikusi dira. 2014. urtean, kutsadura organikoaren adierazleak kontzentrazio baxuak dituzte, eta, gainera, tenperatura- eta oxigenazio-baldintzak ez dira mugatzaileak; hortaz, tartea egokia da salmonidoentzat. 2015. urtean tenperatura altuak erregistratu dira, ziprinidoentzako gaitasuna erakutsiz. Gainontzekoan, nolabaiteko karga organikoa detektatu da, nahiz eta ez den bateraezina arrain-bizitzarekin. 2016an, ostera, tenperaturek ez dituzte 21,5° C gainditu urtean zehar, eta Zuzentarauak tenperatura hori ezarri du salmonidoen garapen normalerako. Gainera, oxigenatzea ona da eta kutsadura organikoa oso txikia. Hori dela eta, zatia berriz ere egokitzen jo da salmonidoentzat.



77. irudia. Kalitate fisiko-kimikoaren denborarekiko eboluzioa (urteko batez bestekoak). Oikina (Urola ibaia).


IBMWParen serieak adierazten du kutsadura-arazo handiak daudela. Seriearen hasieran, balio nahiko altuak lortu ziren. Baina, berehala, beherakada larria izan zen indize biotikoen puntuazioetan; beherakada hori progresiboki gertatu zen, eta emaitzarik txarrenak 1997tik 1999ra bitartean lortu ziren, hain zuzen ere 3 eta 17 arteko puntuazioak. Era berean, 1989tik 2003ra, IBMWParen batez bestekoa, agorraldian, 19 izan zen, eta balio horrek kutsadura handia dagoela adierazten du. Epealdi horretan, egoera txarra izan zen ia kasu gehienetan. 2004. urtetik aurrera, nolabaiteko hobekuntza ikusi zen, baina oraindik ere puntuazio apalak ziren oro har, eta egoera eskasa adierazten zuten kasu gehienetan. Aipatzekoa da 2009. urtea, IBMWParen puntuaziorik altuenak lortu baitziren orduan: egoera ona udaberrian eta Moderatua agorraldian. 2011n ere egoera ona lortu zen udaberrian; agorraldian, aldiz, txarra. 2012-2014 epean emaitzek egoera Moderatua eta eskasa agertu zuten. 2015. urtean IBMWP balio altuago erregistratu da udaberrian, egoera oso ona lortuz; aldiz, agorraldian, egoera guztiz aldatzen da, egoera txarra izanik kasu honetan. 2016an kalitatea moderatua izan da bi kanpainetan. Emaitza hauek, papergintza industriako isurketek uraren kalitate biologikoan duten eraginaren islapen dira.



78. irudia. Kalitate biologikoaren denborarekiko eboluzioa (urteko batez bestekoak). IBMWP indizea. Oikina (Urola ibaia).


7.2.6. DEBA IBAIAREN ARROA

Deba ibaiaren datu fisiko-kimikoen serieak adierazten du urak oso kutsatuta daudela SAN PRUDENTZIOan. Kutsaduraren adierazle diren parametro fisiko-kimikoek kontzentrazio handiak dituzte; bada alderik urte batetik bestera, baina joera zehatz bat dago. Azken urteetan, gune horretatik gorako uretan metatu egiten da Eskoriatzako, Aretxabaletako eta Arrasateko hondakin-urak biltzen dituen kolektorearen isurketa. Horixe da Gipuzkoako ibai-sareko gunerik kutsatuenetako bat. Hala ere, 2012. urtean, Epeleko HUA jarri zen abian, eta kolektorea araztegi horri konektatu zaio. Horren ondorioz, hobekuntza nabarmena izan da, baina oraindik ere kutsadura handia dago. Kutsaduraren adierazle diren parametroek balio altuak dituzte, baina 2011n ikusitakoak baino txikiagoak dira. Izan ere, 2012an amonioaren urteko batez bestekoa 2,63 mg/l izan zen, eta 2011n, oster, 9,46 mg/l zen. DBO₅-ak eta DQOak ere balio altuak izan zituzten 2012an (urteko batez bestekoak: 8 eta 30 mg/l), 2011rekin alderatuz (urteko batez bestekoak: 18 eta 56 mg/l). Gainera, oxigenazioak nabarmen egin zuen hobera: 2012an urteko batez bestekoa 9,05 mg/l izan zen; eta 2011n, 6,00 mg/l. Hurrengo urteetan kutsadura organikoak behera egiten jarraitu du, eta 2014an, zatia salmonidoentzako egokitzat jo zen. 2015ean, zatiak kutsadura organikorik ia ez bazuen ere, udako tenperatura altuek bizitza salmonikola baldintzatu zuten, ez, berriz, ziprinikola. 2016an, 2 urte lehenagoko egoera errepikatu da. Parametro guztiek salmonidoen bizitzarako balio egokiak izan dituzte.




79. irudia. Kalitate fisiko-kimikoaren denborarekiko eboluzioa (urteko batez bestekoak). San Prudentzio (Deba ibaia).

Metalei dagokienez, mailak progresiboki gutxitu dira seriean. Lehenengo erdialdean kontzentrazio altuak lortu dira; 2007tik aurrera, oster, metalen kontzentrazioa minimoa da. 2016an azken urteetako joera mantendu da, eta kontzentrazio txikiak erregistratu dira. Horrela, burdinari, zinkari eta nikelari dagokienez, honako urteko batez besteko hauek lortu dira, hurrenez hurren: 0,03, 0,01 eta 0,004 mg/l.




80. irudia. Metalen kontzentrazioen denborarekiko eboluzioa. Urteko batez bestekoak eta joerak. San Prudentzio (Deba ibaia).

Bestalde, seriean lortutako kalitate biologikoak ere kutsadura handia dagoela adierazten du, Eskoriatzako, Aretxabaletako eta Arrasateko isurketen eraginez. Seriean egoera biologiko txarra atzeman da, eta IBMWParen balioak 10etik beherakoak izan dira ia kasu guztietan. 2012aren hasieran, Epeleko HUA jarri zen martxan –isurketa horiek tratatzen dituen araztegia– eta, horren ondorioz, hobekuntza nabarmena izan zen, agorraldian 80ko balioa ere lortu baitzen, hau ra, egoera Moderatua. 2013an, egoera eskasa atzeman da, eta 60-70 arteko puntuazioak lortu dira. 2014an, lehen aldiz lortu zen kalitate moderatua adierazten duen IBMWPren balio bat. Baina hurrengo kanpainen kalitatea txarra zen berriro ere. Horrela mantendu zen 2015era arte, baina 2016ko udaberriko kanpainen hobetu egin da berri. Kasu honetan, maximo historikoarekin (96) eta unera arteko egoera ekologikorik onenarekin: kalitate ona. Agorraldian moderatura jaitsi da, baina indize biotikoaren balioa kalitate ona eta kalitate moderatuaren arteko mugatik gertu egon da.




81. irudia. Kalitate biologikoaren denborarekiko eboluzioa (urteko batez bestekoak). IBMWP indizea. San Prudentzio (Deba ibaia).

BERGARAN, URETAN BEHERA dagoen estazioak ur oso kutsatuak izan ditu seriean. Kutsaduraren adierazle diren parametroek oso kontzentrazio handiak dituzte. Kutsadura-mailetan dauden aldakuntzak aldaketa hidrolagikoekin lotuta daude, itxuraz. 1989-1990eko epealdiko lehorte handiaren ondorioz, kutsatzaileen kontzentrazio handiagoak izan ziren. Hurrengo urteetan ez da atzeman beheranzko joerarik. 2012an, nolabaiteko hobekuntza detektatu arren, oraindik kutsadura-maila handia zen. Hala, 2012. urtean, amonioaren urteko batez bestekoa 1,00 mg/l izan zen, eta 2011n, berriz, 2,66 mg/l-ko datua lortu zen. 2013an, egoerak hobera egin du, eta kutsadura asko jaitsi da aurreko urtearekin alderatuta. Amonioak kontzentrazio txikietan jarraitzen du, maiz detekzio-mailaren azpitik; urteko batez bestekoa 0,08 mg/l izan da. Era berean, DBO₅-ak eta DQOak balio txikiak dituzte: 1 eta 12 mg/l, hurrenez hurren. Oxigenazioa egokia da (urteko batez bestekoa: 10,43 mg/l). Aldiz, temperatura balio handietara iritsi da, eta 21,5 °C-ko muga ere gainditu da (max.: 22,8 °C); beraz, ez da egokia salmonidoentzat, baina bai ziprinidoentzat. 2014. urteko egoera antzekoa da, salbu eta temperaturaren kasuan; izan ere, temperaturak 21,5 °C-tik beherako balioei eusten dienez, ur egokiak dira salmonidoentzat. 2015. urtean amonioak behin gainditu du arrainen-bizitzarako muga. DBO₅ eta DQO ere kontzentrazio altuak izan dituzte, 4 eta 69 mg/l, hurrenez hurren. Honela, uraren temperatura altuak erregistratu dira, 24,1° C-ko maximekin. 2016an, ordea, Zuzentarauak zatiaren arrainak sailkatzeko ezarritako parametroek adierazi dute bizitza salmonikolarako baldintza fisiko-kimiko onak daudela. Argi dago azkeneko urteetako hobekuntza lotuta dagoela Epeleko HUA abiarazi izanarekin.




82. irudia. Kalitate fisiko-kimikoaren denborarekiko eboluzioa (urteko batez bestekoak). Bergaratik beherako urak (Deba ibaia).

Metalei dagokionez, beherakada nabari da serie historikoan, 1993. urtetik aurrera. Beherakada hau ez da hain nabarmena San Prudentzian, hasierako datuak ez baitira hain altuak izan. Azken urteetan metalak maila baxuan mantendu dira. Hala, 2016an aurreko urteetako antzeko kontzentrazioak erregistratu dira, eta honako hauek dira ondorengo elementuen urteko batez bestekoak: Ni (0,005 mg/l), Zn (0,03 mg/l), Fe (0,03 mg/l), eta Cu eta Cr kuantifikazio-mugaren azpitik.




83. irudia. Metalen kontzentrazioen denborarekiko eboluzioa. Urteko batez bestekoak eta joera - Bergararik beherako urak (Deba ibaia).




84. irudia. Metalen kontzentrazioen denborarekiko eboluzioa. Urteko batez bestekoak eta joera - Bergararik beherako urak (Deba ibaia).

Kalitate biologikoari dagokionez, oro har oso baxua izan da seriean. Hasieran, IBMWParen puntuazioak oso txikiak dira, 20tik beherakoak, eta 10etik beherakoak ere kasu askotan. 1999. urtetik aurrera, hobekuntza apala ikusten da, balioak 20 eta 40 artean baitabilta nagusiki; halere, egoera biologikoak txarra izaten jarraitzen du. 2008tik aurrera halako hobekuntza igarri da, eta egoera eskasa atzeman da kasu gehienetan. Kontuan hartu behar da 2008an abiarazi zela Mekolaldeko HUA. 2013an azken urteetan baino puntuazio handiagoak lortu dira, agorraldian serieko daturik altuena lortu baita, alegia, egoera biologiko Moderatua. Deba ibaiaren goiko aldean, uraren kalitatea hobetu egin da Epeleko HUA abiarazi zenetik, eta, horri esker, datuak hobekuntza dira. 2014. urteko datuak apalak dira, eta egoera eskasari dagozkio. Aldiz, 2015. urtean, hobekuntza leuna nabari da, emaitza oso onak lortuz, non egoera ona erregistratu den bai udaberrian baita agorraldian ere. Serie osoko IBMWPren balio handienetako bat da. 2016an, berriz, arazoak detektatu dira berriro; kalitatea moderatua izan da bi kanpainetan.




85. irudia. Kalitate biologikoaren denborarekiko eboluzioa (urteko batez bestekoak). IBMWP indizea. Bergararik beherako urak (Deba ibaia).

MENDAROn, bokaletik gertuen dagoen estazioan, emaitza fisiko-kimikoek adierazten dute kutsadura organiko handia egon dela seriean. Egoera aldatu egiten da urtearen arabera, baina joera jakin bat ikusten da. 1990. urtean, kutsatzaileen kontzentrazioak handiagoak izan ziren, orduan lehorte handi bat gertatu zen-eta. Gerora, karga organikoa handia izan da ere bai. 2007. urtetik aurrera, kutsadura organikoa zertxobait gutxitu dela ikusi da, baina oraindik ere handia da. 2009. urtetik aurrera, amonioa jadanik ez da mugatzailea arrainen bizitzarako, aurreko urteetan ez bezala; izan ere, 1 mg/l-ko mugatik behera dago, eta egokia da ziprinidoentzat, tenperatura- eta oxigeno-baldintzak eskasak direlako. Egoera hori gaur egunera arte errepikatu da, urtearen arabera zenbait aldaketa egon badira ere. 2016an, oxigenatzea ona izan arren, tenperatura altua da salmonidoentzat; ez, ordea, ziprinidoentzat. Amonioak ez ditu balio mugatzailerik lortu, baina lortu duen maximoak (0,87 m/l) kutsadura handia adierazi du. DBO₅fen eta DQOren maximoek (15 eta 18 mg/l, hurrenez hurren) ere kutsadura organikoko aldiak adierazi dituzte.




86. irudia. Kalitate fisiko-kimikoaren denborarekiko eboluzioa (urteko batez bestekoak). Mendaro (Deba ibaia).

IBMWP indizeak puntuazio baxuak lortu ditu seriean: udaberrian, batez bestekoa 39 izan da; eta agorraldian, 37. Goranzko joera ikusten da, baina beti oso maila apalean. Seriearen lehen erdialdean, egoera biologiko txarra da nagusi; halere, 1998tik aurrera egoera eskasa da. Azken urteetan, halako hobekuntza igarri da; 2012an, lehen aldiz, egoera Moderatua atzeman da udaberrian. Bestalde, 2013ko udaberrian lortu zen serieko daturik handiena, alde handiz, egoera ona lortuz. 2014. urtean IBMWParen puntuazioak apalak izan dira, egoera Moderatua eta eskasa behatuz. Kalitate-jaietsiera hori 2015eko udaberrian nabarmendu zen, 2010etik daturik txarrena izan zuen eta. Horrek uraren kalitate biologiko txarra adierazi zuen. Hala ere, urte bereko agorraldian berreskuratu zen (kalitate moderatua). Antzaenez, berreskurapen hori berretsi da 2016an, bi kanpainen ur-kalitate ona egon baita. Urte bereko kanpaina biek ezarritako helburuak lortu dituzten lehen aldia izan da.




87. irudia. Kalitate biologikoaren denborarekiko eboluzioa (urteko batez bestekoak). IBMWP indizea. Mendaro (Deba ibaia).

EGO ibaia da Gipuzkoako kutsatuenetako bat, eta emaitza fisiko-kimikoek adierazten dute kutsadura handia egon dela seriean. Oszilazioak badira urte batetik bestera, baina kutsatzaileen kontzentrazioa beti da handia. 2007tik aurrera, ikusten da kutsadura-mailak nabarmen egin duela behera, baina oraindik handia da. 2016an kutsadura organikoko maila altuak mantendu dira. Hala, amonioaren urteko batezbestekoa 1,74 mg/l izan da. Bestalde, DBO₅k eta DQOk 5 eta 16 mg/l-ko batezbestekoak erregistratu dituzte, hurrenez hurren. Hortaz, ur horiek ez dira egokiak arrainak bizitzeko.



88. irudia. Kalitate fisiko-kimikoaren denborarekiko eboluzioa (urteko batez bestekoak). Ego (Ego ibaia).


Metal-kontzentrazioa gutxitu egin da seriean, eta azken urteetan maila txiki samarrak atzeman dira, 2002. urtean izan ezik, urte hartan izan baitziren serie osoko baliorik handienak. 2003. urtean, kontzentrazioak gutxitu eta 2002a baino lehen atzemandakoen antzekoak izan ziren. 2007. urtetik aurrera, ikusten da metal-kontzentrazioak behera egin duela aurreko urteekin alderatuta. Hona hemen 2016 urteko batezbestekoak: Fe (0,03 mg/l), Zn (0,06 mg/l), Cr (0,003 mg/l) eta Ni (0,003 mg/l).



89. irudia. Metalen kontzentrazioen denborarekiko eboluzioa. Urteko batez bestekoak eta joera - Ego (Ego ibaia).

Kalitate biologikoa, ostera, oso txikia da Ego ibaiaren gunen horretan. Emaitzek mugako kutsadura adierazten dute serie historikoan zehar. IBMWP indizeari dagokionez, balio minimoak aurkeztu ditu, 10etik behera orokorrean, zeinak egoera txarra adierazten duen. Azkeneko urteetan, 2008. urtetik aurrera, nolabaiteko hobekuntza nabaritu da; aldiz, egoera oso txarra da

oraindik ere, egoera biologiko txarra erregistratuz. 2015. eta 2016. urteetan emaitzak leunki hobek dira, egoera eskasa lortuz udaberrian eta agorraldian.



90. irudia. Kalitate biologikoaren denborarekiko eboluzioa (urteko batez bestekoak). IBMWP indizea. Ego (Ego ibaia).

8. ONDORIOAK

- 1985ean, **GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO** Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua Gipuzkoako ibaietako uraren kalitateari buruzko jarraipen-lan bat egiten hasi zen. Azterketa horren barnean, honako alderdi hauek ikertu dira: kalitate fisiko-kimikoa, kalitate biologikoa (makroornogabe bentikoetan oinarritutako indize biotikoak erabilita), ekoizpen primarioa (klorofila bentoniko eta planktonikotik abiatuta), diatomeoen azterketa eta arrain-faunaren egoera. 2016. urtean, Gipuzkoako ibai-sarean zehar dauden 88 estazio ikertu dira. Halaber, Gipuzkoako ibai eta urtegiatan zebra muskuilu helduen presentzia jarraipen bat egiten da, baita ere, ibai ubideetan metatutako sedimentuetako metal astunen jarraipen bat.
- **2015-2016 urte hidrologikoa** *normalizat* jo da ekarpenei dagokienez. Ur-emaria neurtzeko estazio ezberdinetako datuen arabera, aurreko urtean baino nahiko ekarpen txikiagoak jasotzen ditu. Aurreko urtea, bestalde, serieko urterik hezeenetako bat izan zen. Arro gehienetan erregistratutako urteko batez besteko emariak serie historikoko emarien antzekoak edo pixka bat txikiagoak izan dira. Hilabeterik emaritsuen martxoan izan da, eta ohikoan baino emari handiagoak izan ditu. Bestalde, udako hilabeteek izan ohi dute emaririk txikiena. Zehazki, abuztuaren daude emaririk txikiak. 2015-2016 urte hidrologikoaren beste ezaugarri bat da lehenengo hiruhilekoan ekarpen gutxi jaso dituela oro har, bereziki, urrian eta abenduan. Azken hori “oso lehortzat” jo daiteke, eta hori ez da oso ohikoa Gipuzkoako lurralde historikoan.
- **BIDASOA** ibaian, Endarlatsatik igarotzean, nahiz **ENDARA** errekan, parametro **fisiko-kimiko**ek balio egokiak izan dituzte, beraz, egokiak dira salmonidoentzat. Era berean, makroornogabeen emaitzek adierazten dutenez, kalitate biologikoa ona izan da estazio bietan.

BIDASOA ibaiko ur-kalitatearen **behin-behineko eboluazioak** egoera ona eman du aditzera, hortaz, gehienetan urak egokiak dira salmonidoentzat. Halaber, indize biotikoek balio altuak izan dituzte oro har, eta horiek kalitate ona edo oso ona adierazten dute orokorrean.

- **OIARTZUN** ibaiko goi-ibarrean baldintza **fisiko-kimiko** onak erregistratu dira. Arditurri errekarrekin bat egiten duenetik aurrera, egoera aldatu egin da Arditurriko meategia zaharretatik zink ugari dator eta. Horregatik, Ergoien mugatzailea da salmonidoentzat, ez berriz, ziprinidoentzat. Gainerako parametroek balio egokiak dituzte. Ugaldetxon eta Fanderian zinkaren presentzia antzeman da ere bai, baina kontzentrazio txikiagoetan. Hortaz, bateragarriak dira salmonidoekin.

Bestalde, **kalitate biologikoa** oso ona edo ona da ia beti Oiartzun ibaian, Fanderian izan ezik. Bertan kalitate moderatua dago udaberrian zein agorraldian. Arrain-faunarekin lotuta, Ergoien amuarraina da espezie nagusia, eta dentsitate handia du. Ezkailuak dentsitate handia du, aingirak, berriz, eskasa. Esan daiteke egoera nahiko ona dela. Ezkailua da espezie nagusia Fanderian, eta dentsitate handia lortu du. Amuarrainak, mazkarrak eta aingirak dentsitate txikia dute. Platuxa- eta korrokoi-ale urri detektatu dira. Hala ere, izokin basatiko ale bat harrapatu da, eta horrek esan nahi du espeziea naturalki ugaltu egin dela azkeneko urtean.

OIARTZUN arroko saneamendua ia bukatuta dago, eta, horren ondorioz, uraren kalitateak **behin-behineko eboluzio** positiboa izan du. Hala, Ugaldetxon ur-kalitatearen hobekuntza nabaria antzeman da, 1999an kolektore nagusia abiarazi zenetik, eta gaur egun emaitza

onak lortu ditu. Fanderian berreskurapena txikiagoa da, Lintzirin erreka ekarpen kutsatzaileen ondorioz. Edonola ere, azken urteetan isurketen zati bat bildu da, eta modu horretan erreka apur bat berreskuratu da; ondorioz, baita Oiartzun ibaiko beheko zatia ere. Serie historiko guztian zehar, Oiartzun ibaiak arrain-berreskuratze handia izan du. Oiartzun ibaiko arroa erabat berreskuratzeak esan nahi du beheko eremuan sortzen diren isurketa guztiak desagertu direla. Duela gutxi saneamendu-saioak egin dira Lintzirin errekan. Gainera, metal-ekarpena gutxitu beharko litzateke Arditurritik. Bestalde, iragazkortasunari eta ibai-habitatari dagokionez, Gipuzkoako Foru Aldundiak zenbait saio egin ditu, eta, beraz, bide horretan jarraitu behar da.

- **URUMEA** ibaia, lortutako emaitza fisiko-kimikoek adierazi dutenaren arabera, salmonidoentzako egokia da luzera guztian. Era berean, kalitate biologikoa altu mantentzen da ardatz guztian zehar, nahiz eta Karabeleko beheko zatian eta Ergobin kutsadura-aldiak egon diren. Hala eta guztiz ere, emaitzek **kalitate biologiko** ona eta oso ona adierazi dute ia kasu guztietan, agorraldian eta udaberrian azken bi estazioetan izan ezik; horietan kalitatea moderatua baita. **Arrain-faunari** dagokionez, Karabelen egoera on samarra da. Nabarmengarria da izokin basatiaren dentsitate altua. Aingirek eta ezkailuek ere dentsitate handia dute. Halere, amurarrain-populazioa urria da. Zati horretan bertan korrokoa eta platura ere aurkitu dira.

Landarbaso ibaiadarrari dagokionez, emaitza fisiko-kimikoek, baita biologikoek ere, ur-kalitate altua adierazi dute. Aurten aztertu diren erreka espezifikoekin lotuta, **Urruzunoko** egoera fisiko-kimikoak adierazi du salmonidoentzako egokia dela. **Latxe** erreka ere ur-kalitate fisiko-kimiko ona du. Nolanahi ere, eutrofizazio arazoren bat detektatu da. **Urnieta eta Antziola** erreketan kutsadura organikoko maila altua detektatu da, batez ere, amonioari dagokionez, baina baita fosfatoei ere. **Añorga** egokia da salmonidoentzat, oxigeno-defizita detektatu arren; emaitza biologikoek adierazi dute udaberrian egoera urria dela, eta, agorraldian, ordea, apur bat hobea, moderatua.

Urumea ibaiko ur-kalitatearen **behin-behineko eboluzioa** positiboa izan da, saneamendua ia-ia amaituta dago eta. Hala, Karabelen IBMWPren indize biotikoak puntuazio altuak lortu ditu, gainera, izokinak puntu horretan arrabatu du 1994tik. Ergobian, kalitate kimikoa nabarmen hobetu da, ondorioz, azken urteetan salmonidoentzako egokia da. Kalitate biologikoa ere hobetu da azken urteetan, nahiz eta batzuetan IBMWPren puntuazio txikiak erregistratu diren (horrek adierazi du isurketa zuzenak daudela). Nabarmendu beharra dago berriki saneamendu-lanak egin direla Urumeako beheko zatiaren inguruan kokatutako nukleo txikietan. Urumearen etorkizuna ona da. Isurketak bilduta daude hein handi batean. Halaber, jarraitutasuna arrain-pasabideak sortu eta erreka errespetatu zirelako hobetu zen. Edonola ere, iragazkortasuna eta ubidea kentzea hobetu beharreko alderdiak dira. Egiteko dauden saneamendu-saioekin jarraitu behar da. Bestalde, ibai-habitata aldatzeak, obren, egindako bideratzeen eta etorkizuneko obren ondorioz, alderdi negatiboa dakar.

- Emaitza **fisiko-kimikoen** arabera, **ORIA** ibaian Zegamako zati altua baino ez da egokia salmonidoentzat. Beasaindik gorako uretan, pH-a gehienez 9,1 da, eta hori bateraezina da arrainak bertan bizitzearekin. Gainerakoa, uda-garaian jasotako tenperatura altuen ondorioz, bereziki, egokitzen jo da ziprinidoentzat. Gainera, oxigeno-defizit apur bat dago ardatz nagusiaren zati handi batean. Ordiziako, Ikaztegiako, Araxesko (ibaian gora) eta Usurbilgo tarteei kutsadura organikoko aldiak dituzte, nahiz eta arrainen bizitzarako kontzentrazio mugatzaileak ez egon.

Kalitate biologikoari dagokionez, udaberriko kanpainan IBMWPren puntuazio altuak erregistratu dira zenbait alditan, horrenbestez, goi-ibarrean oso kalitate ona du (Zegama) eta ona gainerako 6 aldietan (Segura, Beasaindik gorako uretan, Ordizia, Ikaztegieta, Irura eta Adunako HUAtik beherako uretan). Honako 5 estazio hauetan kalitate biologiko moderatua

erregistratu da: Beasainen, Igartzan, Legorretako HUAtik beherako uretan, Araxestik ibaian gora, Andoainen eta Usurbilen. Bestalde, agorraldian egoera antzera mantentzen da. Aurreko kanpainarekin alderatuz, 3 aldaketa gertatu dira: Adunako HUAtik gorako uretan kalitateak okerrera egin du (moderatu); Araxestik gorako uretan eta Andoainen, berriz, kalitatea hobetu egin da, eta moderatua izatetik ona izatera pasa da. Ibaiaren gainerako zatia kalitate biologiko berean mantendu da.

Arrain-faunari dagokionez, Seguran arrain-komunitatea honako hauez osatuta dago: amuarrainaz, loinaz, ezkailuaz eta mazkarrak. Mazkarrak oso dentsitate altua du, eta loinak eta ezkailuak ere dentsitate altua dute. Amuarrain-populazioa, ordea, eskasa da. Ordizian 4 arrain-espezie ageri dira: barboa, loina, ezkailua eta mazkarra; horiek guztiak ugariak dira. Azkenik, arrain-komunitatea honako espeziez hauez osatuta dago: amuarrainaz, barboz, loinaz, ezkailuz, mazkarrak eta aingiraz. Ikusi da barbo-populazioan nolabaiteko berreskuratzea egon dela. Lona-ale gutxi harrapatu dira, bestalde. Gainerako espezieek, ohikoa izaten den moduan, dentsitate urria dute.

Ibaiadarrei dagokienez, Troi ibaia, Mutiloatik beherako uretan, ez da egokia arrainak bizitzeko; izan ere, oxigeno-defizit handia dago. Horrez gain, fosfatoak eta amonioak eragindako kutsadura ere detektatu da. Makroornogabe-analisiak islatu du egoera hori, eta, analisi horren arabera, uraren kalitate biologikoa txarra eta urria da. Urtsuan erreka oso kalitate fisiko-kimiko ona du. Agauntza ibaian emaitza fisiko-kimikoek adierazi dute urak egokiak direla salmonidoentzat. Bestalde, emaitza biologikoek adierazi dute egoera ona dela udaberrian nahiz agorraldian. Eztanda ibaiak, Troya meategitik beherako uretan, tenperatura altuak lortu ditu, ondorioz, ziprinidoentzako egokia da. Era berean, oxigeno-defizita ere detektatu da. Alabaina, Ormaiztegiko zatiak salmonidoen bizitzarako baldintza egokiak ditu. Hala ere, emaitza biologikoek ibai guztian zehar oso egoera ona dagoela adierazi dute, ur-kalitate ona edo oso onarekin. Santa Luzia ibaiadarrek beheko zatian tenperatura altu mugatzaileak ditu salmonidoentzat, ez, berriz, ziprinidoentzat. Kalitate biologikoari dagokionez, emaitza txikiak lortu dira, egoera moderatu bati islatzen dutenak. Arriaran erreka kalitate fisiko-kimiko altua du, beraz, egokia da salmonidoentzat. Era berean, kalitate biologiko bikaina du. Amundarain ibaia egokia da ziprinidoentzat, udako tenperatura mugatzailea baita salmonidoentzat. Ez da kutsadura organikoa detektatu, aurreko laginketetan bezala. Emaitza biologikoek udaberrian kalitatea oso ona dela adierazi dute, eta agorraldian, aldiz, ona. Amezketa ibaian, analisi fisiko-kimikoen emaitzek adierazi dute Bedaioko goiko zatia arrainak bizitzeko zatia ez dela egokia. Ibaiaren zati horretan, amonio bidezko kutsadura handia dago, baita fosfato bidezkoa ere, baina neurri txikiago batean. Kalitate biologikoari dagokionez, indize biotikoak adierazi du urek kalitate moderatua izan dutela bi kanpainetan. Alegiako zatia egokia da salmonidoentzat. Kalitate biologikoari dagokionez, udaberrian ona da, eta, agorraldian, ostera, moderatua. Bestalde, Salubita erreka egoera fisiko-kimikoa aztertu da. Lortutako emaitzen arabera, egoera oso ona da. Araxes ibaiari dagokionez, bokalean, egokia da ziprinidoentzat, udako tenperatura mugatzailea izan daitekeelako salmonidoentzat. Analisi biologikoak egoera ona adierazi du bi kanpainetan. Emaitza fisiko-kimikoen arabera, Berastegi ibaia egokia da salmonidoentzat, Ibaratik igarotzen denean. Aspektu biologikoaren inguruko egoera oso ona da bi kanpainetan. Villabonatik igarotzen den Asteasu ibaia ere egokia da salmonidoentzat. Egoera hori kalitate biologikoan islatzen da, ur-kalitate onarekin udaberrian nahiz agorraldian. Azkenik, Leitzaran ibaiaren bokalean emaitza fisiko-kimikoek adierazi dute urak salmonidoentzako egokiak direla. Era berean, emaitza biologikoak onuragarriak dira, laginketako bi kanpainetan kalitate ona egon da eta.

ORIA ibaian, ur-kalitatearen **behin-behineko eboluzioa** positiboa da, eta kutsadura-maila nabarmen jaitsi da. Zenbait faktorek lagundu diote ur-kalitatea berreskuratzeari: paper-jatorrizko isuriek nabarmen behera egiteak, saneamenduko fase batzuk abiaraztea eta urtegiak erregulatzeagatik emariak hazteak. 2003an Gaikaoko HUA Legorretan abiarazteak

goiko zatia nahikotxo hobetu zuen, hala ere, uraren kalitatea ez da nahikoa, ibaira zuzenean doazen isurien ondorioz. Halaber, erdi-beheko zatian, kutsadura-maila nabarmen jaitsi da, nolabaiteko karga badago ere. Egoerak hobetzen jarraitzea espero da, saneamendua bukatuta dagoelako ia-ia, 2011ren amaiera aldetik Adunako HUA abian da eta. Oriaren arloan itxaropen onak daude. Saneamendu- eta arazketa-planak oso egikaritze-fase aurreratuan daude, eta oraindik konpondu behar dira zenbait nukleo txiki eta industria-gune, udal-saneamenduko sareak hobetzeaz gain. Aintzat hartu behar da egoera trofikoa; izan ere, temperatura altuek eta intsolazioak, mantenuaiekin batera, eutrofizazio-fenomenoak sor ditzakete. Horren ondorioz, mantenugaien tratamendua optimizatu egin beharko da HUAetan, zehazki, fosforoarena. Halaber, plan osagarri batzuk egin beharko dira, hala nola habitata hobetzeko, itzaldura, oztopoak kentzeko... GFA alderdi horiek lantzen ari da dagoeneko. Gainera, kontuan hartu behar da inguruko abeltzaintza-jarduera, eta haren hondakinak ondo kudeatu behar direla.

- **UROLA** ibaian lortutako datu fisiko-kimikoek egoera fisiko-kimiko onak adierazi dituzte oro har. Estazio denak egokitzat jo dira salmonidoentzat, Urretxuko HUAtik gorako uretan izan ezik; izan ere, urak dituen temperatura altuak direla medio, egokitzat jo da ziprinidoentzat, bai eta Azpeitikoa izan ezik ere, amonioak sortutako kutsadura handia dela medio, ez baita egokia arrainak bizitzeko. Halaber, oxigeno-urritasuna antzeman da agorraldian, bai eta fosfato-kontzentrazio handiak ardatzean ere.

Kalitate biologikoari dagokionez, oro har esan daiteke 2016ko agorraldi-egoera udaberrikoa baino hobea izan dela. Udaberrian, Brinkolak ur-kalitate bikaina du. Legazpin (ibaian gora eta behera), Azkoitian (ibaian gora), Lasaon eta Aizarnazabalen ere emaitza onak lortu dira, kalitate onekoak. Gainerakoek ez dituzte ezarritako helburuak lortu. Urretxuko HUAtik gorako uretan egoera txarra da; eta Urretxun, Aizpurutxon, Azpeitian, HUAtik beherako uretan, Zestoatik beherako uretan eta Oikinan kalitatea moderatua da. Agorraldian, berriz, bakarrik Legazpitik beherako uretako, Urretxuko HUAtik beherako uretako, Aizpurutxoko eta Oikinao estazioek egoera irregularra dute. Gainerakoek egoera ona edo oso ona.

Arrain-faunari dagokionez, Brinkolako arrain-komunitatea espezie bakarrekoa da, eta amuarrain-populazio ugari osatzen da. LEGAZPitik beherako uretan, arrain-komunitatea amuarrainaz, ezkailuz, mazkarrez eta aingiraz osatuta dago. Ezkailua da espezierik ugariena, eta dentsitate handia lortu du. Amuarrainak dentsitate txikia du. Mazkarrari eta aingirari dagokienez, ale solteak baino ez dira harrapatu. Datu horien arabera, egoera txarra da zatian. Badiologiko HUAtik beherako uretan, 6 arrain-espezieko aleak ageri dira: amuarraina, barboa, loina, ezkailua, mazkarra eta aingira. Loina oso ugaria da. Ezkailuak ere dentsitate ugaria du, mazkarrak, ostera, txikia. Gainerako espezieak urriak dira. Azkenik, Aizarnazabalen 6 arrain-espezie daude: amuarraina, barboa, loina, ezkailua, mazkarra eta aingira. Loina da espezie nagusia eta oso dentsitate handia du. Ezkailu-populazioa urria da. Gainerako espezieak urriak dira. Horrek guztiak egoera erlatiboki ona dela adierazten du.

Ibaiadarrei dagokienez, Barrendiola erreka oxigeno-defizit txiki bat du, beraz, ez da egokia salmonidoentzat, ziprinidoentzat, berriz, bai. Egoera biologikoaren inguruan, egoera ona antzeman da bi kanpainetan. Arrain-faunari dagokionez, antzeman da amuarrain-populazioa txikitu egin dela aurreko kanpainekin alderatuta, eta dentsitate pixka bat ahula duela. Ezkailuak eta mazkarrak ere dentsitate pixka bat ahula dute. Bestalde, Ibaieder ibaia egokia da salmonidoentzat, luzera osoan. Oso egoera biologiko ona antzeman da ere bai, eta bi kanpainetan oso kalitate biologiko ona lortu da Ibaieder presatik beherako uretan; Landetan, berriz, kalitate ona lortu da. Amaierako zati horretan, amuarrain-, barbo-, loina-, ezkailu-, mazkar- eta aingira-aleak harrapatu dira. Ezkailua, mazkarra eta loina dira espezierik ugariena, eta dentsitate handiak dituzte. Gainerako espezieek, berriz, dentsitate txikiak edo

oso txikiak dituzte. Errezil errekan ere laginak hartu dira, eta emaitzak oso onak izan dira, maila fisiko-kimikoari zein maila biologikoari dagokienez.

UROLAren arroan saneamendua eginez, kutsadura-maila nahikotxo jaitsi da, beraz, ur-kalitatearen **behin-behineko eboluzioa** positiboa da. Goiko zatian, 2001ean Zuringoaineko HUA abiarazi zenean, kutsadura-maila nabarmen jaitsi zen, eta horrek aukera eman zuen kalitate biologikoa berreskuratzeko, bai eta aurretik ez zegoen arrain-fauna ere. Bestalde, erdiko zatian, Badiologiko HUA 1991n abiarazi zen. Une horretatik aurrera ur-kalitatea pixka bat hobetu zen. 2009an antzeman zen beheko zatian egoera hobetu zela, paper-isuriaren tratamendua zela medio. Hala ere, hurrengo urteetan ez ziren emaitza egokiak lortu. Saneamendua ia-ia bukatuta dago UROLAren arroan. Horrek esan nahi du egoerak positiboki eboluzionatu duela. Hala ere, zenbait zati ez dira espero beste berreskuratu, zuzeneko isuriak egiten dira eta. Alderdi horiek konpondu ahala egoera hobetzea espero da. Gainera, beste faktore batzuen efektuak aztertu behar dira, hala nola mantenugaiak (ibai-habitataren egoera eta oztopoen presentzia). GFAk alderdi horien inguruko zenbait jarduketa eta proiektu egin ditu dagoeneko.

- **DEBA** ibaiko kalitate **fisiko-kimikoa** hobetu egin da azkeneko urteetan. Saneamenduak ondo funtzionatzen duenez, Deba ibaia salmonidoentzako egokia da ia zati guztian, amaieran izan ezik; izan ere, udako tenperatura altuen eraginez, erregistratutako maximoek Elgoibar eta Mendaroko beheko zatiak jo dituzte egokitzen ziprinidoentzat.

Kalitate biologikoari dagokionez, goi-ibarreko zatia, Leintz, ondo kontserbatuta dago, eta kalitatea oso ona eta ona da, hurrenez hurren. Aretxabaletan, ibaian gora, egoera asko hobetu dela ikusi da aurreko urtekoekin alderatuta, eta ur-kalitatea ona/moderatu erregistratu da. Arrasateko emaitzak onak dira, bi kanpainetan kalitatea on mantendu da eta. San Prudentzian, udaberrian, kalitatea mantendu egin da, baina agorraldian okerrera egin du kalitateak, moderatu izatera iritsi arte. Halere, Matxiategin eta Bergaratik beherako uretan kalitatea ez da berreskuratu. Kanpaina biek uraren kalitatea Moderatu adierazi dute. Ibaia gainerako zatia egoera onean dago, Soraluzekoa izan ezik. Bertan, moderatu da kalitatea agorraldian.

Arrain-faunari dagokionez, Leintzen amuarrain-populazioak dentsitate altua du. Gainera, ezkailu-ale gutxi batzuk harrapatu dira. Egoera ona da, goi-ibarreko zati batek beharko lukeena. Bestalde, Epeleko HUA abiarazi zenetik San Prudentzian ikusitako hobekuntza aurrera doa. Hala, aurten oso dentsitate altuak lortu dituzte mazkarrak eta ezkailuak. Halaber, amuarrain- eta aingira-ale batzuk harrapatu dira, eta hori oso positiboa da. Matxiategin, Deba ibaia Bergaratik igarotzean, hobekuntza nabaritzen da. Arrain-komunitatea honako espezie hauez osatuta dago: amuarrainaz, loinak, ezkailuz, mazkarrez eta aingiraz. Oso dentsitate altuak lortu dituzte loinek, ezkailuek eta mazkarrek. Elgoibartik beherako uretan, ezkailuak, loinak, mazkarrak, amuarrainak eta aingirak aurkitu dira, eta loinen eta ezkailuen dentsitate-maila altua da. Gainerako espezieek dentsitate baxua dute.

Ibaiadarrei dagokienez, Aramaio ibaiak salmonidoentzako ur egokiak ditu. Kalitate biologikoari dagokionez, egoera ona antzeman da udaberrian eta ona agorraldian. Arrain-komunitatea ezkailu-populazio handi batez osatuta dago. Halaber, mazkarrak dentsitate handia du. Gainera, amuarrain-ale batzuk harrapatu dira. Oñati ibaiak, Arantzazuko estaziotik gorako uretan, oxigeno-defizita du, ondorioz, urak egokiak dira ziprinidoentzat. Hala eta guztiz ere, Zubillagan eta Tabesa zubian baldintza hobekuntza antzeman dira, salmonidoentzako egokiak. Horrez gain, emaitza biologikoek adierazi dute ibaian zehar egoera oso antzekoa dela udaberrian nahiz agorraldian. Udaberrian Tabesa zubiko uraren kalitatea moderatu salbu, gainerako laginketek egoera ona adierazi dute. Arrain-faunari dagokionez, aurten Tabesa zubian laginketak egin dira, eta ezkailu-populazio handia aurkitu da. Gainera, amuarrain-ale batzuk harrapatu dira dentsitate txikian. Beraz, aurreko urteetan

antzemandako hobekuntza berretsi da, eta, gainera, egoerak hobera egiten jarraitzea espero da. Antzuola errekan, kutsadura organiko altua bateraezina da arrainen bizitzarekin. Emaizta biologikoek ur-kalitate moderatua adierazi dute. Klorofila bentikoaren eta planktonikoaren analisiak hipereutrofia eta oligotrofia adierazi ditu, hurrenez hurren. Bestalde, Ubera errekan datu fisiko-kimikoek adierazi dute bertako urak egokiak direla salmonidoentzat. IBMWPren emaitzek kontrako bi egoera agertu dituzte. Udaberrian uraren kalitatea ona da, agorraldian, berriz, eskasa. Arrain-faunari dagokionez, Elgetatik beherako uretan ezkailu- eta mazkar-populazioek oso dentsitate altua dute. Gainera, amuarrain-ale batzuk harrapatu dira. Aixola erreka urak kalitate fisiko-kimiko ona du, eta egokia da salmonidoentzat. Emaizta biologikoei dagokienez, egoera oso onuragarria dela antzeman da, eta bi kanpainetan oso kalitate oneko urak erregistratu dira. Ego ibaian, azken urteetan kutsadura-maila jaitsi egin da, hala eta guztiz ere, oraindik ere maila altua du. Beraz, bateraezina da arrainen bizitzarekin zati altuenean (Ermuan, ibaian behera) edota bokalean. Era berean, emaitza biologikoak desegokiak dira, Ermuko estaziotik beherako uretan kalitate biologikoa moderatua da, eta bokalean eskasa. Azkenik, Mijoa ibaiadarrean, amonioa nabaria da, beraz, bateraezina da arrainen bizitzarekin. Emaizta biologikoak egoera problematiko bat dakarte, ur-kalitate txar eta eskasa, hurrenez hurren.

DEBA ibaiko ur-kalitatearen **behin-behineko eboluzioak** metal-edukiaren jaitsiera progresiboa adierazi du, industriak arazketa-sistemak jarri zituelako eta hondakin toxikoak eta arriskutsuak kudeatzen dituelako. Halaber, azkeneko urteetan kutsadura nabarmen jaitsi dela antzeman da, saneamendu- eta arazketa-azpiegiturei esker. Saneamendu-obren egikaritze-egoera oso aurreratua dago. 2012an, Epeleko HUA abiarazi zen, eta Deba Goienerako hondakin-urak tratatzen ditu. Epele HUAren aurretik, Mekolaldeko HUA (Bergaran, 2006an) eta Apraitzeko HUA abiarazi ziren. Azken horrek beheko zatiko isuriak tratatzen ditu. DEBAren arroko itxaropenak positiboak dira ur-kalitatea hobetzeari dagokionez. Bestalde, adierazi behar da Deba ibaiko habitata asko degradatu dela. Ibaiertzak oso aldatuta daude, eta ibilguan hainbat oztopo daude. Horren ondorioz, berreskuratze-gaitasuna mugatuta dago.

9. ARROEN GAINKO AURREIKUSPENAK ETA PROPOSAMENAK

Lehen aipatu den bezala, 2000ko urriaren 23ko 2000/60/EE Zuzentaraua onartu izanak funtsezko aldaketa ekarri zuen uraren kudeaketan Europar Batasunean. Zuzentaru horren bidez, erkidegoko esparruan uraren politikaren arloan nola jardun ezarri zen. Lehen, kudeaketa eskariari erantzuteko egiten zen; Zuzentaru horrek, ordea, uraren kontsumo jasangarria sustatzen du, ura erabiltzeak dituen ondorio ekologikoak eta ingurumen-inpaktuak kontuan hartuta. Beraz, UEZk ezartzen duenaren arabera, estatu kideek, zuzentaru hau onartu zenetik beranduenez hamabost urteko epean, neurriak ezarri behar dituzte azaleko uren eta urpeko uren egoera ona lortzeko. Halaber, ingurumen-helburu orokorrak ezartzen ditu urak behar bezala babesteko.

Helburu orokor horiek helburu espezifikoko bihurtu behar dira ur-masaren egoeraren adierazgarri diren adierazleentarako, baldintza naturaletatik asko ez aldentzeko, hau da, egoera ekologiko on bat lortzeko. Hala, ingurumen helburu espezifikokoak hiru epigrafe hauetan sailkatzen dira:

- Adierazle biologikoekin zerikusia duten ingurumen-helburuak
- Adierazle fisiko-kimikoekin zerikusia duten ingurumen-helburuak
- Adierazle hidromorfologikoekin zerikusia duten ingurumen-helburuak

Oso eraldatuak dauden ur-masen kasuan helburuak ahalmen ekologiko ona lortzeko ezartzen dira.

Helburu horiek lortzeko UEZk plan hidrológicoak idatzi behar direla ezartzen du, aldizka berrikusi beharrekoak. Hori dela eta, osorik berrikusi behar izan da estatu kideek ordura arte egin izan duten plangintza-prozesua. Alde horretatik, estatu mailan UEZ estatuko legedira ekartzeko, ordura arte uraren esparruan zegoen estatuko legedia (TRLA) aldatu eta moldatu egin behar izan zen, eta, hala, Plangintza Hidrológicoaren Araudia (RPH) eta Plangintza Hidrológicoaren Instrukzioa (IPH) egokitu ziren.

EAEko plangintza hidrológicoari dagokionez, urtarrilaren 14ko 29/2011 Errege Dekretuak ezartzen duenarekin bat, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoak EAEko barne arroak (autonomia-erkidegoaren eskumenekoak) eta EAEko itsasertzean isurtzen duten autonomia-erkidegoen arteko arroak (estatuaren eskumenekoak) hartzen ditu. Halaber, aipatutako Errege Dekretu honek ezartzen du Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoa administrazio publiko eskudunen plan hidrológicoak eta neurrien programak modu harmonikoan bateratuz egingo dela.

Hala, ekainaren 7ko 400/2013 Errege Dekretuaren bidez, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Plan Hidrológicoa onartu zen. Plan horren barruan, Neurrien Programa Bateratu bat dator, eta hor zehazten da zer lan egin beharko diren UEZk ezarritako helburuak lortzeko. Gainera, burutu da UEZak 6 urteroko zikloan egitera behartzen duen berrikuspena, hortaz, onartuta dago planifikazioaren bigarren zikloa (2015-2021) urtarrilaren 8ko 1/2016 Errege Dekretuaren bitartez.

Neurrien Programa Bateratu honek barne hartzen ditu besteak beste aldaketa fisiko-kimikoek eta aldaketa hidromorfologikoek ingurune hidrikoan izaten dituzten eraginekin loturiko neurriak. Aldaketa fisiko-kimikoen kasuan, EAEko Saneamendu eta Arazketa Plana (2015) garatzea proposatzen du; plan horretan kontuan hartzen da UEZren kalitate-helburuen ikuspegi berria eta *hiritako ur zikinen tratamenduari buruzko 1991ko maiatzaren 21eko 91/271/EEE* Zuzentaruaren arabera definitutako saneamendu-plangintzak eta oraindik burutu gabeak berrikusteko betebeharra. Hala, plan honetan oraindik egiteko dauden oinarrizko azpiegiturak identifikatu eta horien aurrekontua egiten da, baita Uraren Esparru Zuzentaruak ezarritako ingurumen-helburuak lortzeko neurri osagarriak ere.

Aldaketa hidromorfologikoei dagokienez, Neurrien Programak barne hartzen ditu ur-emari ekologikoen erregimenak betetzeko jarduketak, azaleko ur-masak hobetzeko eta onbideratzeko neurriak eta ibaien konektagarritasuna hobetzeko neurriak. Horretarako, EAEko Ekosistema Urtarrak Lehengoratzeko Plan Zuzentzailea idaztea aurreikusten du, ekosistema horiek babestea eta lehengoratzea helburu duten plan eta programetarako etorkizuneko erreferentzia-esparru gisa.

Ondoren, Gipuzkoako arro hidrologikoen gaur egungo egoera eta aurreikuspenak aztertzen dira, eta proposamenak egiten dira, Esparru Zuzentzarauak ezartzen dituen jarraibideen arabera. Horretarako, egoera lau ataletan aztertzen da:

- Uraren kalitatea
- Erregimen hidrologikoa
- Ibaiaren luzetarako jarraipena
- Baldintza hidromorfologikoak

9.1. URAREN KALITATEA

Aurreko ataletan aipatu denez, saneamenduko eta arazketako oinarritzko azpiegiturak eginda daude ia-ia. Eskualdeko Ur Zikinen Araztegi guztiak eraikita eta martxan daude. Halaber, kolektore-sarea oso egikaritze-fase aurreratuan dago. Urtetik urterako arro hidrologikoen analisiak adierazi du ur-kalitatea nabarmen hobetu dela denboraren poderioz, alderdi guztiei dagokienez. Halere, oraindik konpondu behar da zenbait nukleo txikiren eta industrialdeen saneamendua, eta udal-sareak hobetu behar dira.

Jarraian, Gipuzkoako ibaietan uraren kalitatearen egoera hobetzeko beharrezkoak diren proposamenak azaltzen dira:

- Lehendabizi, sare nagusiko arazketa- eta saneamendu-lanak osatu eta amaitu, industrialde eta herrigune berriak arazketa-sistemetara kokatzeko. Halaber, herrigune txiki eta industrialde ugari konpondu behar dute beren uren saneamendu eta arazketaren alderdia.
- Gaur egunean martxan dauden arazketa-sistemak hobetu, Uraren Esparru Zuzentzarauak ezarritako ingurumen-kalitatearen helburu berrien eskakizunetara moldatu ahal izateko.
- Ibai-ibilgura egiten diren isurketen inbentarioak egin behar dira arro bakoitzean, eta, horrez gain, isurketa horien ezaugarriak zehaztu eta beharrezko neurriak hartu, esate baterako, kolektore orokorrarekin lotu edo arazketa-sistema espezifikoak finkatu.
- Industria-isurketei dagokienez, efluenta egokitu beharko da, tratamendu espezifikoaren bitartez kolektorearekin lotu ahal izan dadin. Gainera, kontuan hartu behar da elementu toxikoen presentziak negatiboki eragin diezaiokela araztegien tratamendu biologikoari.
- Oria ibaiaren arroko Amezketa eta Berastegi ibaietan, bai eta Urola ibaiaren behe-ibilguan ere, paper-fabrikek egiten dituzten isurketen arazoa konpondu egin behar da.
- Hiri eta industria-jatorria duten isurketez gain, badira nekazaritza eta abeltzaintzatik datozen isurketak ere, eta uraren kalitate ekologikoari nabarmen eragin diezaiokete. Horrelako isurketak eragozteko irtenbideak jarri behar dira.
- Kutsadura zehaztugabeak sortzen dituen arazoak ekiditeko neurriak hartu behar dira; izan ere, arazo hori gero eta gehiago ari da agertzen, saneamendu eta arazketarako oinarritzko azpiegiturak egin ahala.

- Arditurri errekaren kasuan (Oiartzun ibaiaren arroa), Arditurriko meategietatik datorren zink-ekarpena murrizteko beharrezkoak diren neurriak hartu beharko dira (toxikoa da uretan bizi diren organismoentzat).
- Araztegi-tako efluenteen mantenugai-kopurua ere murriztu egin behar da, eutrofia-arazorik gerta ez dadin.
- Herrietako saneamendu-sarea hobetu egin behar da, hiri-isurketen bilketa optimizatzeko eta kanpoko euri-urak udal eremu urbanizatura ez sartzeko.

9.2. ERREGIMEN HIDROLOGIKOA

Ur-emarien erregimena egokia izatea funtsezkoa da ibaietako ekosistemak ondo funtzionatzeko; ibaietako ekosistema artikulatzen eta egituratzen duen elementua da. Erregimen hidrologikoaren urte barruko eta urte arteko aldakuntza-tarte osoa, bai eta horri atxikitako urtarokotasun, iraupen, maiztasun eta aldaketa-tasaren ezaugarriak ere, erabakigarriak dira biodibertsitate naturalari eta ekosistema urtarren osotasunari eusteko. Aldagai hidrologiko eta hidraulikoek eta prozesu biologikoek elkarri eragiten diote, eta, hala, ekosistema zer espeziek osatzen duten eta osagai bakoitzak zer funtzionaltasun duen kontrolatzen da; beraz, ur-emarien erregimen naturalaren funtsezko alderdiak babestu edo lehengoratu behar dira ibaietako biodibertsitatea eta funtzionaltasuna kontserbatzeko.

Gipuzkoan, aprobetxamendu ugari daude ibai-sarean banatuak; horien helburua da, batik bat, hirietako eta industrietako hornidura, ekoizpen hidroelektrikoa (zentral txikiak) eta indar eragilea (errotak).

GFAk egindako inbentarioen arabera, Oria ibaiaren arroan beste inon baino aprobetxamendu gehiago dago martxan: guztira 66, eta horietatik 63 oraindik ere martxan daude. Horren atzetik Deba ibaiaren arroa dago, hor ere aprobetxamendu kopuru handia baita, guztira 55; Urola ibaiaren arroan, berriz, 21 daude. Beste alde batetik, Urumea eta Oiartzun ibaien arroetan 13 eta 6 ikusi dira, hurrenez hurren.

Zentral hidroelektrikoek alterazio larriak eragiten dizkiote erregimen hidrologikoari oro har, bideratutako ur-emariaren arabera eta bideratze horrek erasandako ibai-luzeraren arabera. Aprobetxamendu horiek ur-emarian eragindako urritze horrek ur-ibilguan dabilen emaria larri murriztea dakar; izan ere, kasu askotan ibaiaren ur-emari naturalaren oso azpitik egon ohi da, eta horrek eragozpen nabarmenak eragiten dizkio ibaiko ekosistemaren funtzionamenduari. Gipuzkoan zentral hidroelektriko asko dago martxan, guztira 63.

Erabilera hidroelektrikorako erabiltzen den ur-emaria oso handia da, are urteko batez besteko ekarpena baino handiagoa; zentral hidroelektrikoak seriean kokatuta daudelako gertatzen da hori, hots, ibaian gora kokatutako beste zentral-txiki batek turbinetatik igaroarazitako emaria erabiltzen dutelako. Horrela, Urumea ibaiaren arroan, ur-baliabidearen erabilera-portzentajea, urteko batez besteko ekarpenarekiko, % 151 da, Deban % 108, eta Oria eta Urola arroetan % 86 eta % 53, hurrenez hurren; Oiartzun ibaiaren arroan, berriz, % 7 besterik ez da. Zentral gehien duten arroak Oria (23), Deba (14) eta Urumea (12) dira, eta gero datoz Urola (10), Oiartzun (2) eta Bidasoa (2). Azpimarratzekoak dira Leitzarain, Añarbe eta Arantzazu ibaiak, izugarri eragiten baitzaie bideratutako ibai-luzerari dagokionez, hain zuzen ere, % 60tik gora; Urumea eta Araxes ibaiek ere portzentaje handiak dituzte, % 30 eta % 40 bitartean.

Bestalde, arro batean hiri-hornidurarako erabilitako urteko batez besteko ekarpenaren portzentajeak aldakorrak dira: minimoa % 2 da, Oria ibaiaren arroan, eta maximoa % 10,

Urumea ibaiaren arroan. Industria-hornidurari dagokionez, portzentaje horiek % 1 eta % 4 artean dabilta, Deba ibaiaren arroan eta Oiartzun ibaiaren arroan, hurrenez hurren.

Erregimen hidrologikoaren alterazioa hobetzeko eta ibai-tarte askotan sortzen den ur-emariaren eskasia konpontzeko, ibaiaren erregimen hidrologiko naturaletik ahalik eta hurbilen dauden emari-baldintzak sortzera jo behar dugu. Horretarako, ondorengo oharrak hartu beharko dira kontuan:

- Zentral hidroelektrikoek errespetatu egin behar dute finkatutako emari ekologikoa. Emari ekologikoen ibaiaren hidrograma naturalera egokitu behar dute. Alde horretatik, indarrean dagoen Plan Hidrologikoak, aurreko plan hidrologikoetan barneratutako emari ekologikoen ereduaren orde, eredu dinamikoagoak ezartzen ditu, UEZk ezarritako egoera ekologiko onaren helburuak lortzeko. Modu horretara, gutxieneko emari batzuk ezartzen ditu, Emari Ekologiko Modularraren metodologiatik abiatuta. Hori aplikatuko zaie bai etorkizuneko aprobetxamenduei eta bai jadanik martxan dauden aprobetxamenduei.
- Aprobetxamendu hidroelektrikorako emaria erabiltzeko jarduera desegokiak ezabatu egin behar dira, hala nola “enbolatuak”.
- Hondakin-uren araztegiak abian jartzeak ur-emari eskaseko egoerak eragin ditzakete, batez ere goi-ibarretan. Eskasia hori ur-emaria emanez konpentsatu beharko da. Irtenbide bat ibaian gora dagoen HUAren efluentetik ura ponpatzea da, Urola ibaiaren goi-ibarrean Zuringoingo HUAren egiten den moduan. Kasu hauetan kontuan hartu behar da efluente horrek zenbateko mantenuz edukia duen eta ahal den neurrian hori murriztu, eutrofizazio-arazoak eragozteko.
- Kudeaketa-eredu zehatzak egin beharko lirakeke urtegietan, agorraldian gutxieneko ur-emariak bermatuko dutenak eta Kantauri isurialdeko arroetan ohikoak diren ur-emari handiak simulatuko dituztenak. Kasu honetan indarrean dagoen Plan Hidrologikoan ezarritako emari minimo eta maximoak ustiapen mota hauei ere zuzendua dago.

9.3. IBAIAREN LUZETARAKO JARRAITUTASUNA

Ekosistema urtarren kalitateari eragiten dioten faktoreetako bat, hain zuzen ere, ibaien jarraitutasuna da, hau da, espezie urtarrek libreki gorantz nahiz beherantz ibili ahal izateko ibaiak duten gaitasuna; era berean, sedimentuen zirkulazioak ere librea izan behar du.

Oztopoen presentzia eragozpen handia izaten da ibaietako ekosistemarekin loturiko espezie batzuen mugimendu eta migrazioetarako, esate baterako, arrain-faunarentzat. Gipuzkoako ibaietan 5 espezie ditugu migrazio anfihalinoak egiten dituztenak: kolaka, izokina, itsas amuarraina, aingira eta lanproia. Horiez gain, badira beste arrain-espezie batzuk ere mugimendu garrantzitsuak egiten dituztenak, ugalketa-garaian batik bat, hala nola amuarraina, baina berez migrazio izatera iristen ez direnak. Gorantzko mugimendu eta migrazioei eragiten dieten oztopoz gain, beherantzko mugimenduetan dituzten ondorioak ere garrantzitsuak dira. Zenbait aprobetxamendutako ekipamendu-emari handiak oso erakargarriak dira beherantzko migratzaileentzat, eta, kanalean sartzen den emariak eragiten duen xurgatze-indarraren ondorioz, bertan sartu eta gero ziurrenik turbinetaraino iritsiko dira, bertan hiltzeko arrisku handia dutela. Halaber, oztopo horiek ur-pilaketak sortzen dituzte ibaian gora, eta ibaietako ekosistemaren dinamika eraldatzen dute.

Gipuzkoako Lurralde Historikoan oztopo ugari dago. Horietako asko presak dira, eta horietatik gehienak ez dira erabiltzen gaur egun. GFAk arro bakoitzean dauden oztopoen inbentarioa egin du, eta, hala, ardatz eta ibaiadar nagusietan 700 bat inguru erregistratu dira. Horrekin batera,

GFA iragazkortze-plan bat prestatzen ari da; oztopoa eraisteko edo iragazkortzeko (arrainentzako eskalak, aldapak...) proiektu ugari daude jada idatziak eta, halaber, jada jarduera asko egin dira, 50 inguru.

Bestalde, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoari dagokion indarrean dagoen Plangintza Hidrologikoak proposatutako Neurrien Programa Bateratuak ibaiaren konektagarritasuna hobetzeko neurriak ezartzen ditu, presak eraistea eta iragazkortasuna bermatzea, esaterako.

Oiartzun ibaiaren arroan 38 oztopo jaso dira inbentarioan (22 presa txiki: 7 erabiltzen ari dira), eta horietatik gutxi gorabehera erdiek iragazkortasun txarra dute. GFAk 6 jarduera egin ditu interes handieneko izendatutako presa txikietan, eta, horri esker, arroaren iragazkortasuna nabarmenki hobetu da. Gainera, jada hainbat proiektu idatzita dauzka.

Urumea ibaiaren arroan 99 oztopo erregistratu dira (60 presa txiki: 15 erabiltzen ari dira), eta horietatik erdiek baino zertxobait gehiagok iragazkortasun txarra dute, eta 20 inguruk iragazkortasun Moderatua. Ardatz nagusian dauden 7 presa txikiek arrainentzako eskala dute; halere, horren funtzionaltasuna ez da egokia, egindako iragazkortasun-azterketetatik ondorioztatu den moduan. Beste alde batetik, orain berriki Mendarako presa txikia eraitsi da, eta, horren bidez, Urumeako tarte garrantzitsu baten jarraitutasuna berreskuratu da. Egun, arro honetako iragazkortasuna hobetzeko helburuarekin zenbait proiektu idatzen ari dira.

Oria ibaiaren arroan egindako inbentarioan 221 oztopo topatu zituzten (172 presa txiki: 63 erabiltzen ari dira). Oztopoen erdiak ez dira iragazkorak, eta % 20k iragazkortasun Moderatua dute. Arrainentzako eskala duten 30 presa txiki inguru daude (gehienak zentral hidroelektrikoenak, baita beste industria batzuenak ere), baina, dena den, denek ez dute funtzionaltasun egokia. Gainera, GFAk 16 iragazkortze-jarduera inguru egin ditu, eta, era berean, beste 20 bat proiektu ditu jada idatzita. Beste alde batetik, Uraren Euskal Agentziak 2 iragazkortze-jarduera egin ditu eta Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak 6 iragazkortze-jarduera egin dituzte. Aipatzekoa da Leitzaran ibaian eginiko lana, Inturiako presaren eraistearekin, non 12 metro baino altuagoko oztopoa ezabatu den, baita beste presa batzuk ere; honekin, iragazkortasuna nabarmenki hobetu da, aldiz, honelako ekintzak burutzen jarraituko da.

Urola ibaiaren arroari dagokionez, 78 oztopo identifikatu dira (58 presa txiki: 20 erabiltzen ari dira), eta horietatik erdiek baino gehiagok iragazkortasun txarra dute. GFAREN iragazkortze Planaren barruan 18 jarduera burutu dira, eta irtenbideak askotarikoak izan dira: arrainentzako eskala, aldapa, dikeak, presa txikia eraistea, alboko kanala. Gainera, gutxienez 10 proiektu ditu idatziak, eta, beraz, alde horretatik aurreikuspenak oso onak dira.

Azkenik, **Deba** ibaiaren arroan 233 oztopo daudela egiaztatu zen (169 presa txiki: 51 erabiltzen ari dira), eta horietatik erdiek baino gehiagok iragazkortasun txarra dute. Arrainentzako eskalak dituzten 5 presa txiki daude, eta horietatik bat bakarrik jotzen da funtzionaltzat. Egun, arro honen iragazkortasuna hobetzeko zenbait proiektu daude martxan.

Ibaiaren luzetarako jarraitutasuna hobetzeko proposamenei dagokienez, hauek izango genituzke:

- Aurrera jarraitzea Gipuzkoako Foru Aldundia oztopoak suntsitzeko edo arrain-faunarentzako igarobideak eraikiz horiek egokitzeko egiten ari den planarekin (ondo artezen eskalak, aldapak, dikeak, alboko kanalak...).
- Iragazkortze-lehentasan batzuk finkatzea, lehenik eta behin eta ahal den neurrian, onbideratzeko interesik handiena duten tarteak iragazkortzeko helburuarekin. Egun, GFAk ibai-ekosistemen Lehengoratze Plana prestatu du, non Jarduketa Plana garatu

den Gipuzkoako ibaietan, GFAak hurrengo urteetan burutuko dituen berreskurapen planak biltzen dituen, horietako asko ibaietako iragazkortasuna hobetzera bideratuak.

- Erabiltzen ari diren aprobetxamenduak izanez gero, titularrak arduratu beharko du arrainentzako igarobideetako baliabideak eraikitzeaz eta mantentzeaz. Era berean, emakidaren baldintzak bete beharko dituzte.
- Erabiltzen ari ez diren aprobetxamenduak izanez gero, emakiden iraungipena sustatu beharko da, eta, hala egokituz gero, oztopoa suntsitzeko/iragazkortzeko aukera aztertu.
- Goranzko igarotze-sistemez gain, beheranzko migrazioako sistema eraginkorrak instalatu beharko dira (saretak, hesi elektrikoak, soinu-hesiak...), uretako fauna bideratze-kanaletan sar ez dadin.
- Arrainentzako igarotze-sistemek espezie guztietara egokitu behar dute, bai salmonido eta ziprinidoetara eta bai angilidoetara ere, igarobide berezien bitartez (alboko kanalak, zati baten suntsitzeak...) edo igarobide bereziak egokituz, aingira igarotzeko esate baterako, "eskuila" moduko bideekin.
- Arrainentzako eskalak eta horietan instalatutako baliabideak (saretak eta abar) mantentzeko eta garbitzeko lanak egin behar dira, une oro horien funtzionaltasuna bermatzeko.
- Egun dauden igarotze-sistemen (arrainentzako eskalak...) eraginkortasuna balioetsi beharko da, eta, iragazkorra ez baldin badira, fauna urtarraren lekualdaketak bermatzeko beharrezkoak diren neurriak hartu beharko dira. Alde horretatik, hainbat iragazkortasun azterketa egin dira Urumea eta Oria ibaien arroetan dauden arrainentzako eskaletan; kasu batzuetan iragazkortasun txarra detektatu da, eta hori zuzendu egin behar da.

9.4. IBAIAREN BALDINTZA HIDROMORFOLOGIKOAK

Gipuzkoako ibaien aldameneko ibar gehienetan urbanizazioak, industrialdeak eta azpiegiturak kokatu dira. Hori dela eta, birgertatze-aldi laburreko uholdeek kalte larriak eragin izan dituzte, eta, horren ondorioz, bideratzeko eta babeseko obra batzuk egin behar izan dituzte ibaietako habitata nabarmenki eraldatu dutenak (ibilguan eta ibai-bazterretan); hobetu ez ezik, alderdi horrek okerrera egin du azkeneko urte hauetan eta etorkizuneko aurreikuspenak ez dira oso aldekoak. Baldintzarik zorrotzenak eskatzen dituzten arrain-espezieentzat eragozpen garrantzitsuak dira; dena den, oraindik ere ibai-tarte asko ditugu habitataren aldetik kontserbazio-egoera egokia gorde dutenak.

Ibaietan egin diren jarduera antropikoek (babesak eraikitzea, bideratze-lanak, ibilgua zabaltzekoak, ibai-bazterreko landaretza desagertzea...) eragin negatiboak izan dituzte ibaietako ekosistemen gainean, eta, horrenbestez, ekosistema horien degradazioa ekarri dute.

Jarduera horiek ibaietako ekosistemaren gainean, osoki hartuta, eragin desegituratzailea dute. Horren ondorioetako bat, hain zuzen ere, korridore biologikoaren eginkizuna galtzea da; Euskal Autonomia Erkidegoa bezain gizatartua dagoen lurralde batean, ibaiak espezieen lekualdaketarako bide garrantzitsu izan daitezke. Era berean, ibai-bazterreko landaretza suntsitzeak eta babesak eraikitzeak ibaietako habitataren funtzionaltasuna galtzea eragiten die espezie askori, bai zehatz-mehatz urtarrak direnei eta bai ibai-bazterreko giroetara loturik daudenei ere (amurarraina, izokina, iberiar muturluzea, bisoi europarra, zuhaitz-igel arrunta,

martin arrantzalea, ur-zozoa...), babeslekuak desagertzen direlako, erregimen termikoa aldatzen delako, argiaren intzidentziatik...

Era berean, ibaiaren funtzionamendu trofikoaren alterazio bat gertatzen da, zuhaitz-estalkia ezabatzeak materia eta energia hori sartzea eragiten duelako, eta horrek uretako faunari eta landaretzari aldaketak ekartzen dizkiolako. Azkenik, ibai-bazterreko landaretzak iragazki modura jokatzen du sistema urtarrera iristen diren mantenugaiekin, baita sedimentuen tranpa modura ere, eta, horregatik, ibai-bazterreko landaretzak suntsitzeak uretara mantenugai gehiago iristea eragin dezake nekazaritza inguruetan, eta horrek kutsadura-arazoak sorraz ditzake. Gainera, higadura - garraio - sedimentazio sistemaren orekan ere aldaketak gertatzen dira, eta horrek aldaketak ekar diezazkioke komunitate urtarrari, tarte horretan berezkoak diren espezie jakin batzuk urrituz edo desagertuz edo bertan ohikoak ez diren beste batzuk agerraraziz. Azken batean, ibaietako habitataren pobretze bat eta biodibertsitatearen galera bat gertatzen da, eta ondorioz, kalitate urriko ekosistema bat dugu.

Bide batez, ibai-bazterreko landaretzarik ez egoteak edo horren eskasiak zuzeneko eragina du uraren tenperaturan. Ibai-bazterreko basoa degradatzen edo galtzen denean, handitu egiten da eguzki-erradiazioa, eta horrek uraren tenperatura igotzea eragiten du. Hori, aldi berean, uretan disolbatuta dagoen oxigeno-kontzentrazioarekin lotua dago, tenperaturak gora egin ahala gutxitu egiten baita oxigenoa. Gainera, igoera termiko batek bizkortu egiten ditu eutrofizazio-prozesuak. Horrek guztiak organismo urtarren bizitzarako baldintza kaskarrak ekartzen ditu, batez ere baldintza zorrotzenak behar dituztenentzat.

Ibaietako habitataren kontserbazio-egoera aldatu egiten da arro batetik bestera; dena den, eragin-maila, oro har, nahiko handia da. Horrela, Bidasoa, Oiartzun eta Urumea ibaien arroak dira egoera onenean daudenak, nahiz eta eragin garrantzitsuak dituzten. Urumea ibaiak, beheko tartean, alterazio hidromorfologiko handi bat du hainbat lan eta bideratzeren ondorioz, eta, gainera, hainbat azpiegitura egitea aurreikusten da, hala nola AHTa eta bideratze-lanak. Azpimarratu beharra dago Urumearen behe-ibilguak garrantzi handia duela espezie migratzaileentzat, hala nola izokinarentzat eta lanproiarentzat (orain berriki egiaztatu dute espezie mehatxatu honek baduela presentzia), espezie horien goranzko eta beheranzko migrazioan igarobide eta girotze-gune delako. Beste alde batetik, Deba, Oria eta Urola ibaien arroak oso kaltetuak daude, Deba eta Oria bereziki. Gainera, ibilguan eta ibai-bazterretan kalteak eragin ditzaketen obra batzuk egiteko arriskua dago. Beste alde batetik, espezie exotiko inbaditzaileen presentziaren inguruko arazo bat ere badago (*Robinia pseudoacacia*, *Fallopia japonica*, *Buddleja davidii*, *Cortaderia selloana nagusiki*), ibaietako ekosistemaren ohiko funtzionamendua eraldatzen dutelako.


Jarraian, proposamen batzuk egiten dira, ibaietako hidromorfologiarekin loturiko egoera hobetzeko helburuarekin:

- Ibai-tarteak egoera onean kontserbatu behar dira, Europar Batasuneko Uren Zuzentarauak dioen moduan, onbideratzen joaten diren aldeak birkolonizatu ditzaketen "haztegi naturalak" direlako.
- Etorkizuneko obrek ahalik eta ondoriorik txikiak eduki behar dituzte ibaietako habitatean. Gainera, ibaietako habitataren aldaketa ahalik eta txikiena izan dadin, beharrezkoak diren babes-neurriak eta neurri zuzentzaileak finkatu behar dira. Proiektu berriek segurtasuneko premia hidraulikoak ibaietako habitataren babesarekin edo are hobekuntzarekin uztartu behar dituzte.
- Jatorrizko ibai-bazterreko basoa (haltzadia-lizardia) onbideratzeko jarduerak sustatu behar dira ahal den neurrian, eta horren barruan sartuko litzateke luzetarako jarraitutasuna, zabalera, osaera eta landaretzaren egitura berreskuratzea.

- Hidromorfologia lehengoratzeko proiektuak eta jarduerak egin behar dira ingeniari-tza biologikoko teknikak erabiliz, ibaietako habitata lehengoratzeko, hobetzeko eta dibertsifikatzeko xedez, eta, era horretan, ekosistemari egitura-komplexutasun handiagoa eskainiz. GFAk zenbait jarduera burutu ditu horri begira. GFAk zenbait azterketa egin ditu horri begira.
- Espezie aloktonoen landaketek okupatutako eremuak baso natural bihurtu daitezela sustatu behar da.
- Landare-espezie exotiko inbaditzaileei (*Robinia pseudoacacia*, *Fallopia japonica*, *Buddleja davidii*, *Cortaderia selloana* nagusiki) jarraipen bat egin eta errotik erauzi behar dira, habitat naturalen degradazioa dakartelako. GFAk hainbat jarduera egin ditu.

GFAk hainbat jarduera egin ditu ildo honetan, ikuspuntu hidromorfologikotik ibai-tarteak leheneratzeko, eta, horretarako, esku-hartzeak egin ditu ibai-bazterretan eta ur-ibilguan. Gainera, nabarmendu behar da GFAak berriki burututako Ekintza Plana, Gipuzkoako ibaietarako, hurrengo urteetan berreskurapen ekintzak antolatzeko helburuarekin.

Bestalde, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoari dagokion Plangintza Hidrologiko berriak proposatutako Neurrien Programa ibai-bazterrak kontserbatzeko eta lehengoratzeko neurriak dakartza.



3 Mapa.- Egoera biologikoa. IBMWP indizea


2016ko Udaberria


KOLOREA	EGOERA
Blue	Oso ona
Green	Ona
Yellow	Moderatua
Orange	Eskasa
Red	Txarra

Tipologiak

- [29] Kantauri-Atlantiar ibai ardatz karetxu nagusiak
- [32] Kantauri-Atlantiar ardatz txiki karetsuak
- [22] Ibai karetsu Kantauri-Atlantiarak
- [30] Kostaldeko ibai Kantauri-Atlantiarak
- [26] Mendi-Heze karetsuko ibaiak
- [23] Euskal-Pirinear ibaiak

E: 1/200.000
DIN-A3





4 Mapa.- Egoera biologikoa. IBMW indizea.


2016ko Agorraldia


KOLOREA	EGOERA
Blue	Oso ona
Green	Ona
Yellow	Moderatua
Orange	Eskasa
Red	Txarra

Tipologiak

- [29] Kantauri-Atlantiar ibai ardatz karetxu nagusiak
- [32] Kantauri-Atlantiar ardatz txiki karetsuak
- [22] Ibai karetsu Kantauri-Atlantiarak
- [30] Kostaldeko ibai Kantauri-Atlantiarak
- [26] Mendi-Heze karetsuko ibaiak
- [23] Euskal-Pirinear ibaiak

E: 1/200.000
DIN-A3






2 Mapa.- Arrainentzako uren gaitasuna:

2006/44/CE/Zuzentaraua

2016. Urtea

- SALMONIDOENTZAKO EGOKIA
- ZIPRINIDOENTZAKO EGOKINA
- ARRAINENTZAKO EZ EGOKIA

E: 1/200.000
DIN-A3



I. ERANSKINA

ZEBRA MUSKUILUAREN EGOERAREN TXOSTENA

AURKIBIDE OROKORRA

1. SARRERA - AURREKARIAK	1
2. AZTERKETA-EREMUA ETA LAGINKETA-DATAK	4
3. METODOLOGIA	7
3.1. ZEBRA MUSKUILUAREN PRESENTZIAREN KONTROLA UBIDEETAN	7
3.2. IBAIETAN IPINITAKO TESTIGUEN KOKAPENA	7
3.3. URTEGIETAN IPINITAKO TESTIGUEN KOKAPENA	7
4. EMAITZAK ETA EZTABAIDA	8
4.1. ZEBRA MUSKUILUAREN PRESENTZIAREN KONTROLA UBIDEETAN	8
4.2. IBAIETAN IPINITAKO TESTIGUEN EMAITZAK.....	9
4.3. URTEGIETAN IPINITAKO TESTIGUEN EMAITZAK	9
5. ONDORIOAK	10

I Eranskina. Argazki Bilduma

1. SARRERA - AURREKARIAK

Zebra muskuilua (*Dreissena polymorpha*) Itsaso Beltzeko eta Kaspiar Itsasoko molusku inbaditzailea da. Molusku espezie txikia, 3 cm-ko luzera izaten duena, hiruki formakoa eta marra argi eta ilunak ditu sigi-sagan. Tenperatura eta gazitasunean bat-bateko aldaketak jasateko gai da, eta hainbat egunean iraun dezake bizirik uretatik kanpo, baita 10 egun ere. Ur lasaiak gustuko ditu, ur laster gutxirekin. Tamaina mikroskopikoa duen larba fasea du, baita substratura itsatsia bizi den fase bentoniko heldua ere. Larba faseak sakabanatzeko gaitasun handia du. Hazkunde tasa nabarmena du eta baldintzak egokiak izanez gero oso ugalkorra da, dentsitate handiak lortuz.

Zebra muskuiluaren sarrera ekosisteman, kasu gehienetan larbak dituzten uren sarrerari zor zaio. Sakabanatze bideak aisialdi eta komertzio nabigazioarekin erlazioan daude, hala nola, kirol edo aisialdirako erabilera (arrantza, bainua...), beste espezie batzuk ekosisteman sartu eta/edo leku batetik bestera mugitu, ibai inguruko ikerketa lanak, arroen arteko ur aldaketak...

